

Salbador Zapiain

«Ataño»

AZTIA USNARI



AUSPOA

AZTIA USNARI

Auspoa Liburutegia
207

Auspoa Liburutegia
EDITORIAL AUSPOA

Plaza Santa María, 2 - Tolosa (Guipuzkoa)
Tfno. (943) 67 12 82

Salbador Zapiñain
«Ataño»

AZTIA USNARI
(Nobela)

Auspoa Liburutegia

© Auspoa Liburutegia (Tolosa - Gipuzkoa)
Fotokonposatzalle: Cometip fotocomposición, s.l. - Pamplona
Inprimatzalle: Gráficas Lizarra, S.L., Estella (Navarra)
ISBN 84-7158-139-6
Depósito Legal: NA. 1.230-1990

JOXEPA

Joxepa, *Aztia* esaten ziotena, emakume txiki bat zan, irurogeiren bat urtekoa, orain kontatzera goazen istori au gertatu zanean.

Bere goizeroko lana, elizara txintxo joatea, aurreneko mezara. Andik arin-arin etorri ta etxeko lanak martxan jarritz, asiko zuen bere eguneroko bizitza.

Senarra, arrantzalea. Semeak ere bai. Aietako bat etxera ezkondua zeukan. Erraiñak ere arrandegian lan egiten zuen.

Joxepa ere gaztetan ala ibillia zan, kalerik-kale arrai saltzen. Baiña orain, amona egiña, billobatxoak bere kargu geratzen ziran, goiz aldean beiñepein. Orregatik, goiz askotan etzuen etxetik ateratzeko betarik izaten. Arratsaldean bai, erraiña, goizean lan eginta, etxean geratzen baizan.

Bazkalondoan an ikusiko zenduten amonatxoa, ille txuritua, baiña oraindik sasoikoa ta gordiña, zaulia, alaia, iztuna ta erriko jende geienarekin ondo etortzen zana, zeukan bizibidea ere alakoa zan ta.

Galdera guzientzat bazuen erantzuna. Parra ta algara lasai egiten zuena. Emakume baikorra benetan. Sartzen zan leku denetara poza ta itxaropena zeramakiena; ta, aal bazuen, berak barruan gainezka zeukan ura: pakea alegia. Biotzeko aukeratik itzegiten baidu mingaiñak. Amaika fameli asarre zeude-nak adiskidetua, ta zenbat okasio gaizto moztua.

Illea orduko oitura xaarrera orraztua zerman, buru gainera bildua tontor txiki bat egiñez, iru edo lau matxarde txikirekin josia eusgarri bezela, aizeak arrotu ta banatu etzezaion.

Belarrietako ximple batzuk. Oiñetakoak, zer esanik ez, espartzin beltzak; eta gerrian mantaltxo bat. Etzan aberats jantzita ibilliko -ortarako etzeukan modurik-, baiña bai txukun. Urrats ugari ta txikikoa, aidean dabillen mitxirrika bezin ariña.

Zebillen lekuan zebillela, beti belar xortaren bat edukiko zuen eskuan.

Bidean topo egiten zutenak, «Agur, Joxepa» esan gabe etziran igaroko.

Olakoxea zan gure Joxepa aztia, benetako urko maitalea, Ondarrabian jaio, azi ta bertan bizi zana.

Aztia bai benetan, baiña guk or erri batzuetan ezagutzen ditugun oiek bezelakoa ez: beren etxeetan bizi ta beren iritzi ta aolku emaleak, ortatik bizi diranak, ar leku ta guzi. Gaurkoan olako asko dira; ta, beste mundukoak bezela, misterioz itzegingo dizute.

Baiña Joxepari ere, bere lanean ari zala, norbaitek eskatzen bazion, egingo zuen bere aztitza. Ori beti duan, ordea. Etzan ortatik bizi. Bere zeremoniak egin ondoren, erantzunik gabe etzuen utziko.

Ta, jendeak zionez, askotan asmatzen omen zuela. Ezin zitzaion, bada, lege aztia deitu.

Emakume elizkoia, len esan degunez; ongillea. Erditzaille bezela ere ibiltzen zana. Sendi geienetara bazuen sarrera, ta maitatua gainera. Ortatik zerbait kobratzen zuela uste det, arek ere bizi bearra zeukan ta.

Aitortzera joaten zanean, apaizak maiz esaten omen zion:

– Joxepa, aztikeri orri utzi bear diozu. Bestela, egunen batean ez dizut asoluziorik emango.

– Asoluzioa? Bearrik ere bai al daukat? Nik ez det pekaturik egiten. Frantzisko Deuna bezela nabil ni -irugarrendarra izango zan noski-, mundu guziari on egiñez. Amaika senditara eraman det nik pakea ta bizi poza. Polita izango litzake ori neri ukatzea, bikario jauna, ni baiño eliztiagorik ez dago Ondarrabi guzian ta. Ortan asiko baziña, laxter geratuko ziñake bat ere gabe.

– Kristaubideak ez digu sorginkeri ta aztikeritan sinistea galerazen? Zuk ez sinistu bakarrik; aztikeritan zabilta gainera.

– Sorginkeritan? Ori besterik da. Baiña ni ez naiz aztia ere. Galdetzen didatenean, nere iritzia emango det, eta kito. Ez det orregatik zentimorik artzen. Sinisten duten edo ez, or konpon bitez.

– Ez dakit, bada, ez dakit...

Etzion galerazen, ordea. Ez baizuen erriak ere arengatik gaizki esaten.

Baiña bere benetako bizia sasi-sendagilletza zan, edo enplasteroa. Ortan, erri ta bere inguruetan berdiñik etzuen.

Iñork zauriren bat egitean, laxter zuen deia. Lenengo, zauria ondo aztertu.

- Zerekin egin dezu ori? -galdetuko zion.
- Kristal batekin.
- Garbia al zan?
- Baratzan ari naizela egin baidet, lokatz pixar bat bazeukan noski.
- Eta odolik ixuri al dezu?
- Bai, ta asko xamar.
- Ori ona da zauria egin berrian. Zikinkeriak berekin eramaten baiditu. Beartuta bederenik, odol pixar bat ateratzeak ez dio iñori kalterik egingo.

Txeetasun auek guziak jakin arte, etzan ezertan asiko. Ondoren, egingo zuen bere enplastoia: tipula, baratxuria, pasmo belarra eta abar. Baita kristal txikitua ere zenbait zaurirentzat. Baiña tipula ta oiek geienetan jarriko zituen bere enplastoan.

Baserritarrak nekez joango ziran benetako sendagille batengana. Jakiña, etzituen denak sendatuko. Alare, jendeak bazeukan konfiantza. Eske aundia zuen. Erriz kanpora ere izaten zituen deiak. Eta sendagilleak etsita utzitakoetan ere bai, askotan deituko zuten.

Orregatik, bat bakarrik etzan, onek bezela Ondarrabi ezagutzen zuenik. Erri artako barrutiak ere, urtean bost edo sei aldiz aztarrikatuko zituen belar sendagaien billa.

Subegorrien ozkadak ere sendatzen bai omen zekiela. Kredoa atzekoz aurrera esan ta gero, bei kaka-ekin lotu. Au, aztikeria ezik, sorginkeria ere izango litzake. Baiña nik ala daukat entzuna. Ez dakit egia dan.

Umore oneko, alai, iztun ta baikorra, azti bezela ere denak zabaltzen zioten biotza. Sendi askotako negar ta mixeriak ondo asko ezagutzen zituen.

Asarre gaiztoak ekartzen dituen oitura kaxkar bat badute batzuek: batean ikusi ta entzuna bestean kontatu. Ona bada, or nonbait. Txarra bada, sumintzen ditu biotzak. Ortan erne ibiltzen zan Joxepa. Berri-txu xamarra izanagatik, etzitzaion auzoetan entzuna edo berari kontatua jalkiko.

Mendirako ateraldi batean, belar biltzen zebillela, bide txigor baten ondoan, aizeak leioren batetik eramana noski, erderaz idatzitako eskutitz labur bat arkitu zuen. Arratseko intzak zer bait bustia eta tinta zabaldu xamarra, baiña aixa irakurtzeko moduan, eta galdu berria noski. Bein irakurri zuenean, ezin zituen begiak andik kendu.

Erderaz idatzia, baiña Joxepak lardaskatzen bazekien, etorkiñekin ikasia. Bere izen ta guzi egindako eskutitza, egitazkoa izango al zan? Nori egin zion ori? Benetan estraiñoa ta Joxepari zer pentsatua ematen ziona.

– Nork idatzi ote du au? Zalantzarik gabe emakumeak, Mercedes Rati da izenpetu duena beiñepein ta. Eta nori egiña? Benetan maitemindua dagoen gizon bati, Antonio Vargas izenekoa. Erdalerritik, ziur asko Ameriketatik, nondik ez badu jartzen ere.

Berri geiago jakin gabe, zertarako egiña zegoen ezin ziteken igerri. Baiña bazirudien norbait iltzera beartu nai zuela bere maitalea; eta, Joxeparen iritziz, biak ezkonduak ziran edo elkarrekin maitekeritan ibilliak beiñepein.

Txuxenean etxera eraman ta bere gelan gorde zuen, ondo legortu arte. Eriotz gaiztoren bat estal-

tzen zuen giltza ez ote zan izango ura? Joxepak uste zuena bazan beiñepein, galdu zuenak etzeukan bururik.

INDIANOEN APARIA

Ondarrabiko ostatu batean zan aparti ori, arrandegitik inguru xamar. Ez dakit orain badan. Aspaldian ez naiz ibilli inguru oiek barrena. Baliteke bota ta aren lekuan beste etxeren batzuk egiñak izatea. Jendea benetan berri zalea daukagu ta Ondarrabiari ere etzaio pakean utzi.

Orduan beiñepein an bildu ziran, ez dakit zenbat, baiña zortzi amarren bat indiano, beren aparti legea egitera. Izoki ederren bat arrapatu zutela ta uraxe lagun artean jateko asmoan. Bein asi ziran ezkerro, oitura bezela artu zuten, patxara ederrean Ameriketara aldeko gertakariak berrituz.

Ostatu txiki artatik itxasoa beiñepein urbil zeukaten. Baiña aiek bildu ziran garairako, pake-pakean zegoen dena.

An apaltzen ziran batzuk arrantzale izanak ziran, eta ango kai ta arrandegiko berri ondo ikasiak.

Ori dena indiano aientzat gogoangarria zan, bada, apaltzera zetozen aietako batzuk, len esan degun bezela, itxas zabal artan arrantzan ibilliak baiziran.

Lantegi artatik beti beartsu bizi bearko zutela ta alde egiñak. Dirua amets ta arrantzatik ezin aberastu.

Legorrekoak ere bazeukaten itxasoarekin zer ikusia. Ameriketa aldera ta andik onuntzako txangoa, bat baiño geiago egiñak noski. Bai naiko naigabeak igaro ere. Askotan, etsitzeraiño. Illabeteak, lekuraiño ezin iritxirik. Bidean galdu ta ekaitzaren mende, nora etzekitela.

Baiña ibilli oiek denak bukatu ziran. Munduko etorkizuna, motxa edo luzea, iritxi zuten. An apaltzera biltzen ziranak, beiñepein, lur ura atzera ez biurtzeko utzia zeukaten. Elkarrengana biltzean, ordea, ango gorabeera guziak berritzea atsegin zitzaien. Orain, aspaldiko oroigarri bezela, ondo zetorkien seme-alabei kontatzeko.

Alare, etziran zaarrak bakarrik biltzen. Gazteren batzuk ere baziran tartean.

Beren etorkizun ori irixteko garraztasunak apari ortan berritzen zituzten, nork baiño nork aundiagoak. Ez dakigu dena gari garbia izango zan. Urtero kontu berak aztertzen baziran ere, etzien ajolik, joandakoak ziralako.

Auetan, osasuna zutenak or nonbait bizi ziran, beren diru guzia bide onetik etorria ez bazan ere. Aberastera dijoanak ez baidio beti bere kontzientziari begiratzen.

Zijoazen guziak, jakiña, etziran aberasten. Amai-ka ezin etorririk geratuko ziran, zerekin etzutelako. Beste askok an uzten dituzte ezurrak. Baiña amets ori etzitzaien palta. Bestela, etziran joango.

Beste batzuk –oietan ere barrun beltzekoak, kontzientziari gutxi begiratzen diotenak–, lapurreta biu-

rriak eginta aberastu ziranak baziran. Oraindik askoz okerragoak, diruz jantzi zan adiskideren bati eriotza eman ta aren diruz jabetuak. Ixillean ari ebatsi ta bapo zeudenak. Agian, an biltzen ziranen artean, alakoren bat egon ziteken.

Ori dena gogora erazten zien billera arek. Zuzen jokatupei poz emango zien. Bestepei, berriz, zer pentsatua. Zenbat eta zaarrago, ari ta zorrotzago. Lan txar oiek beroan egiten dira. Baiña otzean epaitzen badituzu, beste tristura bat dakarte biotzera.

Don Kosme indianoak antolatutako apartia zan, bada. Ondarrabiko txalet batean bizi zana, etzan ondarrabitarra. Ameriketan jaioa, baiña euskeraz bertako edozeinek bezela zekiena.

Urte mordoska bat bazan emen bizi zala. Itxuraz, beinepein, emengo oituretara lotua. Bere urte betetzea zalako, orregatik jate bat eskeini zien bere lagunei.

Aberatsa zan. Gizon jatorra noski. Ondarrabian, beinepein, benetan maitatua, batez ere indianoen artean. Sasoiko gizon eder bat, berak etzuen esaten eta inork etzekien alarguna edo mutil zaarra zan.

Arrandegi ondoko ostatu txiki ortan egiten zituzten, bada, beren aparti edo bazkariak, len esan degun bezela.

Bazkaria bazan, meza bat enkargatuko zuten lenagotik. Entzutera denak joango ziran, batzuk bada-epadako kristauak izan arren, bazkaltzera deitzen zituenarekin ondo etortzeagatik.

Indianoak sinismena galduta etortzen omen dira-la andik. Nik ori daukat entzuna. Bakarren batzuk bai noski. Baiña joaterakoan ere, etzuten oso bero-beroa izango.

Txikitan, nere auzoko bat ezagutu nuen, an ibilli ta etorria. Berez kaxkallu xamarra bazan ere, etzuén sinismena zearo galdu.

Askotan ni deitzen niñuen itaurrerako. Aren orduko oitura ona zan, beiñepein, ta ez itxura bakarra. Geroztik askotan pentsatu izan det nik ori. Amabi-amabietan, auzoko eliz torrean ezkillak jotzean, idiak gera erazi ta txapela erantzita, elizara begira iru agur mari errezatuko genituen, eta ondoren ala esango zidan:

– Goiz, eguerdi ta arratsetan, purgatorioko anima gaixoen alde, bakoitzeko iru agur mari errezatzeke oitura zeukat nik. Guk ere, iltzen geranean, gutzaz norbait oroitzea naiko diagu. Ik ere beti jarraiok oitura eder oni.

Don Kosmek deitutako indianoak ere meza entzutera joan bearko zuten. Etziran bestela bazkaltzera sartuko. Agian, berak ere jendearekin ondo etortzeagatik egingo zuen. Denetatik baidago mundu ontan. Bere lagunetatik askok ala omen zioten:

– Gizon orrek ez dik itxura besterik egiten. An Buenos Aires'en ezagutu zutenak badituk, eta deabru guziak berekin zituena omen zala. Daukan karguari eutsi ta erriaren eder egiteagatik zebillek au orrela.

– Utziogun pakean eta etzagun gaizki epaitu. Il-dakoen alde ateratakoa dek eta etziok meza onek iñori kalterik egingo. Berak eskeiñitako aparria ere irabazten baidiagu.

Don Kosme zeukaten beste mundu ortan ibillitako ondarrabiarrak beren buru bezela, ta onek biltzen zituen ango poz ta atsegiñak oroi araztera.

Igaz Guadalupen egin zuten, baiña bazkaria. Le-

ku zoragarria da ura udara aldean. Jendeak etorri aundia daukana. Alako ikusgarriak dauzka gaiñera.

Aita zanak ala esan zidan bein:

– Ikusten al dek katar ori non dagoen loxuxtan?

– Ipar aldetik jotzen duen guzietan, or ikusiko dezu ori -erantzun nion.

– Bai; orain bezela. Jokatuko niokek edozeiñi, gaurko giroarekin leku gozoagorik ezetz billatu.

Barkatu berdintza au: diruz jantzita udara pasatzera datozen etorkin oiek ere badakitela lekurik atsegiñenak billatzen.

Aurten aparía zuten, bada, ta itxas bazterrean. Toki zoragarria, bere ondar, kai ta eten gabeko ugiñen joan etorriarekin. Baiña aiek sartu ziraneko, illuna zan. Sabela asetzero bestetara etziran etorri.

Txuxenean, bada, ostatura joan ziran. An zeuden bi neskatz alai ta irripartsu, serbitzeko zai jarriak.

Beren agurrak egin ondoren, aurretik maian jarriak zeuden suspergarri batzuk asi ziran jaten. Apari aurretik era askotako jakiak etziran izango noski. Zortzi lagunek zazpi kiloko izokia zuten apaltzeko, zopa gozo baten ondoren. Baiña apaldarrak etzekiten oraindik.

Don Kosmek, Bidasoan arrapatutako izoki eder ura bere lagunen artean janez igaro nai zuen bere urte betetzea. Zopa gozo ura jan ondoren, lurrin jario maira atera zuten. Zeremoni aundi gabe asi zan aparía.

Batzuk mendian artzai, besteak edozer lanetan oituak zeuden, eta ez aiei eskatu eziera estu batek gizarterako eskatzen dizkigun txetasun oiek. An

geienak lege oiek ikasi gabeak ziran. Ori bai: denak Don Kosmeri agur egiñez ta:

– Urte askoan txapela kaskoan.

Ura buru zutela, berak eskeintzen zuen ta, bera izango zan an zerbait ikasia, lege gizona omen zala gaiñera ta.

– Zer degu au? -galdetu zuten.

– Arraia degu noski.

– Etzerate arrai zaleak orduan zuek? -galdetu zien Don Kosmek, apaldarrekin asmatu etzuelakoan beldurak.

– Ona bada, nik aragia baiña naiago.

– Euskalerrian oraintxe benetan bakandu dan arraia degu au.

– Emen oraindik ere etortzen dira. Baiña au bezelakoak banakak.

– Garai batean bai; ontatik ere bazan aukera. Eltzekondo zanaren berri izango dezute noski.

– Bai. Ernaniko burrukari ta pultsulari kankaillu bat.

– Arek, Ernanin, izoki arrantzatik ateratzen omen zin bere bizimodua.

– Ala jainkia! Gaur izoki arrantzatik ez likek orduan zeukan lepa zamarra edukiko, eun da berrogei kilotik gorakoa izango uan ta.

– Zer degu, bada, ibaian arrapatu dan au?

– Esan degu, bada: zazpi kiloko izokia.

– Zazpi kilo? Ala jainkia! Ta izokia gaiñera. Askotan entzuna, baiña maian oraindik ikusi gabea.

– Ez da nolanaikoa ere. Zazpi kiloko izokia zortziren arte, gerrikoa lasaitzen asi bearko diagu.

– Nor da arrantzale ori?– galdetu zuen batek.

Arro-arro zutitu ta ala erantzun zuen Don Kosmek:

– Ni nauzute ori.

– Bejondeizula zuri! –zioten batzuek.

– Erosi egingo zenduen ta –besteak.

– Au erostera joaten bazera, arrasta ederra egingo dizute. Ez det gainera lenengoa. Geiago baditut arrapatuak.

– Non? Gu ere joan gaitezen.

– Bidasoan. Toki jakiñik ez dago. Gutxiena uste dezun lekuan ikusiko dezu, lasai-lasai ur barruan inguruka. Beti aitonak bezela etxe txuloan gilborra azita, giarrak lotu egiten zaizkigu, zearo nagitzeraino. Nik beste egitekorik ez badet, amarrak alde ortan, eguraldi ona bada beiñepein, an ikusiko nauzute, kaiñabera ta karranga. Au, arrapatu detan aundienetakoa da. Garbitu ta gero, astailluan zazpi kilo eman ditu.

– Eskerrik asko, Don Kosme. Au ez degu eguneroko jakia. Olako asko arrapatzen badituzu, ez dezu Ameriketara joan bearrik.

– Ez dizutet besterik eskatzen: eskupeko on bana, serbitzen diguten neskentzat. Jan gogoz. Au da apartia. Denen atzetik postretxoren bat izango da, ta gero akeita.

– Nik kilo bat izoki jaten badet, lertuko naiz biar goizerako.

– Ez det uste orren astuna danik.

– Baiña oierakoan kilo bat badakizu zer dan? Gutxiagorekin bialtzen nau ni geienetan emazteak.

– Zuk ezin badezu, izango dira berenak eta bes-
terenak sartuko dituztenak.

Eraso zioten jateari. Zoramenez asi ziran, saltxa
gozo ura ogiarekin igurtziz, kaxuelkadak garbi-garbi
egiteraiño.

Zortzi lagunen arte, erdiak baiño geiago zaarrak,
zazpi kilo ta geiago izoki, leporaiño aseak geratu
ziran geienak. Alare, gazteren batzuek zerbait geiago
artuko zuten. Baiña askok etzeukaten lekurik. Gerri-
koak lasaitzen asiak ziran. Izokiz gaiñera jarri zan
guzia, an geratu zan noski.

– Or geratu dan orri zer egin bear diogu? –galde-
tu zuen batek. Zur xamarra izaki.

– Nik aski dit. Nai badek, artu ta eraman zak txape-
lan.

Geienak par egin zuten.

– Biar bazkaltzeko ez uke gaizki etorriko –esan
zuen, bera ere parrez.

Beste jakirik nai etzuten ezkerro, postre eder bat
ekarri zuten. Baiña aiek, andik aurrera, etzeuden
asko jateko moduan. Beltzetik geiegi edanak, geie-
nak ordurako katu erdian jarriak.

Askotan, askok deitzen dioten bezela, akeita,
txola ta txokorra ekarri zituzten. Uraxe bear zuten,
zeuden neurritik ateratzeko. Etzitzaien, bada, ura
komeni. Sendagilleak galerazita zeukaten bi edo
iruk. Baiña aurrean ikusi ta aren lurrun gozoa ta
sarkorra sudur mintzetara iritxi zitzaientean, ezin
utzi, bada. Zeiñek atzera egin?

– Artu dezagun. Gero gerokoak. Urtean beingo-
ak ez al ziguk kalterik egingo.

– Au lurrun zoragarria! –zioten–. Kirio guziak dantzan jarriko zizkiguk.

Baiña artu zuten, apariaren osagarri bezela. Begiak ñirñirka jarri zitzaizkien. Akeita kopaxka banarekin zeukaten jarria. Esan bezela, andik aurrera kalte egingo zien geienei. Alare, baziran irutik gora edanak. Aien ondorenak bildurtzen zituen; ez, ordaindu bearrak.

Neskatxak zirikatzen ere asi ziran. Zaarrenak eta okerrenak. Baiña etziran asarretzen. Bazkari ta apari guzietan gertatzen zana zan ori. Eskupeko on baten itxaropena ere bazeukaten. Indiano oiek oparoak omen zirala. Alare, lana bukatu zutenean, erretiratu egin ziran andik, zerbait eskatzen zuten arte.

Ango giroa berotzen ari zan. Aize puska bat artzera atera ta an ikusi zuenak alako biozkada eman zion bati. Sartu zanean ala esan zuen:

– Zoragarria da orratik Ondarrabia. Zerua ez dakit zer izango dan, baiña nik betiko aukeratuko nuke au, orain nagoen bezela izatekotan.

– Onenbeste urtean emen bizi ta etzenduen ipar alde ori ikusi?

– Bai; baiña gaur bezelako kiliskik ez dit egundo egin.

– Igerriko diozu, barrun ortan sartu dezun sua itzaltzen zaizunean.

– Ez dakit orduan nola geratuko naizen, baiña orain bapo nago.

Olakoetan, bertsolariei ere, naiz erdi ipurdikoak izan, doai eder ori berpizten zaie. Batzuei, txurrit pixar bat egin orduko etortzen zaie espiritua –ez da santua izango noski–, ta askatzen da oien mingaiña.

Bertso lanari ekingo diote. Odolean daramagu euskaldunok zaletasun ori. Jator dagoenean, ezin ausartu. Baiña ez nai ez duelako. Lotsak lotzen dio mingaiña. Ori kendu ezkeru, lurraren gaiñean ez da ura bezelakorik.

Asko, berriz, oso bestelakoak dira. Bertsolaririk onenetakoak entzun izan ditut, beren neurritik atera ezkeru, burua pixar bat naastu ta tajurik gabe beti bertsotan ari bear dutenak baiño aixago poto egiten.

Or dezute Txirrita zana. Jator zegoenean, berdiñik gabeko bertsolaria. Bere neurritik ateratzen zanean, poto egiten somatu nuen. Bertso batean bat baiño geiago gaiñera. Batzuek bixitasun ori bear, eta besteentzat kalte.

Beste bat ezagutu nuen. Aren bertsoen asiera, auzan beti:

Diferenteak izaten dituk
durua eta pezeta.

Ortik aurrerakoa Jainkoak jakingo zuen nola aterako zan. Urrengo bertsoa ere itz berekin asiko zan, baiña aldaketa txiki bat eginta:

Diferenteak izaten dituk
pezeta eta durua.

Gure amerikarrak ere, bada, Espiritu Santua jexti balitzaie bezela, ekin zioten bertso lanari:

Txoko polit onetan
bilduta gaudenak,
Amerika aldean
ibilliak denak,

andik diru puska bat
ekarri dutenak.
Oroigarri zaizkigu
pasatako penak,
Don Kosme, ar itzazu
gaur gure omenak.

- Poto! Poto! –oiu egin zuen batek.
- Nik etziot bertso orri potorik arrapatzen –besteak.
- Ez, bada. Alare, naiko lanak baitun beiñepein. Ez uan urruti.
- Zer alde ta urruti! Ez bazan ala, dena palta zin.
- Bai, nai badu. Baiña azkeneko puntu ori ez dek laurekin ondo ezkontzen. Asieran pentsatua aztu egin zaik iri. Gero konponketa txarrak.
- Or ez dek ezeren konponketarik izan. Bertsoa, aria bezela, txuxen joan dek.
- Bai; baiña etortzerako egiña.
- Ateak ainbeste maratil badabilkik gaur ik. Orren jakintsua baaiz, bota zak, al badek, beste bat ohea.

Onela kantatu zuen dotore asko, lenengoari poto egin zuela esan zionak:

Txikitandikan beti
dirua zirika,
Amerika alde ori
biotzak irrika.
Aberastu izan da
gure politika,
bitarte egin diagu

amaika korrika,
gora Don Kosme jauna!
Gora Amerika!

– Ori bertsoa bada, gu ere orrenbeste bagaituk.
Lengoak bota duen bertsoa dek ori, beste itzekin jantzia.

– Bertso polita uan ori -zion irugarren batek.

– Orren bertsolari ona baaiz, bota, bota ohea, aukera daukak eta.

– Utzi. Oraingoan nere txanda dek.

Amerikan pentsatzen
bizi al zera zu?
Sortu ziñan erria
nola aztutzen dezu?
Gure seaska gozo,
anai ta gurasu,
eta aiek emandako
ainbat laztan musu?
«Gora Euskalerrria!»
oiu egin sutsu.

– Bada ez badako bertsoa dek ori, baiña biotzetik aterea. Ire euskal maitasunik ez dik Ameriketak il, erdi aztuak bizi izan bagiñan ere.

– Biotzak ezik, buruak ere ondo antolatutako bertsoa dek ori -zion norbaitek.

Onen ondoren beste bat asi zan, beti bertsotan eta bat onik kantatzen etzuen.

– I ago ixilik, ez dek balio ta -esan zuen batek.

– Guk ez omen dakigu ta ixilik geratu bearko. Ik bota zak ohea -erantzun zion patxara osoan, balio etzuela ta ixilik geratu zanak.

Orduan onela kantatu zuen beste batek:

Gaurko apartia au
ondo datorkigu,
lagun batzun artean
ondo pasatzeko.
Nere burua larri
daukat nik oraintxe,
bat dagon lekuan bi
ikusten baiditut,
bost puntuko bertsoa
asi ta bukatu.

– Bertsotan asi aiz ta sermoi bat egin diguk. Bost puntuko bertsoa? Aixa diok. Non zeuzkak oiek? As-toak ere ohea egingo likek. Ez anka, ez buru, ezer ez.

– Ez dakidala ta ixiltzeko ik esan ez didak, bada?

– Bota, bota ik ere ohea. Nik aalegiñak egin diz-kit.

– Ori bezelakoa botatzeko, izketan jakitea aski dik.

– Nik bederatzi puntukoa botako dit, uzten badi-dazute, ez dakidala esan didan orri erakusteko. Jakin dezala nor naizen.

– Denak eskubide berdiña zeukagu, gure bertso doaiak azaltzeko.

– Orra, bada:

Amerikara joanta
nagusi gallenak,
gure irabaziak
ordaintzen zekenak.
Baiña aztu zaizkigu
pasatako penak,

aitu eziñak dituk
gure almazenak.
Joan ziran geienak
lanpean etenak,
aien urrats denak
etziran zuzenak.
Gaur bapo diru asko
egin zutenak.

– Bejondeizula! Onena zuk bota dezu noski. Ta etzenekiela ta galerazi nai zizuten?

– Bai; len jarria. Ez bat-batekoa.

– Nai badezute, baziak bestea.

Olaxe jardun zuten luzaroan, kopaxka kopaxka-
ren gaiñetik edanez.

Euskaldunak, zaar xamarra bada beiñepein, oso bertsoetara jarria dauka bere belarria. Baita gure txilibituaren doiñu alaiera ere –gazteen berri ez dakit–, donostiarrak idiaren doiñura bezela.

Bein donostiar bat zeruan sartu omen zan, inpernurako zegoena, San Pedrori bultzata, au ere xartu xamarra egongo da onuzkero ta. Apuratua omen zebillen San Pedro, ara ta onera, ura ezin billaturik. Jende artean ezkutatu baizitzaion. Ain serio ikusi zuenean, Jesukristok ala galdetu omen zion:

– Ezbearren bat al dezu-edo? Serio zabiltza.

– Bai. Inpernurako aukeratua zegoen donostiar bat sartu zait zerura. Jende artean naastu da ta ezin det arkitu.

– Gizona, gizona! Orregatik etzaite orren serio jarri. Jo zazute *Iriyarena*; ta, donostiarra bada, laxter azalduko da.

Iriyarena doiñu alaia entzun zueneko, txipiti-txonean an agertu omen zan, zeruan jaiak ziralakotan. Orduan San Pedrok donostiar gizarajoa belarritik artu ta denen aurrean kanpora bota omen zuen.

Bertsoz aspertu ziranean, gure indianoak, ondo zeuden leku babes artan, apartia bukatuagatik bere artan jarraitzeko asmoan, batzuk kontu kontari ta besteak, berriz, jokoan.

ARTZAIAREN LARRIAK

Artzai ibilli ta etorri zan batek artu zuen itza, bere pasatako naigabeak kontatzeko, entzun nai zuenik bazan:

– Orain bizitza eroso bat eskeintzen didaten diruak, ez dira, ez, kosta gabe egiñak. Ez iñori lapurtuta ere.

Emendik dijoazenak lanik txarrenetan jartzen dituzte, an itxu-aurrekoren bat ez badute; eta, nere iritzian, artzaingoa beldurgarriena. Bizimodu latza benetan. Batek igaro egin bear du ortik, nolakoa dan jakiteko.

Ondo ordaintzen zutela-ta, lilluratua joan nintzan. Emen ere ortan nengoen oitua. Jakiña, emengoaren ondoan sari bikaiña da angoa, Euskalerrian bizitzeko. Gure diruak alako amar balio baidu. Arako ez, ordea. Irabazten dan neurrian dago ordaindu bearra ere.

Ni, beñepein, artzai joan nintzan, ia beste opiziorik ez neraman ta. Baditu bere alderdi onak, aberastu nai duenarentzat. Baiña an bizitzeko, beldur-

garriak geienak. Prueba egin dutenak sinistuko dute.

Bakardade gorrian, mugarik gabeko mendi ikaragarri aietako ixiltasunean, millaka ardi larratzen bizi ta diru pixar bat egin ondoren iges etorria naiz. Orain or nonbait banabil ere, nereak eta bost igaro ta gero.

Ameriketa ortan urrea besterik ez dala izango, askok ala diote. Ori bein baiño geiagotan entzuna nago. Baiña artzaingoan millonario egin? Alazankoa! Nere diruak alperkerian bizi ta egiñak ez dira. Amaika tratu gaizto nere buruari emana, kutizi geienak utzita. Emengo antzera bizi izan banintz, ez nuen zentimorik aurreratuko. An ala irauteko, osasuna bear du. Bestela, laxter eroriko da, ta agur egin bearko dio lantegi orri betiko.

Gu bi joan giñan, nagusi banarentzat aukeratuak. Urte bete baiño len, bere sortetxera itzuli bear izan zuen besteak. Nere patrikatik lagundu nion etortzen. Agur egiterakoan, ala esan zidan erdi negarrez:

– Ederki ari niñun irabazten, baiña bakardade onek irentsi niok. Nik emen ezin dit etsi; ta, osasuna galdu baiño len, baniak. Arako txangoa egiteko aiña diru ez dit aurreratu. Bakarren batzuek *begi-luze* esango zidatek, eta egia noski.

– Bai. Ikaragarria dek bakardade ixil au. Emen-dik legoetara zegok nere urrengo artzaia, ta agian etsairik gaiztoena. Joateko palta dekan diru pixar ori, nik pozik emango dit.

– Eskerrik asko, motell. Iñoiz ordaintzerik izaten badet...

– Utziok orri, urrengoan neroni arkitu nintekek orrela ta.

– Biok batera izan bagina, etzitzaidaken orrelakorik gertatuko. Baiña legoetara bakar-bakarrik...

– Eta okerreña len ere esan dit: Jainkoak dakien lekukoa, eta agian bera ire etsairik gaiztoena.

– Bai. Ori egia dek. Ni baniak, beinepein. Emen-go berri ikasi diagu. Nik aolku emanta ez dek inor etorriko.

– Agur, bada, ta ondo bizi. Goraintziak emaizkiek nere etxekoei.

Baikorra joan zana, triste etorri zan.

Ainbeste ardirekin, nagusi zeken baten mende. Len esan detana, neurri gabeko mendi basamortu aietan bakarrik. Aste osoak inor ikusi gabe. Ta, askotan, norbait azalduko dan beldurak. Jainkoak dakien lekuan urbilleneko bizi laguna. Txabola ximple batean, ura bizileku. An ez dezu maindire zuririk arkituko. Pizti ta lapurren beldur. Zedorrek zer jana jarri bear. Geienetan, sua ez pizteagatik, otza ta zezindua gainera. Erropa garbiketak egin. Konpontzeak ere bai. Ez mezarik, ez errira jexterik, an dabil-tzan abere basatiak bezela. Ez daukazu izkillua uzterik. Iru zakurren laguntza zure alibio guztia. Ez sendagille, ez sendagai, amaika katarro gaizto igaroa naiz. Zenbat, itxaropenez joanta, nere lagun ori bezela, gaixoturik, ara joan ziran baiño beartsuagoak etziran itzuli! Eta ez da batere arritzekoa.

Eskerrak, alare, zakur zintzoak baneuzkala. An ez daukazu beste babesik. Aiek, bere nagusiarengatik bizia emateraiño saiatuko zaizkizu.

Zer uste dezute: emen bezela bizi ta tabernatik baternara baxoerdiak edanez ibiltzen ginala? An ez dago zinerik; telebista ta irratirik ain gutxi. Beste

jolaslekurik ere ez. Ortan joaten da emen irabazten duten dirua.

Eguna nabarmentzean jeiki; illuntzean erretiratu. Baiña beti erne zakur zaunka guzira; ta, batez ere, izkillua eskuaren tirabidean.

Ardangeletan emen txautzen dan diru guzia, an aurreratuko dezu. An bezin txintxo emen saiatuko balira, bertan egingo luteke Amerika, milloiak irabazteraiño. Gu an ibilli geran bezela bizitzea, ez da txorakeria, ez.

Amar urte bota nituan, ta azkenean iges etorri bear. Iru edo lau arrats jarraituetan, nere txabolaren inguruan, ontzaren ulluak ziruditen oiua entzuten nituen. Baiña etziran ala. Gizonak ziran; lapurrak alegia. Batek aurretik, atzetik besteak erantzungo zion. Iru gutxieneko baziran.

Ni, berriz, bakarrik, eskuan neraman izkillua ta zakur zintzo aiek beste laguntzarik gabe. Beti urduri nenbillen, nere burua ondatzeraiño.

Azkenean, txabolan nengoelakoan eraso zidaten. Baiña etzuten asmatu. Zakur bat neukan barruan lotua; beste bi kanpoan nerekin. Barrukoa zaunkaka somatu zutenean, eraso zieten kanpokoak ere; ta naastuak, nora etzekitela, geratu ziran lapurrak, eta igesari eman zioten. Atzetik sutu nien nik, eta bada- kit bakarren bat bazala joa. Odol arrastoak billatu bainituen.

Ori ez nuen ondo egin. Iges dijoanari utziok pakean. Erotzeraiño ekarria neukaten, ordea.

Ordaiñak eman naiko zizkidatelakoan, urrengo egunean, dena utzi ta errira jetxi nintzan laguntza eske. Etzidaten agindu. Orduan, artzaingoa laga ta onerako bidea artu nuen.

Igaro duenak bestek ez daki zer dan ori. Ero erazi nai niñuten lenengo, gero lapurreta egiteko. Ederki kostata egiñak ditut, bai, ez iñori lapurtuz. Zenbat aldiz ara joana ez nintzan damutu!

Emengo nere lagunak usteko zuten, an bizi giñan arte ez genduela ezeren paltarik izango. Bitartean, artzaiak bakarrik, eta gorriak ikusten. Olakoxea da ango artzaien bizimodua.

– Bai. Larrialdi ederrak ikusitako indianoak izango dira. Gu kalean bizi izan bagiñan ere, ez genduen alako arraisku txarrik igaro –erantzun zion batek.

Batzuk jokoan ari ziran. Aiek naiko lanak bazituzten beren tanto ta amarrekoak ezin kontaturik, baten lekuan bi ikusten zituzten ta.

ESKU TXURIKO LAPURRA

Beste batek ere kontatu zuen, baiña ez berari gertatua. Aren lanari zer esango diogu? Esku txuriko lapurra. Lan gaiztoa egin zuen, gero ordaiñak artu bazituen ere. Lapurreta egin ondoren, ustez aberastua etorri zan. Baiña arratoi bat baiño beartsuago utzi zuten gero.

Mutil sasoiko ta ederra joan zanean. Ura ere diru pozean, jakiña, denak bezela. Entzute utsarekin ametsetan jartzen giñuzten Ameriketa alde ortara joateko. Au berez naparra zan, Baztan aldekoa noski.

Emendik non kokatu ez dakiela joaten danak, andik deitu gabe, lana billatu arte gorriak pasa bear-ko ditu. Au, ordea, ezagun baten lantegira joana zan, arotz batengana. Jan da jazteko baiño geiago irabazten zuen. Alare, etzegoen konten. Ainbestean bazebillen bere errian. Lan gogorra ta zikiña, aberastera joan zan batentzat irabazi gutxikoa, beste lantegi obe baten billa zebillen, bada.

Lanetik etxerakoan, illunabarrero somatzen

zuen, bere pasaeran neska beztaka bat balkoi batetik begira egoten zitzaiola. Bakarrik bizi ura ere nonbait gaixoa, ta lagun bat nai. Osasun gutxikoa ta aul xamarra zirudien, baiña aberatsa. Arotz langillea azaldu ta ezkutatu bitartean, begira-begira egoten zitzaion. Mutilla bera ere oartu zan:

– Neska beztaka orrek zer ote du nerekin?

Illunabar batean, bada, balkoipetik igarotzerakoan, gainetik pañuelo zuri bat erori zitzaion aurrera. Onek begiratu zuen gora, ta andik begira zegoen neska beltzak, irripar gozo batekin ortz zuri aiek erakutsiz, jasotzeko mesedez eskatu zion.

– Ori besterik ez badu nai...

Igo zan, bada, pañuelo zuri arekin, ta neska beztakak bat-batean bere maitasuna agertu zion.

Mutillaren lenengo erantzuna ezetza izan zan. Zer esan bear zuten bere erritarrak, neska beltz batekin ezkondua azaltzen bazan errira?

Baiña neskak gero ta geiago eskatzen zion, maite zuela ta. Azkenean, diruak konpondu zuen dena. Aberatsa zala ikasi zuenean, lanak erreztu ziran. Baietza eman zion. Ajola aundirik etzuen beltza izan edo zuria, aberastera joan zan batentzat.

Antzeman zion aula zala gainera, ta erdi gaixoa. Agian, munduari laxter agur egingo ziola. Ezkondu ziran. Errege batzuek bezela igaro zuten eztaiondo luze bat. Atzera-aurreraka, Ameriketa guzia ikusi ere.

Alabatxo bat ere jaio zitzaien. Etzion noski aitari poz aundirik eman. Bere amets guziak uxatu zitzaizkion orrekin.

Onek bost urte zituela il zan ama, ta aur arekin

aita bakarra geratu. Ura mantentzeko, buruauste aundirik etzuen ibilli. Alabatxoa, barrukoa bezela, kolejio batera sartu, bere ordain bearrak aurretik pagatuta.

Ondoren, amarenak ziran interes guziak bildu, etxea bera ere salduz. Ta, dena beretzat arturik, esate baterako aurra larru gorrian utzita, Baztan aldera etorri zan, Elizondora, zearo aberastua. Emengo neska batekin ezkontuta, zoriontsu bizi ziran, alabari ebatsitako diruekin.

Neska beztaka ura ere poliki-poliki bazijoan azeitzen. Ordainduta zeukan urte mugara iritxi zanean, kolejioa utzi zuen. Ondo ezia ta buru argiko neska baizan, bereala ikasi zuen bere ama beltza zala, baiña aspaldian illa. Aita, ordea, zuria. Baiña bera bakarririk geratua.

Aide batzuek artu zuten. Aiek esanta jakin zuen, amak berari utzitako aberastasunak ebatsi ta erabat zokoratua lagata, aldegin zuela bere aitak.

Zer egin bear zuen? Bererik etzeukan ezer ere, ta errukiz zaintzen zuten. Nola billatu gaiñera bere aita? Nongoa zan etzekien. Non bizi zan gutxiago.

Zailtasun guzi aiekin etzan gure neskatxa atzeratu. Artu zituen berekin bearrezko izango zitzaizkion agiri guziak, eta jarri zan Euskalerrirako bidean.

Amaika ixtillu jasan ta galderak egin bearko zituen. Ez baizan orduan gaur bezelako egazkiñik. Azkenean, ordea, besteren interesekin zoriontsu bizi ziran senar-emazteen atean jo zuen neska beztakak.

Nor zan jakin zutenean, ango ixtilluak! Aitak -goibel-goibel, alaba izaki- etzion arrazoi txarrik eman. Ondo tratatu ere, azio gaiztoa egin ziola bazeukien ta. Bere emazteak txikituko zuen, utzi baliote.

Baiña alperrik. Besteak legez bere interesak jaso zituen; ta bapo bizi ziranak, lan egin bear, jango bazuten.

Gizon ori bizi da oraindik, eta Elizondon dago.

– Neska beztaka batekin ezkondu? –zion batek.

– Zergatik ez? Diruarengatik joan dan bati zer ajola bear ziok?

– Ni ez niñuke ondo konponduko.

– Eta dekan zuri orrekin ondo konpontzen al aiz?

– Utziogun orri, emen geienok gure zaputzaldiak izaten dizkiagu ta.

– Ez bazuten ondorengorik izan, bapo zan gure gizona. Amak ere arraisku ori ikusiko zuen, eta diruak alabari utzi.

– Gizon zuria baiño, bere beltzean iaioagoa zan emaztea.

– Gure artean asko izango dira orrela aberastuak ere. Ez baidira denak neska beztaka bezin ausarditsuak izango.

– Nik ez nuen pilla aundirik ekarri. Baiña kontzientzira egindako dirua.

BATEN UTSUNA

Gazte batek artu zuen itza urrengo, baiña etzan batzarrean ezaguna:

– Barkatu. Amerikarra naiz nerez, eta gurasoetatik aberatsa. Baiña bada beste norbait, eta ez dedilla sail ontan arkitu. Aberastuta datorren ondarrabiar bati interes asko kendu dizkiona eta lapurtua, ez da iñon ere ageri.

– Nor zera zu? –galdetu zioten.

– Buenos Airesen jaioa, baiña nere gurasoak Ipar-Euskaditik joandakoak. Orregatik euskeraz garbi-garbi dakit. Ikasi nuen emen, batzar lege bat egiñez, zuetakoren baten urte betetzea ospatzeko, apari lege bat zendutela. Don Kosmeri baimena eskatu nion eta baietz esan zidan, ango berri jakiteko zoratzen zeudela ta, batez ere aspaldian an ibillitakoak, eta ona non nauzuten. Ondarrabiarra ez izan arren, ez nauzute zuen artetik botako noski.

– Ez, gazte, ez. Poztu egiten gaituk, zuek guk emen artutako martxari jarraitu bear diozute ta.

– Len an ibillitakoak ezeren asarrerik gabe emen

bilduak ikusteak, atsegin ematen dit neri ere; ta Jainkoak eman dezaiola Don Kosmeri luzarorako bizia, oitura eder oni galtzen etzaio utzi bear ta.

– Eta zuk zer esan bear diguzu?

– Ni salatzer a nator, eta zaudetenoi naigabe pixar bat ematera noski. Injenieroa naiz, lantegi eder baten buru nagoena.

– Salatu? Naigabetu? Zer gertatzen da, bada?

– Utsun bat arkitzen det nik emen. Nerekin batera zuen artean pozik egongo zan indiano jator baten utsuna. Norbait aberastuko zan aren diruekin. Benetan negargarria.

– Zu etorri berria zera ta gaztea. Noren utsuna arkitzen dezu? Ez da arritzekoa. Ondarrabiko indiano guziak ez daude emen, alderatzekorik ere.

– Zalantzarik gabe ura oietakoa zala. Baiña etorriko zan. Ni an jaioa ta azaldu berria naiz, len esan dizuedanez, nere ondoren zetorrenaren aintzindari. Emen geienak ezagutuko zendutena noski: Antonio Irastortza.

– Bai, aspaldian –zioten batzuek–. Txikitatik gizon langille ta iztuna. Oraindik bizi zaizkio gurasoak ere.

– Nik ezagutu berria det. Ameriketan gaiñera. Beraren alaba bakarra da nere andregaia. Aren utsuna nabari det nik emen. Seguru badakit bestela gaur gurekin egongo zala. Ain da gizarteko gizona.

Baita muslariak ere, denak arretaz entzuten jarri zitzaizkion.

– Emendik joan zanean, nik berak esanta dakit, geienak bezela, ango berri jakin gabe; ta, martxa artu arte, larri ibilli zala. Baiña gero, suerte onerako

jaioa izaki, neke ta naigabe guziak aztu zitzaizkion. Senar-emazte euskaldun batzuk bizi ziran, xaarrak ordurako, Antoniok lana egiten zuen inguruan. Etzuten ondorengorik. Baiña aberats purrukatuak, batez ere pitxi gauzetan. Gazte bat zebilkiten kotxe zai. Baiña lapurra zala oartu ziranean, Antonio artu zuten aren lekuko, ura bialita. Ta ain serbitzaria iduritu baizitzaien, norbait bear ta beren seme ta oiñordekotzat aukeratu. Lengo morroiak Antoniori zemai gaizto au egin omen zion: «Oraindik interes oiek guziak nere eskuetara etorriko dituk» esan ta aldegin omen zuen. Baiña Antoniok etzuen sinistu. Au dena egia danik ez dakigu. Jendearen esamesak agian. Senar-emazte biak laxter il ziran. Interes guzien jabe, bada, Antonio Irastortza geratu zan.

– Ez genin guk alako suerterik izan –zioten batzuek.

– Antonio ezkondu ta alaba batekin alargun geratu zan, oraindik gazterik. Bigarren emaztea artu zuen, baiña onekin etzuen aurrik izan.

Orain, emaztea ta alaba an utzita, Ondarrabirako asmoan erten zala ogei egun bete berriak izango dira, emen bizitzeko ustetan gaiñera. Badakigu Baionan bazkaldu zuela. An arratsaldea ta gaua pasata, eguerdi aldera igaro zan mugatik il onen 20'an, eta oraindik ez da bere etxeraiño iritxi.

– Bazterrak astinduko dituztelakoan nago. Ez digute indiano aueri ere, ori garbitu bitartean, pake askorik utziko –zioten apaldarrak.

– Alazankoa! Ori emen gertatu al da?

– Bai. Aren aztarrenik ez da beiñepein.

– Aren asierako suerte onak ez du erremate gozoa izan.

– Norbaitek emen bertan egingo zuen Amerika.

– Ori egin duena, bere diru ta guzi arri biurtua geratuko al dek betiko! –zioten, suminduta.

Berri au ikasitakoan, ostatua gaiñera abiatu bali-tzaie ere, etziran larriago geratuko, bata besteei begi-ra jarriak, iltzaille ori arpegian ezagutuko zutelako-an.

– Indianoren batek egin ote du ori? –galdetu zio-ten.

– Zoritxarrez, nere susmurrak ala dira. Agian, emen gauden zortzietakoren batek. Litekena da ori.

– Kontuz! Gure saillean ez al dek olakorik izan-go!

– Ori esate bat besterik ez da. Baiña inondik ere indianoa. Bestela, aren etorreraren berri nork ze-kien? Neri ere astindu ederrak emango dizkidate. Ni bainaiz aren aintzindari bezela etorria, emengo mar-txak antolatzeko.

– Lekukorik gabe egindako eriotza ez dek erreza izango garbitzen.

– Saiatuaren paltan ez da geratuko –zion gaz-teak.

– Gu zortzietakoren bat bada, bukatu ziran gure apariak.

– Ez, gizona. Merezia izango dik. Urkatzen ba-dute ere, besteok erru gabe gaituk.

Erdi mozkorrak zeudenak suspertu ziran berri gaizto orrekin; eta, neskatxei eskupeko on bana ema-nez, aldegin zuten andik, tomatea baiño gorriago, puru eder bana errez.

– Zer gertatu baita ere, salaketa gaiztoa egin dek –esan zion Don Kosmek.

– Nik ez det emen bestetan esan. Emaztea ta alaba etortzean egin bearko epaillearen aurrean. Orixe garbitzen duenak nere esker ta zorionik beroenak izango ditu. Negargarria da ori. Iseka gaizto bat andik gatozen indianoentzat.

– Arrapatu bearra zegok. Bestela, gutako beste edozein jo lezakek.

Esku emanez, denak ongi etorria eman zioten, eta beren bidean joan ziran. Gure salataria ere bai, apupillo zegoen ostatura, izkutu ori garbitzeko lagun on bat billatu bear zuela pentsatuz.

IÑAXIO

Antonio zuen galdu zan indianoak izena, len esan degunez. Iñaxio, berriz, salatariak. Illaren alaba bakkarraren senargaia, mutil gazte argia. An jaioa izanagatik, gurasoak euskaldunak zituelako, bera ere gure izkuntza poliki zekiena. Aintzindari etorria. Ondarrabiko berri ez bazekien ere, laxter ikasi zuen. Euskera jakiteak orduan etzuen gutxi baliio.

Maritxu, bere andregaiaren izena. Onen aitagasko maite zuen Iñaxio injenieroa. Bere alabarekin asizanean, zeukan martxaren zuzendari aukeratua. Orregatik biali zuen bere aurretik. Ura etortzerako, txalet utsen bat edo salgai zegoena billatzeko. Zaaressamarra izanagatik, etziola ajolik, bizitzeko moduan bazegoen beñepein; berak nai zuten eran konponduko zutela gero. Nagusia zetorrenean, aren bidera ateratzeko. Gaiñera, diru pixarren bat ekarriko zuela berekin. Noiz, abisatuko ziotela.

Ondarrabira etorri berrian artu zuen Maritxuren eskutitza. Baiña etzion gauza garbirik esaten. Garaiz

idatziko ziola beste bat, andik noiz aterako zan abisu emanez.

Antonoren jaiotetxea Ondarrabian zegoen. Gurasoak bizi ziran. Semearen berririk bai al zuten galdetu zien Iñaxiok. Larritua baizebillen. Auek, arrituta:

– Guk ez dakigu ezertxo ere. Lenago ia illero artzen genduen bere eskutitza. Baiña azkeneko ontan, oraindik ez beiñepein. Idaztezkeroz, orain egin bear zigun. Mugaraiño ertengo giñan orduan.

– Nik badakit egin duela gutxieneko illebete bat.

– Ezbearren bat gertatu ote zaio orduan?

– Orixe jakitera etorri naiz. Zuzen etortzezkeroz, eskutitz arek emen bear zuen. Bere alabak ere garaiz bialiko zidala esan zidan, eta emen ez da agertu. Bere aurretik biali niñuen, martxa moldatu ta bidera ateratzeko. Ni larritzen ari naiz. Illebete ia, eta ura ez dator. Bere berririk ere ez datorkit. Ez bazuen etortzeko asmorik, edo atzeratu, abisatu bear zidaten. Bestela, eroarena egiten ari naiz ni emen. Berak ere badakite ni urduri egongo naizela. Baiona aldera ere maiz egiten ditut nik nere txangoak. Ango geltokira etorriko zala esan baizidaten. Gero ta larriago nago, arek, etortzezkeroz, aspaldian emen bear zuen ta. Salgai dagoen txalet bat billatua, modu onean gaiñera, oraindik ona, ikuspegi bikaiñarekin; ta ura ez dala ageri.

– Ez badezu eskutitzik artzen, atzeratua izango du bere etorrera.

– Bai. Nik ere ori pentsatzen det. Baiña nola ez da iritxi zuena? Egin zuela bai-baidakit.

Zer egin etzekitela geratu ziran, baiña urduri.

Alako batean artu zuen eskutitza. Arrituta geratu zan gure Iñaxio gizarajoa. Doña Isabel, Antonioren emazteak egiña.

Baiña Maritxurenik etzectorren; eta, berak alde zurretik abisatu zionez, idatzi gabe etzan geratuko. Arek aita maite zuen ainbeste maite ta etzuela emen laguntzarik gabe utzi naiko, eroak ere badaki. Beraizik aita artarako bialu zuen aurretik, ari laguntzeko.

Doña Isabelen eskutitz au, Buenos Aires'en 5'ean egiña, baiña 25'ean iritxi. Selloan garbi-garbi ez bazan ageri ere, «5» jartzen zuen. Ogei egun luze andik oneraino etortzen. Litekena zan ori. Urruti zegoen ura. Orduko aurrerapenekin, geiena jota ere, amar.

Alare, Maritxuk ez egitea, orrek bai arritzen zuela bizi. Dudarik gabe, bi eskutitz galdu egin ziran: gurasoei semeak egiña, eta alabak berari. Baiña etzuen oraindik gaizki pentsatu nai.

Doña Isabelek idatziak, luzeena jota ere 20'rako iritxiko zala jartzen zuen. Beraz, Don Antoniok, uste gabeko okerraren bat ez edukitzera, etorria bear zuen. Baiña etzan aren aztarrenik, 25'ean zeuden ta.

Gurasoen etxera joan zan zuzenean berriro, Don Antoniorekin gertatu zana adierazteko. Alare, bost egun besterik ez bazan, etziran geiegi arritu.

– Baiona alde ortan baditugu aideak. Egun batzuetarako baliteké an geratzea.

– Ez naiz ni iritzi ortakoa. Arek badaki eskutitzak egiñak dirala ta ni zai egongo naizela. Ta okerre-na pentsatuko detala ere bai. Ez da olakoa Don Antonio. Badet beste arrazoi bat ere. Maritxu, aren alaba bakarra, nere andregaia da. Arek ez idaztea, neretzat arrigarriena. Bere amak ez du nerekin artu-eman aundirik; eta berak bialu, eta besteak ez.

– Orduan, zer egin bear degu? –galdetu zuten gurasoak.

– Baionako adiskide oietara joan, ea aiek zerbait badakiten. Urduri nago ni. Etorri bazan, andik edo emendik abisua artu bear bainuen.

– Bai. Goazen. Nik lagunduko dizut –esan zion Antonioren anaiak.

Arekin joan zan, bada. An, berriz, oraindik urdu-riago utzi zituzten.

– Bai. Antonio etorria da; 20'an, goiz-goiz tasis artu ta atera zan emendik Ondarrabi aldera. Zuzen joatera, amabietarako an bear zuen.

– Auxe ixtillua! An, berriz, ez da azaldu.

– Nora joan bear zuen, bada, arek? Otelean bazkaldu, gurekin apaldu eta arratsa emen igaro ondoren, Ondarrabira zijoala esan zigun.

– Emen ez dago gauza onik. Guk okerrera pentsatzen degu –zioten larrituak anaiak eta Iñaxiok, zer erabaki artu etzekitela.

– Maritxuren eskutitza ez artzea oso beldurgarria da neretzat.

– Ango salaketaren baten bitartez, emengoren batek galdu duela uste al dezute? –zioten Baionakoak.

– Oraindik ez dakigu ezer. Beste norabait joana izan liteke, nik ez det ori sinisten baiña. Baitua ere bai. Susmur guziak sartu litezke emen. Antoniok oso maitea nau ni. Emazteak ez. Etzitzai ondo iruditzen ni bere alabarekin ibiltzea. Nik ezin nezake itzik esan ez aurka ta ez alde. Ia ez det ezaguna ere. Baiña aitak etxeko semetzat artua nauka. Bere interes guzien zuzendari jarri niñuen. Ori ezin zuen eraman

amak. Aspaldian etziran ondo etortzen noski senar-emazteak. Baiña ori, etxe askotan gertatzen dana da. Denetan batera datozen fameli gutxi arkituko dituzu. Orregatik, bada, ezin gentzake etxekoan susmur txarrik egin. Galdu badute, beste arrazoren bat dago tartean.

– Eta zergatik amaren nai ez ori?

– Berak jakingo du. Ez ni baiño maillaz goragoa dalako. Badet nere karrera. Aiek bezin aberatsa naiz. Orko zuzendaritza artzeko, nere anai gazteagorenen esku utzi nuen gurasoen martxa. Maritxu, gaiñera, ez da orren alaba. Au bigarren emaztea du.

– Orduan, zertan sarturik bai al zeukan, ez bada bere ama? –galdetu zuen anaiak.

– Bai, noski. Alabatzat artuta, Antoniorekin ezkondu zan ezker, bere eskubideak izango ditu. Baiña senarraren aurka asteko ez dakit. Alare, ez naiz bein ere oien arazoetan naastu. Nik nerea egin ta aurrera. Badakit tarte ortan norbait bazebilela. Orregatik, aitak bere interes partea jarri zion emazteari; ta beste gaiñerakoak, bada ez bada, alabari utziak dauzka. Baiña zuk esan dezuna: andik abisatu ta emengoren batek galduko ote zuen? Ori ikaragarria izango litzake. Ez det ortan pentsatu nai. Oroitze utsak ere nere buruko illeak txutik jartzen dizkit. Ortarako, Don Antoniori baiño lenago neri erasoko zidaten. Alare, lau egun auetan ura Ondarrabian ez azaldua beldurgarria zait. Dirua ere poliki ekartzekoa omen zuen, alabak esan zidanez, baiña piztitan.

– Ezin giñezke, bada, geiagoren berri jakin gabe, aren billa asi, beste norabait joana ere izan liteke ta –zioten Baionakoak.

– Eskerrik asko. Orain badakigu etorria dala. Mugan galdetu bear degu.

– Or ezer ere jakingo al dute?

– Ortik pasa bada, bai. Arazo au oso serioa jarri zaigu. Arek bazekien sortetxearen berri. Bere gura-soak an bizi ziralara ere bai. Ta zuzen ara joango zan.

Mugan ere galdetu zuten, bada: ea Don Antonio Irastortza izeneko indiano bat igaro zan, 20'aren ego-arte alde ortara, Endaiatik Ondarrabi aldera.

Ango agiriak ikusi ondoren, baietz erantzun zuten. Bi maletarekin; baiña batean aberastasun aundia zekarrela, ta naiko lanak ibilli zituela igarotzen, ia lapurtzat jota, baitzeko zorian.

– Eta zergatik zatozte galdetzerara?

– Ni bere anaia naiz, eta ez da an azaldu. Au, berriz, bere interesen zuzendaria, ta alaba bakararren senargaia, amerikarra. Bakarrik joan al zan?

– Emendik bai. Ta ez da geroztik azaldu? Arri-tzekoa, kilometro batzuk besterik ez daude ta. Salatu egin bear al dezute?

– Ez oraindik, geiago jakin gabe. Emaztea ta alaba laxter badatoz, etortzean aiek erabakiko dute ori.

– Diru asko ibiltzeak ekartzen dituen okerrak.

– Diruaren gorabeeragatik illa ote da gero? Eskerrik asko –esan ta atera ziran andik.

Baiña oso serio biak. Gero ta itxusiagoa ari ziztaien jartzen arazo ori.

– Emen ez dago gauza onik. Ikusiko degu, aiek datozenean, zer erabakitzen duten.

Orduan salatu zuen Iñaxiok, apari artan, amerikanoen artean.

Antonioren anaia agurtu ta txuxenean korreora joan zan. Jakin nai zuen iritxi ote ziran eskutitzak edo bidean galdu ziran. Doña Isabelena egiztatua etorri zala bazekien, eta Maritxurena ere ala etorriko zala. Aurrea artu zionak, bere izen-abizenak jarri bearko zituen.

Ara joan ta ango zaindari zegoenari ala agertu zion:

– Illaren 5'ean idatzi ta 25'ean iritxi zait. Baiña ez det nik artu. Ostatuan nagoen gelara ate azpitik sartu didate. Bestea, berriz, ez da nere eskuetara etorri, ta egiztatuak dira. Jakin nai nuke zer gertatzen dan emen. Bestela, ni salatzer a noa. Norbaitek aurrea artu dit, eta nere izena ebatsi. Ta uste det, oiek etorri ez diralako, eriotz negargarriren bat ez ote dan azalduko. Il ontako gorabeera da guzia.

– Salatu ezik, bazterrak naastu ere egingo ditu, ori guzia egia bada.

– Ez naiz gezurretan ari, ta jakin nai nuke nere izenean artu dituzten edo ez.

Ikusi ondoren il artan artutako eskutitzen zerrenda, an arkitu zituen zaindariak. Egiztatuak baiziran.

– Bai. Biak 15'ean iritxi ziran. Bat, Maritxu Irastortzak egiña; ta bestea, Isabel Sierrak. Eta izenpetuak.

– Nola liteke ori? Nik alabarena ez det artu. Amarena, berriz, amar egun beranduago. Eta ez dakit nork eraman zidan. Izenpetuak egongo dira noski.

– Eramatezkeroz, nai ta nai ezkoa.

– Noren izenarekin?

– Inazio Segurola Alzuyet.

– Ori ni naiz, eta gaur arte ez nauzute ni emen ikusi. Karnetarik bai al zekarren?

– Bestela, etzuen eramango. Eskutitz egiztatuak garrantzi aundikoak dira. Ez dago edozer moduz ematerik. Egitazko karneta edo ez, ez dakit. Baiña bear bezela egiña dago.

Orduan, Iñaxiok erakutsi zion berea.

– Au al zan?

– Barkatu. Ezta antzik ere.

– Iruzurtu zaituzte, eta ez da zailla. Emendik etorriko diran ondorenak bai beldurtzen nautela.

– Ori ez da, bada, nere egitekoa ta...

– Alare, eskerrik asko. Zuk ardura guzia jarri dezu. Ez daukat zuretzat zer esanik.

Eta bazter guziak aizkatzeko asmoan joan zan andik.

BERRIRO AZTIA

Kuttun bat bezela gordea zeukan Joxepak, billatu zuen eskutitz ura. Amaika buruauste ematen zion, aren esan naia ezin ulerturik. Zenbat eta geiago pentsatu, orduan da illunago zegoen beretzat korapillo ori askatzea.

– Zergatik, nori ta nondik egindako eskutitza ote da?

Maiz etortzen zitzaion galdera ori burura; eta, bere iritzi apalean, garrantzi aundikoa zala. Oraindik zer edo zer azalduko zan itxaropenik etzuen galdu.

– Egun gutxiren barru, ikaragarria entzun bear degu Ondarrabian.

Bere buruarekin izketan eta lanari jarraitzen ziola ariko zan.

Alako txango batean, ordea, indianoen apari artan norbaitek olakoren bat jalki zuela entzun zuen. Aztia izaki, bidean topatu zuen eta aparian izandako bati ala galdetu zion:

– Oraindik ixilik dago, baiña run-run gaizto bat bai omen dabil, iskanbilla gaiztoak sortuko dituen:

gertakari negargarriren bat izan dala Irundik Ondarrabira bitarte ortan.

Arek Joxeparekin konfiantza aundia zuen. Onen jakin naiak, berriz, etzuen neurrik. Besteak, gazteak esan zuenari garrantzi aundirik etzion eman, eta etzuen ulertu Joxeparen galdera.

– Zergatik diozu ori?

– Amerikar auetan badakit alako zabaltzea nai ez duten zerbait badabilhela. Zuetakoren bat badala, Ameriketatik datorrela aztarrenik utzi gabe galduta.

– Bai. Ortan arrazoi dezu. Gure apartan artan, etorri berri dan gazte batek ala zabaltu zuen. Badaki ziur mugatik onuntz igarota dala, oraintxe amar bat egun edo. Etxera, berriz, ez da azaltu oraindik beinpein.

Joxepak berekiko ala zion: «Ea nik daukadan eskutitz ori dan denen giltza».

– Egundo etortzekotan, badu ordua, sei kilometrorik ez dira egongo ta.

– Nik, nere aitonean, bi orduan egingo nuke ori. Baiña bera beste norabait joatea ere izan liteke.

– Bai, bai. Oraindik ez da etsitzekoa. Baiña andik orrenbeste urtean oneraino etorrita, gurasoetara baino len nora joan ote liteke?

– Arrazoi orrek badu bere indarra. Aundia gainera.

– Ai, dirua, dirua! Orregatik izango da. Bai, noski.

– Oraindik ezer ez dakigu. Baiña zalantza gaiztoa dago sartua ezurretaraio, ez ote zaigun bizirik azalduko. Ez da dirua bakarra, ordea. Gonak ere ez dakit ez ote dabilzan tarte ortan naastuak.

– Oraindik okerrago. Mundu ontako itxilluen erdiak oiek sortzen dituzte: dirua ta gonak. Eta bere izenik bai al dakizu?

– Bai, bai. Antonio Irastortza. Olako baserrikoa.

– Orduan, nere auzoa.

– Ori. Bost minutuko biderik ez, zuenetik ara.

– Ezagun askoa nuen nik ori. Jaiotzen ere nik lagundu nion. Bai benetan gazte ezin egona.

– Arrunt aberastua omen zetorren.

– Ortan dago arraiskua. Ni emen belar billa nabillera, ez det uste inor ni galtzera etorriko danik. Dirurik ez baidaukat. Len esan dizudanez, gazte-gaztetik ezaguna nuen nik ori, auzoak giñan ezker. Noiznai gure etxean zebillen, nere seme-alabekin jolasean. Ortxe zortzi bat urte zituela, autsitako botilla ipurdi batekin zauri sakon bat egin zuen, eta nik sendatu nion. Baiña olakoetan badet nere oitura, eta egin nion nere aztitza ere. Aurraren eskuak azpikoz gainera jarrita, begira-begira egon nintzaion. Bere arrastoak garbi-garbiak zeuden. Gaztea izaki. Ez nuen luparen bearrik izan. Ez baidet egundo ibiltzen, itxurak egiten dituzten oiek bezela. Orrela esan nion bere amari:

– Aur onek suerte ona izango du bere bizi erdira bitarte ortan. Ia batere nekerik gabe aberastuko da. Baiña, erdi aldera, norbaitek eriotza emanta kenduko ditzio denak.

Lenengo serio jarri zan ama. Baiña gero par egin zuen. Aztikeritan etzuela sinisten alegia.

– Gazterik saltzen didazu eriotzera gazte inozente au.

– Ez, ama. Nik ez diot inori olakorik opa. Baiña

ori letzen det bere eskuko arraietan. Garbi-garbi gainera.

– Nik ez diot or «M» bat besterik ikusten. Orrek neretzat ez du ezer ere esan nai. Arritzekoa, jartzen ez duena nola irakurtzen dezuten.

– Txeetasun guziei begiratu ezkeror, bai: nere iritzi apalean, ori dago idatzia.

– Aberasteko, ai zer bidea aukeratuko duen: arrantzale. Aurki aitak, ikasteko ere betik eman gabe, itxasora eramango du, ta orra gure indianoa, egunean egunekoa ezin irabazirik, bere gurasoak bezela. Esan izan bazendu uste gabekoren batean itxasoak irentsiko zuela, ta nonbait or geratuko zala, sinisgarriagoa izango zan, neretzat beiñepein.

– Zaude ixtanpat. Au buru argiko gaztea dator. Onek aitaren bizimoduari muzin egingo dio. Au ez da biziko xoxoak bezela. Oiek beti berdin egiten dute kabia, ezeren aurrerapenik gabe. Aurten umeak galdu bazaizkio ere, ez da zergatik pentsatzen jarriko. Urrengorako ez du aldaketarik egingo. Onek Ameriketara alde ortara joko du, gurasoak itxas lanean utzita.

– Zorigaiztokoa izango da orduan. Zuk beiñepein, Joxepa, etzaiozula olakorik buruan sartu. Bestela ere, auek zuzen eramaten naiko lanak izango ditut.

– Ez olakorik. Nik ere badet anai bat joana. Aalegiñak egin nituen geldi erazten. Aldizka idazten digu. Ez dabil gaizki, baiña urrun aietan.

– Ara dijoazenak, bakar batzuk ez besteak gaizki dabilta, entzun detanez.

– Gaizki, ez dakit zergatik. Emengo indianorik

geienak ezagutzen ditut. Ez dira noski denak aberastuak etorri. An bertan ere asko geratuko ziran. Baiña batzuk, ekarri duten diruaren interesekin bapo bizi diranak badira emen. Or dezu olako.

– Naiago nuke oien kontzientzia aztertzeke argia baneuka, zuk nere semearen eskuak bezela.

– Bai. Ortan arrazoi dezu. Ikaragarriak ikusiko genituzke.

– Gaiñera, itxurak egiten dituztela uste det. Oiek, azaltzen diran ainbestean bai ote dabilta gero? Ez dakigu denaren berri.

– Nik igerri bezela joan zan Ameriketara, emezortzi bat urte zituela. Berriro, ara joan baiño len, emen nuen galdezka: Ameriketa alde ortara zi-joala ta ea arako txangoa ondo egingo zuen. Bere eskuak ikusi ondoren, txikitan irakurritakoa berbera zegoen idatzia. Baietz, baietz erantzun nion. Itxas giro ona ta txango atsegiña egingo zuela. Aberastuko zala gaiñera. Baiña bere ondoren txarra zergatik aipatu bear nion? Ametsetan beste mundu alde ortara zijoan gazte baten biotza zertarako illundu, azken tristeia izango zuela agertuz? Denborak emango zidan arrazoi. Gure gaztea, udaraberrian txoria baiño alaiago joan zan beste mundu berri alde ortara. An aberastu zala esan ez didazu?

– Bai, Joxepa. Ori badakit.

– Eta orain galdu dala?

– Illaren 20'an igaro omen zan mugatik, eta emen ez da aren aztarrenik. Bi orduko biderik ez dago. Amar egun bitarte ortan, luze egiten zait.

– Arek zuzenean gurasoetara bildu bear zuen, nere iritzi apalean.

– Nik ala egingo nuke, ta arek ere berdin noski. Laxter azalduko da, bazterren batean illa. Orduan izango dira komeriak. Erro-errotik astinduko dute Ondarrabia. Joxepa, aolku bat emango nizuke.

– Zer da, bada, ori?

– Zuk esan dituzunak zenbaiten belarrietara irixten badira, salatuko zaituzte. Olako jendea dabil.

– Eskerrik asko. Nik il erazi detala alegia?

– Sorgintzat artuko zaituzte, ta oiek indar aundia daukate.

– Garai bateko itxasoak arrotu eta ontziak ondoratu; birao gaiztoren bat esan ondoren, il nai duenaren izena aipatuz; elizako bildumenaren argizaria eskubira dagoena ezkerrera biurtuz iltzen zituzten oiek bezelakoa naizela uste al dezu? A, ja-jai! –algara gozoa egin zuen Joxepak–. Zuk sinisten al dezu sorginkeritan? Len ez dakit, baiña orain ez da sorgiñik.

Agurtu zuen amerikar ura; ta, belar sendagaiak bilduz, aurrera joan zan gure Joxepa, berekiko ziola: «Nik billatu nuen gutun arek ez ote dauka gero bere zer ikusia?». .

AMA-ALABAK

Iñaxiok, Maritxuk egindako eskutitz txiki bat artu zuen sei egunen barruan. Baiña karteroa jakiñaren gaiñean jarritz, eskura eman zion. Amarenak, berriz, ogei egun igaro zituen. Zergatik? Bazekien ondo gure gazteak.

Olako egunetarako etorriko zirala ama-alabak.

Goibeldu zitzaion biotza Iñaxiori. Txoria baiño alaiago azalduko ziran, ta berri kazkar ori eman bear.

Ondarrabian tasis bat artuta, esandako ordurako egazkiñen geltokian zegoen.

Aiek etzekiten oraindik gertatu zanaren berri, ta lasai ta zoriontsu atera ziran geltokian, txango eder bat egin zutelako ta Ondarrabi inguru artako edertasuna ikusiz. Ango muga gabeko zabalune aren antzik etzeukan onek, dena mendi ta baserri txuriz josia. Zoragarria iruditu zitzaien. Baita erria bera ere, ondartza ta guzi. Arrazoi zuen aitak, Buenos Aires utzi ta Ondarrabira etortzeko. Beste mundu batean jexi balira bezela arkitzen ziran, batez ere

Maritxu. Oraindik gaztea, ta aurrera begiratzen zuen.

Iñaxiok, eskua emanez agurtu zituen. Baiña benetan serio agurtu zitzaien. Amak etzuen ondo ezagutzen ere; ta, zear begiratu bat egiñik, ala esan zion:

– Goibel ikusten zaitut. Ez al zaude ondo-edo?

Maritxuk, berriz, musu batekin agurtu zuen.

– Bai. Osasunez ondo nago, Jaunari eskerrak. Zuek biak emen batera ikusiak poza ematen dit, etziñudan ezagutzen eta. Baiña, zoritxarrez, emengo arazoak ez dijoaz nik nai bezela. Orregatik arkitu nauzute serio.

Biak batera oartu ziran Antonio etzetorkiela; ta, arrituta, ala galdetu zion Maritxuk urduri:

– Zer du aitak, onera ez etortzeko? Esaiguzu zer gertatzen dan.

– Sar gaitezen lenengo berebillan; eta, ara joatean, kontatuko dizutet dena.

Maritxu ezin zan ixilik egon. Aita bidera ez ateratzeak arritzen baizuen.

– Aita nola ez da etorri? Ura danarekin, ezin litekena da –esan zion berriro.

– Mingaiñetik kendu didan galdera ori, Maritxu –erantzun zion amak.

– Ortan arrazoi dezute. Ori da nere naigabea ere. Ortatik datorkit tristura au. Neri oraintxe pasa zait. Baiña zuei denaren berri eman bearrak, malkoak dakarzkit begietara. Baiña ara joatean eta gu bakarrrik gelditzean, itzegingo degu.

– Ondo pentsatua –erantzun zioten biak, txo-

perrak ezer jakiterik etzuela naiko ta, baiña egia ikasteko beldurrak.

Bidean pastelak eta ardo gozoak erosi zituzten; eta, txuxenean, aukeratutako txalet artara eraman zituen. Ordaindu ta joan zan bereala txoperra. Bertako neskamea zai zeukaten.

Ama-alabak ondo begiratu zioten zer moduzko etxea zegoen, eta konten geratu ziran. Ordurako ordaindua egongo zala usteko zuten.

– Zerbait gure begietarako antolatu bearra badauka, baiña ez dago etxe txarra. Bai ikuspegi zoragarriak daudela.

Sukaldera sartu ziran. Neskamea, mai gaiñean puskak jarri zituenean, joan zan andik. Orduan galdetu zioten biak, iñon Antoniorik azaltzen etzalako urduri xamar:

– Auek denak orrela dirala, non degu aita?

Malkoak asi zitzaizkion Iñaxiori, Maritxuren galdera ori entzun zueneko. Bai-baizekien zer naigabe eman bear zion.

– Ori da nere tristura eta goibeltasuna. Aren aztarrenik ere ez daukat.

– Zerbait gertatu al zaio?

– Bai, noski. Ta okerrena pentsatu bearra daukagu. Orregatik ez nuen txoperraren aurrean itzein nai. Don Antoniorik ez da azaldu emen.

– Ez dala agertu? Non sartu da, bada?

– Ori baneki, ez nuke segundo bat ere galduko. Baiña len ere esan dizutet txarrena pentsatu bearko degula: norbaitek ez ote dion azio txarren bat egin.

– Orduan, dena utzi ta banoa biar bertan Ameri-

ketara –zion, Madalen bat egiña, Maritxuk. Izan ere, ainbeste maite al zuen arek aita.

Doña Isabeli ere gerezi anpolaiak aiñako mal-koak asi zitzaizkion, argizarizko masailla aiek beera.

Iñaxiok ere egin zuen negar, aiek ala ikusita, baiña zotin gutxiagorekin. Bai benetan naigabez, ordea.

– Nai badezute, joan biak. Ni ez, au dena garbitu arte.

– Zuk bazenekien etorriko zala –erantzun zion, zerbait ere lasaitu zanean, amak.

– Orrekin zer esan nai zenduke, Doña Isabel? Noizbait agertuko zala banekien. Baiña noiz ez. Utzidazute neri dena kontatu arte. Orduan galdetu nai dezuten guzia. Nik dakidan aiñean erantzungo dizutet, bear diran erabakiak artzeko. Nik eskutitz bat artu nuen, amarena, 5'ean andik bialia; ta neri 25'ean iritxi zitzaidan, 20'an etorriko zala abisua emanaz. Nik nerekiko ala nion: «Don Antoniok bere gurasoei etxera egiña iritxiko uan, ta agian an egongo dek bere sortetxean». Arrituta geratu nintzan aiek ere etzutela artu esan zidatenean:

– Guk ez dakigu etortzekoa danik ere. Baiña bost egun besterik ez bada, ez gera geiegi larritzen. Baionan baditugu garai bateko adiskideak, eta egun batzuk pasatzeko an geratu ziteken.

Ni ez nintzan iritzi ortakoa. Ezagutzen bainuen ondo. Ta bere gurasoak bizi baiditu oraindik.

Joan giñan txuxenean Baionara. Baietz erantzun ziguten. An izana zala, baiña 20'ko goizean Ondarra-bira zijoala ta galdu zala andik. Mugara azaldu giñan, ta an ere baietza eman ziguten: 20'ko goizean, puska

asko zeramalako, naiko lanekin utzi ziotela pasatzen. Or galtzen ditugu bere aztarrenak. Nik ez dakit ezer-txo ere geiago.

– Nik abisatu nizun –zion berriro, malkotsu, Doña Isabelek.

– Len ere esan dizut 25'ean artu nuela nik. Jainkoak bakarrak daki bere anaiak eta nik zer buruauste dabilzkgun geroztik. 15'etik asi ta zure eskutitza artu bitarte, nik ez nuen egunik galdu geltoki artara joan gabe. Nik ez dakit non utsegingo nuen ura. Baiña ez genduen elkar billatu.

– Ezin liteke ori: ogei egun andik onera.

– Nere eskuetara 25'ean iritxi zan.

– Eta zalantzan al zaude ez nuela ala egiña izango?

– Doña Isabel, oso artu-eman gutxi izan degu elkarrekin. Nik etzaitut zu ondo ezagutzen. Zuk ere ez ni. Ez gaitezen bata bestearen aurka ari. Irurok bat eginta ere, prakak bete lan izango degu au garbitzen. Nik ziur badakit, aitortzen dizut, 15'ean Ondarrabiko korreoan zegoela. Baiña nik 25'ean artu nuen. Gelako ate azpitik sartu zidaten. Nork ez dakit.

– Eta nererik artu al zenduen? –galdetu zion Maritxuk, negarrari ezin eutsirik–. Udaberrian txoria baiño alaiago etorri naiz, eta orain au?

– Zureak bi artu nituen. Bat, aita noiz zetorren abisatuko zenidala esanez. Orain bestea, noiz zatozen jakin erazteko egin didazuna. Ez da besterik nere eskuetara iritxi. Norbaitek izango du.

– Arritzekoa orratik ori, Iñaxio.

– Ni egitan ari naiz; ta, zalantzarik gabe, baita zu

ere. Baiña nik bakarra artu det: amarena; ta, zoritarrez, ura berandu.

– Ez ziñugun alperrik biali! –zion Doña Isabelek, zerbait lasaitua.

– Ni ez niñuzun zuk igorri. Aitak, eta ura zan nere benetako babes. Nere burua aiñaxe maite det. Ez dakit tarte ortan zer gertatu dan. Badago ezkutu gaiztoren bat. Illebate baten buruan bati egindako bi karta ez dira orren aixa galtzen. Gaiñera, bat egiztatua beiñepein.

– Bi karta? Norenak? –Doña Isabelek.

– Bat, Maritxurena. Bestea, Don Antoniok gurasoei egiña. Aiek ere ez baidute artu. Maritxu ta nik lagundu genion aitari korreora. Ez da iritxi. Aita bakarrik uzteko moduak egin dituen nor ote da? Tarte ortan deabruren bat bada. Edozer pentsatzeko arrazoiak badauzkat. Biderik ezin billatu, ordea. Iñork ez badu andik abisatu, nola ikasi ditu, bada, nere aurretik eskutitz oiek artu zituenak gure fameli barrungo txeeetasunak? Emen gutxieneko bi badaude elkartuak. Lapur orrek ez ditu erreztasun oiek guziak bere buruz iritxi. Nere lepoa ezik, zurea ere ebaki lezake, Doña Isabel.

– Orduan nere susmurra egiten dezu?

– Ez, emakume. Ez nijoa ortik. Eskutitzak gorde ta berandu neri eman didanak, agian zu naastuko zaitula. Nere etsaia ezik, zurea ere badala ori da nik esan nai nuena. Maritxu berex utzi bearra dago. Nik ez daukat orren susmurrik. Zuk ere ez noski. Nik eduki nezake zurea; zuek ere bai nerea. Andik zirikatua dala zailla da agertzen, baiña ez da eziña. Orduan erru guziak neri botako dizkidate, eta lekuorik ez alde. Ez aurka ere, ordea. Alperrik ari gera,

geiago jakin gabe, gargaillari muturra billatzen, bo-robilla da ta. Orain gure egiteko bakarra au da: zer egin bear degun erabakia artu.

– Nere iritzia lenbailen salatzea da. Ez dakigu oraindik bizi dan ere –zion negarrez Maritxuk.

– Oso txuxen erabaki dezu. Eta zuk, Doña Isabel?

– Alabaren iritzi berekoa naiz ni ere.

– Ez badezute beiñepein nere aurka zerbait, irurok joango gera. Nik lagunduko dizutet. Emengo berri oraindik gutxi dakit, baiña konponduko gera.

– Ez al da zuk egitea aski? –Doña Isabelek.

– Bai; zuen egitekoa da, ordea. Neretzat ez da ezer oraindik: nagusia nuela.

– Goazen, ama, bi bere aldeenekoak gu geran ezkerro.

– Bai, Doña Isabel, Ondarrabi zerbait ezagutuz. Antziñetako erri xaarra da; ta batez ere ondartzar eder bat dauka. Goizero bustialdi bat artzen det nik an.

Irurak batera joatea erabaki zuten. Ama-alabak txaletean geratu ziran, ango martxa jartzeko. Bitartean, Iñaxio bere zer egiñetara errira jetxi zan. Amak alabari ala esan zion, Iñaxio joan zanean:

– Usai txarra artzen zionat nik oni. Mutil orren lana den iñondik ere. Angoak eta emengoak naastu naiko dizkin. Baiña «izan litekena» orrek ez din indarrik. Berak bakarrik zekiñan Antonioren berri. Diru puska bat eraman din beste olako bat edo birekin. Sarraski ederra egingo zien ire interesei.

– Nik oraindik ezin nezake bere susmurrik egin.

Alare zalantzan geratu naiz. Kostako zaio bere burua garbitzen.

– Beste neskak bategi iruzurtuko ziran; ta, len esan detana, mokadu ederraren jabe egin den beinpein.

Maritxuren maitasuna benetan zalantzan geratu zan.

AUZITEGIAN

Itzegin bezela, urrengo goizean, bi gazteak –ama etzan ausartu; oraindik berriegia zuen zarrazta, ta naiago zuela atsedeen pixka bat artu– jetxi ziran, eta txuxenean auzitegira joan, an Doña Isabelen eta Maritxuren izenean salaketa triste ura egitera.

Epaillea idazkariarekin zegoen, eta bere baime-narekin sartu ziran. Agurrak egin ondoren, salaketa bat egitera zetozela esan zioten.

- Zuek etzerate erri ontakoak –esan zien.
- Ez. Gu Ameriketatik etorri berriak gera.
- Eta zer gertatzen zaizute?

– Amabi egun badira –Iñaxiok artu zuen itza-onen aita Ameriketatik etorri zala. Orain au, aren alaba, bere amarekin azaldu da, ta emen ez da ageri.

- Eta ziur badakizute oneraino etorri zala?

– Bai, jauna. Lengo illaren 20'an igaro zan mugatik. Ori badakigu. Or galtzen zaizkigu aztarrenak. Oraindik beraren gurasoak bizi dira. Aiek ere ez dakite ezer. Andrea ta alaba gertakari onekin zapalduak geratu dira; eta, auek emengo berri ez dakitela-

ko, ni bitartekotza egitera nator. Emaztea erori xamarra dago, eta etzuen etorri nai.

– Amabi egun auetan mugatik igaro ta oraindik ez azaltzea, txarrena pentsatzea ere bada, lau kilometro besterik ez da egongo ta.

– Orregatik, zu jakiñaren gaiñean jartzera gatoz, eguneroko ta irratietan zabaltzeko. Bizi bada ere, konturatu dedilla bereak naigabetan dauzkala.

– Bai. Serioa da ori. Aalegiñak egingo ditugu illa edo bizia billatzen. Nola da bere izena?

– Antonio Irastortza.

– Au olako baserrikoa noski.

– Bai, jauna. Oraindik bizi ditu gurasoak.

– Ondarrabiarra, beraz.

– Oraintxe ogei ta amar urte joan zala emendik.

– Eta bere emaztearen izena?

– Doña Isabel Sierra. Au amerikarra.

– Diru asko al zekarren?

– Askoko-asko ez bada ere, bai poliki. Geiena, pixi gauza.

– Aal degun zabalkunderik aundiena egingo degu. Baiña illa edo bizia azaldu arte, ez daukagu ezertan asterik. Bai; len ere esan dizutet: orrenbeste egun mugatik igaro ta oraindik ez azaltzea kezagarria da, batez ere dirua bazekarren. Ez dezute iñoren susmurririk egiten?

– Bizi bada ere ez dakigu, ta ezin gentzake oraindik iñor izendatu. Illa bada, berriz, angoren batek zirikatu ta emengoak bukatu lana.

– Etxekoekin ondo al zetorren?

– Bai, bai. Ez det uste ura iñora aldegiña danik, edo bere bizia galdu duenik ain gutxi. Baiña zalantza gaiztoa daukat fameliko lana ez ote dan izango.

– Zergatik?

Orduan Iñaxiok txeetasun guziekin kontatu zion bera zertara etorria zan eta geroztik zer gertatu zitzaion.

– Beste norbaitek aurea artu dizula alegia.

– Bai, jauna. Nere izenean omen zeukan karreta. Korreokoak dena eskatu zion, izenpetu baiño len. Baiña etziola begiratu aundirik egin eta ez lukela ezagutuko. Beraz, gertakari au oso barrutsua da.

Epaillea zalantzan geratu zan bietako nor ote zan gezurrezkoa. Bai besteak antzeman ere. Baiña ixilik geratu ziran.

– Beraz, Antonio Irastortza. Sendi ori oso ezaguna det nik. Len esan dizutedana: billatu arte ez dagoela ezertan asterik. Illa arkitzen badute, berriz, Donostikoaren esku geratuko da. Ondarrabia ango auzo barrutia baita.

Ala, egin zuten beren salaketa. Lan ori bukatu zutenean, Ondarrabi xaarrari ikustaldi bat ematea pentsatu zuten.

Etorkiñen lenengo oitura dan bezela, ondo eziak badira beiñepein, erriko etxe bikain ta oroigarriak aztertzea izaten da; ta aietako aurrenetakoa eliza, sinismendunak izan edo ez. Ondarrabikoa aipagarrienetakotzat artua daukate; *monumento nacional* alegia.

Gure gazteak oso mundu gutxi ikusiak ziran, eta nork erakutsirik etzeukaten. Olako eliza baten edertasunak ezagutzeko ezjakin arruntak. Alare, zuzene-

an ara sartu ziran. Aldarerik aldare dena aztertu zuten.

Aldare nagusian Ama Birjiñaren irudia zegoen, bere besoan Aurra, sagar bat eskuan zeukala. *Nuestra Señora del Manzano* esaten diote. Ortan ikusten degu orduko aundizkiak, baita Elizakoak ere, erdera zaleak zirala. Badirudi gure izkuntzak lotsatu egiten gaituela, ta arrotzak arrotu. Nik Sagarreko Ama deituko nioke.

Izen aundiko eliza zala norbaitek esan zien. Etxea beiñepein galanta da. Baiña aiek, etorkiñak izan arren, etzeuden ortara oituak, biotza diruan jarria zeukaten ta.

Andik atera ta itxas bazterrera joan ziran. Ura atsegiñagoa iruditu zitzaien. Kaira sartuta, ango arrantzaleen iskanbillak arritzen zituen. Emakumeak sal-erosketa tratuan arrapatu baizituzten. Berak etzuten egundo alakorik ikusi, goragoko maillan bizi ziran ta. Garai bateko zalapartak entzun balituzte, zer etzuten esango?

Gizon arrantzale batek ezagutu zituen etzirala angoak. Baiña euskeraz nabaitu zituenean, ala galdetu zien:

– Zuek arrituta zabiltzate emen. Nongoak zera-te?

– Amerikarrak. Biok an jaioak.

– Eta euskaldun garbiak?

– Gurasoak ala ditugu, ta aiekin euskeraz itzegin bear.

– Emen ia itzegitea ere lotsatzen geran garaian, zuek euskaldun.

– Zer ari dira emakume oiek?

– Tratuan, batzuek saldu nai ta besteak erosi, ezin konpondurik.

– Eta zalaparta ortan bata besteari nola ulertzen diote?

– Iskanbil onek arritzen al zaituzte? Orain urte batzuk etorri baziñate, zer esango zenduten? Emakume zabal batzuk oiñuts gorrian, beren saskia arraiz betea buruan burute baten gaiñean artuta, ezerekin eldu gabe, esku batean astaillua, bestea saietsean babestua, oiuka, lau aldeetara zabaltzen ziran, bata besteari aurrea ezin arturik. Elkarrekin ondo konpontzen ziran, baiña bakoitzak berea saldu nai. Batek sardiña preskoa, besteak txipiroia. Karrika, baserri, Amute aldeak barrena, lendik erosteko oitura zutenen etxe aurrean txutik jarri ta oiua egingo zuen:

– Maria Luisa!

Au lasterka leiora aterata:

– Zerbait onik bai al dakartzu?

– Nik, beti bezela, dena ona: bokarta, sardiña, legatza, txipiroia... Ikusi utsarekin begiak joango zaizkizu. Ondoren biotza ere bai. Ez dezu gaur preskoagorik arkituko.

– Eta zenbatean daukazu?

– Utsean, emakumea. Au onenbestean saltzearekin, ez det nekearen diña ere ateratzen. Ondatzen uzteak ere, bada...

Maria Luisa jetxiko zan. Batek saldu nai, bestea sakela ustutzeko beldurrak, baiña eztabaida aundi gabe konponduko ziran. Orko xentimo batzuen gorabeeragatik etzuten denborarik galdu nai. Erosi, or-

daindu ta joango zan arrai saltzaillea eskerrak eman ez aurrera, oiuka:

– Sardiña bizi-bizia! Txipiroia!

Maria Luisa ere bai etxe barrura, artu zuenak ainbeste balio zuela pentsatuz. Etzan, ez, orduko arrantzaleen bizitza oso erreza. Gaur egunean ez da olakorik. Aurrerapenak dena moztu du ori. Atsegiña dezaizutela, bada, emengo egonaldia.

Arek etzekien asko bi gazte gizarajo aiek nolako buruaustek zebilzkiten.

Ondartza alde artara ere joan ziran. Mutillak ezagutzen zuen, goizero murgilduz bere bustialdia artzen oitua baizegoen. Uts-utsa ta pakean, uraren joan-etorriaren otsa besterik etzan nabaitzen. Uraxe atsegiñena ordura arte iruditu zitzaion Maritxuri.

– Murgil bat egin ta bustitzeko, ai zer garai ta leku egokia genduken guk orain, zer jantzirik ekarriko bagendu –zion Maritxuk.

– Gaurkoz utzi zaiogun. Onerako emakumeentzat jantzi paltarik ez da izango Ondarrabian. Goize-ro etortzen naiz ni onera, denborak eta eguraldiak laguntzen badidate. Bear dezun soiñeko ori erosi ta biartik asiko gera.

– Obe izango degu. Ango ondartzak baiño gozagoa dirudi onek.

– Bai, noski. Beti norbait izaten da, gazte edo zaar. Alare, ez dezu leku paltarik izango emen.

– Amaika bustialdi artu bearrak dauzkagu, arazo au bukatzerako.

– Ala uste al dezu?

– Nere iritzian bai. Ondo pentsatuta egindako lana da ori.

– Ikusiko dezu, bein illa azaltzen danean, nola bereala argituko dan.

– Illa dalakoan zaude orduan zu?

– Bai, zoritxarrez. Bestela, norbaitek baitua. Ondo asko ezagutzen nuen nik zure aita. Itzekoa ta erlejua bezin zuzena zan ura. Orain goazen Jaizkibel aldera, ibiltzeko gogorik badaukazu beñepein, zure lengusu batek orko ezkutuak erakutsi dizkit eta.

– Nere lengusuak? Oietakorik ez det ezagutzen inor.

– Zure aitaren anaiaren semea. Guadalupetik bererakoan sartuko gera, oraindik oien bearrean arkitu ginezke ta.

Ondartza utzita, Ondarrabi xaarrean barrena, bixi-bixi, itxas-argi aldera artu zuten, eta andik begira jarri ziran.

– Zer diozu, Maritxu? Ikusgarria dala au?

– Zoragarria. Ezkerretara itxaso zabala, bere betiko eraginēan. Eskubitara, berriz, Ondarrabia, bere eliza ta arresi zaar oiek gaillentzen zaizkiola; eta ibai zabal bat ere bai, begien bista galtzeraiño. Inguru guzia, berriz, baserri txuri ta zugaitzez betea. Nik mundu asko ez det ikusi, baiña au bezin leku atsegin ta ederrik gutxi izango dira. Nolakoa dan jakiteko, ikusi egin bear. Ez dago mingaiñez ondo adierazterik. Enda zaar ta langillea, itxas bazter ta mendi auetan bizi dana. Gurea ere emengoa da.

Andik urruti xamar zegoen; baiña aldapak gora Jaizkibel gaiñera igo ziranean, ango ikuspegiarekin zoraturik geratu ziran.

– Aurre ortan dago Errenderi. Eskubitara, Lezo. Aurrerago, iru Pasaia: Antxo, San Pedro ta San

Joan, benetako arrantzale erriak. Aruntzago, Donosti, Gipuzkoako uri burua. Onuntzago, Astigarra-ga. Beste erri batzuk ere ikusten dira urrunago, mendi zokon oietan kokatuak. Ezkerrera, berriz, Irun eta Oiartzun. Atzean, Endaia ta Biarritz, euskaldunak oiek ere. Nere gurasoak orkoak dira.

– Au dena atsegiña da. Baiña nere biotza geiena asetzen dutenak, baserri auk dira. Emen gora gatozela, edozein aldapa, txokon edo bide ukalondo uste gabeen, etxe zuri bat azalduko zaizu, bere teillatu gorrixtarekin, zugaitz batzuen erdian, aurreko orman balkoia, an loreak mota askotakoak, maatsa paretean biurrika zabaldua, txakur bat katean, norbait inguratu orduko zaunkaz asten dana, oilloak atarian, oillarraren kukurrukua, etxe aurrean aur sendo musu gorri batzuk jolasean, sei-zazpi belar meta etxetik urbil, eta denak tximinian gora kea dariotela... Au ikusi ta nabaitu egin bear da. Ez dago itzez agertzerik. Gure lurrian begiak nekatu egiten zaizkigu, bista urrunean galdu egiten baita. Au besterik da.

– Baserri auk erri koxkor bat bezela dira. Fame-li osoa dago or, eta bertako lanetik bizi da. Illunabarraren batean etorriko gera. Ikusgarriak dira orduan baserri auk, tximini guziak kea dariotela. Ipar aize gozo batek artuko ditu aurrean auk, eta mendi ta egi auetan txuxen gora eramango ditu, baserri oieta-ko keak an bildu ta musu bana elkarri emango balio-te bezela. Zoragarria da Euskalerria, bere sakabana-tutako basetxe auekin. Inguru auk denak zure lengusuak erakutsi dizkit. Oraindik geiagotan berrituko degu txango au bera.

– Nai dezunean. Nik ez det atzerarik egingo.

– Onuzkero, bazkaltzeko ordua gaiñean izango

degu ta goazen Guadalupen beera, zure aitaren sortetxera.

– Beste zerbaitek ere arritzen nau ni. Gaurko txango ontan bertan, zenbat baseliz edo kapilla txiki ez ditugu billatu?

– Bai. Oso sinismenduna zan garai batean euskalduna.

– Inguru auetako erriak azitzen ari dira, eta etxe berriak ugari. Gaurko edertasun au laxter galduko du Ondarrabiak. Gizonak, anak sartzen dituen lekuan, urratsak uzten ditu, eta ez beti onak.

Txuxenean baserrira jetxi ziran.

– Aurrean daukagun etxe ortakoa zan zure aita-esan zion mutillak.

– Bai leku paketsua dala au -zion Maritxuk.

– Orain artean beñepein bai. Baiña oni ere erasoko diote.

Aiton aundi bat zetorren atxurra bizkarrean bazkaltzera. Mutilla bereala ezagutu zuen, baiña neska ez. Agurtu ondoren:

– Nor dezu neskatz eder ori?

– Zure illoba Maritxu, Antoniorene alaba.

Ori entzun zutenean, etxeko atean ari baiziran izketan, etxeko denak atera ta ongi etorria eman zioten. Atsegin izan zitzaion ori Maritxuri, baiña aita palta.

– Bai neskatz ederra zaudela! -esan zioten denak-. Zerbait artuko dezute?

– Eskerrik asko. Oraintxe goaz bazkaltzera.

– Maritxu, iskanbil ontan beartzen bazera, zuretzat aiña leku badago etxe ontan eta etorri onera. Emen baiño seguruago etzera inon egongo.

– Luzatzen badu, baliteke. Eta eskerrik asko.

Agurtu ta denak serio geratu ziran, etxekoak eta zijoazenak.

AZTIA USNARI

Alako zarrara egin zion eskutitza billatutako etxe aurrean zebillen Joxepa belar biltzen, eta zakur aundi bat zaunka ta zalapartaka, etxeko barrutiak zaindu nairik. Urbildu zitzaionean, belar sorta zerman eskuarekin keiñu egiñez, ala esan zion irripartsu:

– Ixo, ixo, berritxu ori, adiskide zaarrak gaituk gu biok eta. Ez nabillek lapurretan, eta pakean dabilenari etzaiok olako purrustadarik egiten. Arrotzak, gaiñera, ondo artu bear dituk etxean. Ondarrabiak bazekik, bada, lege orren berri.

Bazirudien zakur arek ulertu ziola. Isatsari eragiñez urbildu ta gonetara usai egiñez, atera zan lekura sartu zan. Joxepak asko maite zuen ura, eder ta jostalaria zalako.

Ango zaunkara oartu ziran beste txaleteko atarian izketan ari ziran irurak; eta Don Kosmek –aulendik ezaguna degu–, iruretako bat ala baizan, morroi bezela zeukan gazteari ala agindu zion:

– Esaiok onera etortzeko. Zirikatu bear diagu

azti ori, par pixka bat egin dezagun. Ea igertzen digun gure etorkizuna.

Belarri onak zeuzkan oraindik Joxepak, eta entzun zuen iseka egiteko asmoan zeramatela. Ala zion berekiko: «Ikusiko diagu nork nori egiten dion».

– Egun on, Joxepa –agurtu zuen gazteak, laxterka etorrita. Ogei ta sei bat urteko mutilla zan.

– Baita zuri ere.

– Zertarako dituzu belar oiek?

– Zauriak sendatzeko.

– Aztia etzera, bada, zu?

– Ori esan al dizu nagusiak? Ortan ere aritzen naiz, bai, eskatzen didatenean. Baiña nere bizibidea ez da ori.

– Ez badatorkizu gaizki, goazen nerekin. Emakume berri orrek ezagutu nai zaitu.

– Bai; banoa. Jende berria ezagutzeak ez digu kalterik egingo.

Bitarte ortan, Guadalupetik beera, saillera etorri ziran Iñaxio ta Maritxu.

Gaztearekin batean iritxi zanean, agurtu ondoren, onela esan zion Don Kosmek, irripartsu, maltzur-maltzur:

– Ona non daukazun emakume berria, palta zai-gun Antonioren emaztea.

Serio-serio Joxepak, eskua luzatuz:

– Benetan laguntzen dizut naigabeen.

– Eskerrik asko –erantzun zion besteak, eskua artuz.

– Orduan, zu amerikarra zaitugu? –Joxepak.

– Bai. Alaxe naiz. Au, berriz, nere alaba.

Biei arpegira begiratzuz, alako keiñu estrañu bat egin zuen Joxepak. Bai bi gazteak zergatik egin zuen igerri ere. Ez baizuten ezertan ere elkarren antzik.

– Urte askoan, bada.

– Eskerrik asko.

– Orduan, zuk aztia zerala aitortzen dezu? –galdetu zion berriro Don Kosmek.

– Gaur neri adarra jotzeko asmoan zabilta noski? Ala esaten didazute beiñepein. Datozenak maitasunez artzen ditut, eta beren eskaria bete besterik ez det egiten. Soldaduskara joaterakoan, askotan galdetu izan didate zer suerte izango duten, norako tokatuko diran edo nora eramango dituzten. Olaxe, beren esku azpiak ikusi ondoren, nere iritzia eman egiten diet. Donostira eroriko dirala esanta, Afrikara ere berdin eramaten dituzte. Baiña beste batzuk asmatu egiten ditut. Orain palta zaizuten Don Antoniori ere –nere ezaguna, auzoak giñan ta–, erdiz-erdi asmatu nion. Baita bere amari esan ere. Oroituko da oraindik, bizi da ta.

Denak, arritu ta mutu, berari begira geratu ziran. Noizbait Don Kosmek artu zuen itza:

– Joxepa, zure gezurrak sinisteko elduegiak gera gu.

– Ez, Don Kosme. Ori egia da.

– Orduan, zuk illa dala uste dezu?

– Bai, Don Kosme, zalantzarik gabe. Onenbesteko zabalkundea eginta, azalduko zan, bestela.

– Ea zu tarteko zeran. Aztia zaitugun ezkerro, anbat jakingo dezu zerbait.

Beatza txutik jarririk erantzun zion:

– Bai, Don Kosme. Baliteke jakitea.

– Utzi dezaiegun orain kontu triste oiei. Billatu-takoan itzegingo degu –zion Don Kosmek.

Arek aztiaren bizkar par egin nai zuen.

– Ea guri igertzen diguzun. Ea zer dion gure etor-kizunak.

– Nik, irakurtzen detana esango dizut, txarra edo ona izan –erantzun zion Joxepak–. Ez gero asarretu.

Len esan degunez, aztiak bazekien bere bizkar par egin nai zutela. Lenengo, Don Kosmeren morroia asi zan.

– Nik, berriz, aztikeritan ez det sinisten.

– Ez dezu batere galduko.

Esku zabala gainera jarriz, begira-begira egon ziztaion puska batean, eta azkenik ala esan zion:

– Zu, azken onetan, neska eder batez maitemindu zera, baiña beste batek eramango dizu.

– Ni norekin nago maitemindua?

– Jar zazu eskua biotzaren gainean, ta laxter igerriko diozu.

– Eta garbi al nago?

– Etzaude garbi. Baiña besteen aurrean ez dizut azalduko.

Serio-serio, ala erantzun zion:

– Zuk ez dezu or ez onik eta ez txarrik irakurri. Ez det ezer ere sinisten.

– Aske-askea zera. Alare, benetan tristetu egin zera, ta maite dituzun batzuen igesa zuk pagatu bear-ko dezu.

Don Kosmek asarre xamar galdetu zion:

– Morroiak, zigortzeko zer txarrik egin du? Eta nor dira maite dituen oiek?

– Ori ez dakit. Zurea ikustean, agian antzemango diot.

– Bai. Zure aztitza ta auntzaren gaberdiko eztula berdintsuak izango dira –erantzun zion Don Kosmek.

– Ez ditut denak asmatzen, baiña batzuk bai, batez ere guri-guri bizi diranen eskuetan. Arraiak garbi-garbi edukitzen baidituzte. Lan gogorrean ari diranak, askotan berdinduak.

– Bai. Gizon sinpleak iruzurtu ta txanpona poliki irabazteko modua, batez ere berak nai duten bezelako aztitza egiten badiezu.

– Ezagun dezu fiskala zerala, ta nik kobratzen detan edo ez jakin nai dezula, auzitara eramateko. Bestela, zertarako ortaz orrenbeste galdera?

Don Kosmek etzion erantzun.

Ondoren, Maritxu aurreratu zan. Bere esku azpia ondo aztertuz, ala esan zion:

– Zu oso maitemindua bizi zera. Erasoaldiren batzuk izango dituzu laxter. Baiña zuk irabaziko dezu maite dezuna.

– Eskerrik asko –erantzun zion–. Orixen entzun nai nuen, jakiña, aztikeritan ez badet sinisten ere.

– Baiña nik asmatuko detala zaude lasai.

Irugarrena, Iñaxio. Onen esku zabala ere ondo aztertuz, Maritxuri bezela esan zion:

– Zu ere zearo maitemindua zaude. Ez dago ukatzerik. Eraso txarrak izango dituzu laxter. Alare, denak menderatu ta irabaziko dezu maite dezuna.

– Eskerrik asko, Joxepa. Maritxuk bezela diot nik ere, ta Jainkoak nai dezala zuk asmatzea.

– Eskuak ikusi gabe ere, ori asmatzen erreza da –esan zion Don Kosmek.

– Ondo dago. Zure txandan esango dezu asmatzen detan edo ez.

Ondoren, Doña Isabel. Onek aztitza gozoren baten itxaropenetan zabaldu zuen eskua. Aztertu zuen ondo. Begira-begira egon ondoren, ala esan zion:

– Doña Isabel, zu ere maitemindua zaude.

– Gezurra! Oraindik senarra bizi edo illa dan ez dakidala gaiñera.

– Alperrik ukatuko dezu. Nik ori garbi-garbi irakurtzen det emen.

Lenengo uste gabeko artatik zerbait lasaitu zanean, ala galdetu zion, zeremoni aiek guziak parregarritzat artuta:

– Zuk asmatzen dituzun ipuiak dira. Baiña esaidazu: iritxiko al det maite detan ori?

– Bai. Baiña beti Justiziaren iges ibilli bearko dezu.

– Zer txarrik egin det nik, Justiziaren iges ibiltzeko?

– Jar zazu eskua biotz gaiñean, ea zer aitortzen dizun.

– Nere egoera triste ontan, urrikaldu bearrean, par egin nai al didazu?

– Barkatu. Zuk eskatu didazu, ta nik ospela daukazun zaiña zapaldu. Ori irakurri baidet nik. Zure egoeran dagoen baten bizkar par egiteko gogo gutxi dauka Joxepak. Ez nauzute ondo ezagutzen. Asmatu

detan edo ez, zure kontzientziak garbi erakutsiko dizu.

Orain Don Kosme geratzen zan. Alarguna omen zala. Jendeak ala zion beiñepein. *Karakol biltzaillea* esaten zioten morroi batekin bizi zan; lenengo aztitza egin zion gaztearekin. Amerikarra, baiña aspaldi artan Ondarrabian bizi zana. Gizon ospetsua. Donostiko auzi barrutiko fiskal nagusia.

– Zer esan bear dute neregatik, aztikeritan ibilli naizela jakiten badute? Norbaitek algara gozoa egingo du.

Alare, eskua azpikoz gaiñera jarritz, onela esan zion Joxepari:

– Egidazu neri ere. Ea zer irakurtzen dezun nere eskuetan.

Esku zabaleko arrai oiek ondo aztertuz, ta berriro begiak igurtziz, begira-begira egon ondoren, serio-serio jarri zan.

– Zer: etorkizun txarren bat irakurtzen al dezu?

– Esku au gorri-gorria dago.

– Arloteak iruzurtzeko nolako itxura ta zeremoniak egiten dituzten! Zergatik ez dezu kandela bat pizten, obeto ikusteko?

– Alperren eskuan irakurtzeko ez det kandela bearrik.

– Alperra zuk neri? Zer dago, bada, idatzia nere eskuetan, «M» aundi bat besterik?

– Zearo maitemindua zaudela. Ori da lenengo irakurtzen detana.

– Nere adiñeko alargun batean ez da arritzekoa ori.

- Asmatu detala aitortzen dezu orduan?
- Ez dizut baietzik eta ezetzik esango. Eta norekin? Ez dezu irakurtzen?
- Jakiña, emakumeren batekin. Baiña ez du ize-nik jartzen.
- Zuk esan gabe ere, badakit ori: emakumeren batekin maiteminduko nintzala. Eta irabaziko al det?
- Bai. Baiña beti Justiziaren iges ibilli bearko dezu, ta irugarren batek pagatuko du larrutik zuek aldegiña.
- Zer det nik Justiziaren iges ibiltzeko?
- Jar zazu eskua zure biotz gainean, ea zer esaten dizun. Bostetatik iruan eskuak gorri-gorriak daude. Ondarrabiko lixiba guziak eskas dira, oiek ondo garbitzeko.
- Zer egin det, bada, orduan nik?
- Kontzientziak aitortzen dizun orixe.
- Esaidazu garbi, ea zer egin detan.
- Denen aurrean esatera ez naiz ausartzen.
- Zer da ori? Itxurak egiten ari bazera, zure txorakeriak kezkatuko nautela uste al dezu? Zer irakurri dezu, bada?
- Zure esku oiek benetako odol kutsua daukate.
- Ero gaizto bat bezela, bi atzaparrekin lepotik eldu ta itotzeko zorian asi zan. Baiña Joxepa erne zegoen, eta Iñaxioren atzean arkitu zuen babesa.
- Kalma, kalma, Don Kosme. Badirudi arrazoi ematen diozula. Bere bizkar par egiteko asmoan asi zerate, ta bere aztitzak amorratuta utzi zaituzte. Donostiko fiskal nagusi batek bere nortasuna gorde bear du.
- Ondo diozu, gazte. Baiña nor da ori, neri de-

nen aurrean iseka egiteko? –zion sumindua Don Kosmek.

– Zuri ere ospela daukazun zaiña zapaldu al dizut? Ez da fedeko egia. Nai badezu, ez neri sinistu, baiña bai zure kontzientziari.

– Bai al dakizu ni nor naizen?

– Bai, gizona, bai. Nik esan dizudan orixe. Buru aundi ortan badabilkizu egoaize puska bat. Alare, etzera Jainkoa.

– Donosti barrutiko fiskal nagusia naiz ni, ta auzitara eramango zaitut –erantzun zion, eskubiko beatz bakar bat txutik buruaren berdiñera jasoz ta eskua dardartuz.

– Lepoa jokatuko dizut ez nauzula eramaten. Emakume xaar baten aurrean daldaraka zaudena, ai zer nolako fiskala!

– Nere barrutietan ez geiago ankarik sartu –asa-re esan zion Don Kosmek.

– Ez, gizona, ez. Erri onek barruti aundiak dauzka. Zerok eskatu, ta asarretu. Fiskal jauna, ez da gero erreza Joxepa aztiaren bizkar par egitea. Ori nai zenduten, baiña kukuak oker jo dizute.

Denei eskua emanta, bixi-bixi aldegin zuen andik, esanez:

– Erri ontako lixiba guziak ez dira aski zuek iruen eskuak garbitzeko.

Maritxuk Joxeparen igerletzak kuaderno batean idatzi zituen.

Don Kosmeren etxe aurretik igarotzerakoan, zakurra zaunkaka erten zitzaion.

– Oa ortik nagusiaren mutur orrekin! –oiu egin zuen ozenki, denak entzutearren.

– Nor da atso kaxkar ori? –zion amorruez Doña Isabelek.

– Nik ez det ezagutzen. Baiña naiko larria utzita joan da. Aztiarenak ezik, sorgiñaren doaiak ere badi-tuela dirudi –zion Iñaxiok.

KARAKOL BILTZAILLEA

Gipuzkoak zear, baita Bidasoaz aruntza ere, zabaldu zan Antonio Irastortza izeneko ta Ameriketatik zetorren indiano aberats bat galdu zala. Ondarra-biarra berez. Amalau egun Irungo mugatik igaro zala, baiña etzala oraindik bere jaiotetxera agertu. Bereak etzekitela zer pentsatu. Etxean geratzeko asmoan zetorrela. Gurasoak ere bizi zirala oraindik. Inork aren aztarrenik billatzen bazuen, auzitegira abisatzeko. Ori zala erriko epailleen agindua.

Geroztik, esamesa ugari bazebillen errian, batez ere biren aurka.

Asko errukitzen zitzaizkion. Beste batzuek, berriz, larrutzen zuten, emaztea utzi ta iges egiña zala-koan. Bere andrea ta alaba ia larru gorriarik utzita, diruak berekin artuz, beste emakumeren batekin joana izango zala iges, aspaldian ez omen zala emaztearekin ondo konpontzen ta.

Olakoetan gertatzen dana ori: asko itzezin, baiña ziurtasunik gabe.

– Gizarajoa! –zioten, berriz, besteak–. Ainbeste

neke ta ixtilluetan diru pixar bat eginta, norbaitek il ta ebatsi.

Amaika aberasten omen dirala orrela. Orain urte batzuk onak pasa bear zituena... Iñork etzekien ezer, baiña zerbait esan bear. Geiena, ordea, Iñaxio zigortzen zuten:

– Beste egitekorik gabe andik onera biali ta etzuela nagusirik arkitu? Gezurretan ari dek gazte ori, korreetik bestek artu zizkiola eskutitzak kontu kontari. Bere lana dek ori. Nagusia il ta diruak ebatsi ondoren, lasai zebillek aren alabarekin. Ez badu ori lenbailen baitzen, etzeukak epaillak pulamentu aundirik. Diru mordoska bat bai omen zekarreken ta.

Emaztea ta alabarengatik etzuen iñork gaizkirik itzegiten.

– Ori Ondarrabian billatzen badute, ez dek izango atsegin.

Bere etxekoak, adiskideak, batez ere ertzain ta guardiazibillak, igaro zituzten inguru guziak, Jaizkibelko mendiak barrena, ango piñudi ta artzulo, zakur ta guzi, denei galdetuz. Baiña iñon etzuten aren aztarrenik billatzen.

Bidasoa inguruan billatu omen zituztela odol arrastoren batzuk. Alare, nork zekien zerenak? Ibai ertz guzia goitik beeraiño aztertu zuten legorrez, eta urpekoak urez. Alare, Antoniorik etzan iñon azaltzen.

– Urak itxasora eramango zuen –zioten batzuek.

Amabost egun luze joan ziran, eta etzala aren aztarrenik. Etsi ta askok utzi zioten lanari. Etzala emen illa izango, edo agian aldegiña, beste lasaiagoko bizimodua pasatzeko asmoan.

Alare, billatu zutela noizbait entzun ziran lenengo murmurak. Don Kosmeren morroiak billatu omen zuela, karakol biltzen zebillela. Bere nagusia kurkullo jalea omen zala, ta morroiari ordu asko libre uzten zizkiola ortarako.

Ordurako, karakol biltzaille ugari bazebillen. Gaur, berriz, ontzako urre batek aiña balio du bakoi-tzak.

Arresiz-arresi igitari ta guzi zebillela, usai gaiztoa artzen zuela; ta Maidanea baiño beeraxeago, izgoran bete ta izberan ustutzen diran lintzura edo urbide oietako batean arkitu zuen, alako arbasta eta arto zuztarrez estalia, gizon bat illa, erdi ustela ordurako.

«Au onera ekarri duena ere badek, bada, norbait» omen zion berekiko.

Bere artan utzi ta nagusiarengana joan zan. Arek jakin zuen lenengo.

Bere anai ta guardiazibillen batzuek ala omen zioten: aiek an ibilli ziranean, gorputz ura etzegoela an. Norbaitek geroztik ekarria zala. Noizbaiten buruan beñepein billatu zuten.

Bazitekela, beraz, ura Don Antonio izatea. Bere-ala agertu zan epaillea bi agoazillekin, ta an zegoen, ordurako usai gaiztoa zeriola.

Maritxu ta Iñaxio ere laxter azaldu ziran. Emazteak etzuen joateko biotzik izan. Ez da batere arritzekoa. Usteldua zegoen bere senarra ikustera joatea gogorregia izango baizitzaion. Ikusi orduko, jantzian ezagutu zuten. Maritxuk, Iñaxioren sorbaldan babes-tuz, negarrari eman zion.

Biak antxe bertan zin egin zuten, iltzaillea nor zan arrapatu arte etzutela etsiko. Begira zeuden bere aita, anai ta illobak ere, beste ainbeste esan zuten.

An zegoen Don Kosme ere, jakiña, Donosti barrutiko fiskala zanez eta Ondarrabiko indianoen ordeko bezela, bere lekuan. Illaren alabari eskua eman ez, serio ala esan zion:

– Benetan naigabeen laguntzen dizut, Maritxu. Aalegiñak egingo ditugu, ori egin duena arrapatu ta berea ematen.

Autosia egin zioten: balaz illa zala, garrondotik sututa.

Ondarrabian bizi zana ote zan iltzaillea? Nola ikasi zuen zetorrela? Bere adiskideren bat ote zan? Edo norbaitek andik onera jarraitu ote zion? Galdera asko erantzunik gabe. Billatuko ote zitzaien?

Ondarrabiar geienak Iñaxioren susmurra egiten zuten. Bera zan zetorrela zekiena. Aitzaki asko jarriko zituen, baiña etzioten sinistuko.

Beste gazte bat ere bazeukaten susmurgarria: karakol biltzaillea.

Errian zabaldu zanean, berriz, bertako jende mazala asarretu zan. Amerika aldeko jende ori diruarengatik elkar iltzen ari baziran, zijoazela andik, Ondarrabiaren izen garbia zikindu baiño len.

– Gure gogoan, olako eriotz nazkagarririk ez dugu ezagutu emen.

Baiña gaizki esaka orrek etzuen bururik. Nik Ondarrabian ezagutu ditudan indianoak ez dira orrelakoak.

Bere emazte, alaba ta gurasoak egin ziran gorputzaren jabe, eta fameliko illobian eortzi ixil-ixilik, erdi usteldua baizegoen.

Ondarrabi guzia an zan bere illetan, gogotik asa-

rre. Aiek ere aalegiñak egingo zituzten iltzailleak arrapatzen.

Karakol biltzaillea, ori etzekiten nor zan. Urte batzuk baziran Ameriketatik etorria zala, Don Kosmeren morroi bezela.

Gure bi gazteak, ebatsitako diruagatik etziran batera kezkutzen. Aita galduak, orrek ematen zien nairgabe. Ura zuten beren babes, ta batez ere mutillak. Alare, bera zeukaten noski susmurgarriena. Ez daki-gu andregaiak nola pentsatzen zuen. Benetan jarraitzen ziola, beinepein.

Nor ote zebillen or tartean? Diru bakarraren atzetik ote zebiltzan, edo fameliko lana zan ori, bi gazteak berezteko? Zer pentsatu etzekiten, baiña oso usai txarra artzen zioten.

Epailleak nai bazuen lana egin eta bere jakinduria erakutsi, orain zeukan aukera. Ondarrabikoak, zekien guziaren berri Donostikoari pasa zion. Orain dena aren esku geratzen baizan.

Bada ez bada ere, karakol biltzaillea deitu zuen lenengo. Arek billatu baizuen illa.

JOXEPA AZTITZAN BERRIRO

Antonioresen illetak bukatu ziranean, Joxepak, tarte-
teka oitura zuen bezela, Irun aldera joateko asmoa
artu zuen, an zauritutako bat bazeukan ta, ari ikertxo
bat egiñez, illa billatu zuen karakol biltzaille ori zer
moduzko mutilla zan ikasi nairik, askok arengatik
gaizki itzegiten zuten ta.

Eskutitz txiki ura billatu ezkeru, ta berak beldur
zuena gertatu, Joxepari, zeraman bizibidean, erreza
iruditzen zitzaion illunpeko ezkututu ori argitzea ta
orren berri jakitea, iltzaillea Ondarrabian bizi bazan
beñepein.

Malezi aundia zeukan aztiak. Beti irripartsu ta
apal-apal itzegiten zuen, egiten zizkioten galderei ze-
kien bezela erantzunez. Orduan, besteak ere etzioten
ukatzen. Xirika-xirika, ezeren ajolik ez balitzaio be-
zela, atera eraziko zien nai zuen guzia galdetzen zie-
nei.

Len esan degun bezela, bost aiek txalet aurrean
zer pentsatu etzekitela utzita joan zan. Bere egunero-
ko egin bearrak ziran lenengo.

Gertakari triste aiek bukatu ta gero, aspaldiko ezaguna zuen ostatu batera joan zan. Prantziatik sartu ta Ondarrabirako bidean zegoen au. Lenengo txangoa, bada, ara egin zuen. Inguru aietan asko ibillitakoa, erritik kanpora ere noiznai deiak izaten baizituen Joxepak.

Antonio an bazkaltzeko asmoan zetorrela baze-kien, billatu zuen eskutitz estraiñu artan garbi-garbi jartzen baizuen; ta galdetu nai zuen bere berririk ikasi ote zuten, oraindik atzoko kontua zan ori ta. An geratu ta bazkaldu bazuen, oroituko zirala, ango nagusia ta Antonio auzoak izan ziralako. Ostalari ura ondarrabiarra zan, bertako alaba batekin ezkondua. Ostatua, beraz, emaztearena zan. An bazkaldu bazuen, elkar ezagutu gabe etzirala geratuko.

Eizean zebillela, eskupeta lertu zitzaion nagusiarri, ta txikitako bere zauri ariñak sendatzen zizkiona deitu zuen: Joxepa alegia. Oni eskerrak, poliki-poliki bazijoazkion zauriak sendatzen. Oraindik ez noski bear bezela, baiña gaiztotzeko beldurrik gabe. Denbora bear.

Bere asteroko ikustaldia egin nai zion, bada, obeto zijoakion edo ez jakiteko. Bidean arkitzen zituen sendagaiak jasoz, etzuen iñora alper biajerik egiten. Joan zan, bada; ta, bien zorionerako, sendatua arkitu zuen, zauriak ondo itxi ta oiñazerik gabe.

– Au, Felipe, sendatua daukazu. Banituen nere kezkak. Erdi erretako zauri oiek gaiztoak izaten baidira. Baiña azkena billatu detan txantxa belar orrek egin du bere lana. Oso bikaiña da zauri auek sendatzeko.

– Bai, ta eskerrak zuri. Sendagilleetara joan banintz, ebaki gabe etzidaten utziko. Oiñaze gaizto

askoak igaro ditut, baiña miñak joan ziran. Arrastoren batzuk geratuko zaizkit. Alare, ori ez da ezer.

– Ori noski betiko izango dezu. Amaika zauri gaizto baditut sendatuak. Au baiño zaillagoak, gutxi. Gure auzoko ta txikitan zure laguna, ta gero Ameriketara joandako Antoniorena noski denetan zaille-na. *Tétanos* arrapatzeko arraisku aundia zeukan arek. Baiña, Jaunari eskerrak, etzitzaion pasmatu. Urrengoa zurea izango da noski. Beste bat badaukat orain. Mugan polizia da. Txarrantxak egin ziola esan zidan, baiña ez diot sinisten. Ura zakurraren ozkada da; ez urratua edo ebakia. Berak jakingo du gezurretan zergatik ari dan. Oraindik egunak bear ditu sendatzeko, ondo dijoakio baiña. Emendik txuxenean arengana joan bear det.

Joxepak goxo-goxo bota zuen amua, arrairik lotzen ote zitzaion.

– Antonio diozu? –galdetu zion ostalariak.

– Bai. Geronekoan karakol biltzailleak illa arkitu duen ori. Zure garai bateko ezaguna noski.

– Baita laguna ere. Arek zauri ura egin zuenean, nik egin nuen lenengo jauzia. Ondoren, arek; eta botilla ipurdian lotua geratu zitzaion. Arekin Ameriketara joan ez joan ibilli nintzan. Asiera ona izan zuen, baiña bukaera txarra.

– Ez eder-ederra gizarajoak. Aberastuta zetorre-na, etxe atarian il.

– Ogei ta amar urte zeramazkien Ameriketan. Iru Erregetan joan zan. Oraindik gogoan daukat Irungo zubiraiño nola lagundu nion. Amets ugari bazebillen gure buruan. Orain emaztea detan onekin ordurako asia nintzan. Bestela, aldegingo nuen.

– Etorri noizbait eta aterako zitzaion norbait zu-

bira, baiña ez laguntzeko asmoan. Gizarajoa! Ori da errematea, ori!

– Zubia ondo igaro ta gero egin zioten azio kas-
kar ori.

– Nola dakizu?

– Emen elkarrekin apaldu baigenduen, goiz xa-
mar gaiñera.

– Orduan, itzegin zenduen berarekin.

– Bai. Izan nuen ostatu ontan Antonio besarka-
tzeko zoriona. Gizon bikaiña, bibote motz ba-
tzuekin, sasoiko ta gaztea oraindik. Arek, saltzeko
ere bazeukan osasuna. Beti bezela, umoreko ta alaia.
Oso suerte ona izan zuela esan zidan. Emen txalet
bat erosi ta bertan bizitzeko asmoan zetorrela. Eman
zizkigun bere gorabeeren berriak. Au, Prantzia alde-
tik datorrenarentzat oso tirabidean baidago. Onda-
rrabiarrak ezik, probintziko etorkiñak ere emen ar-
tzen dute ostatu, mugatik lenengoa au baita.

– Gizarajoa! Emendik etxera bidean norbaitek il
zuen, bada!

– Esan nion arratsa pasa ta joango zala. Baiña
etzuen nai. Izan ere, bere gurasoekiko maitasunak
geiago zezaken. »Arrikada batean daukat etxea ta
berealara an naiz ni» esan zidan. Arrituta zegoen: an-
dik aintzindari bat bialia zuela, bere alabaren senar-
gaia; geltokira ertengo zitzaion itxaropenetan etorri
zala, baiña etzala azaldu. «Zer gertatu ote zaio ari?»
zion.

– Eta illa billatu zuena zer moduzko gizona da?
–galdetu zion Joxepak.

– Noiznai emen degu nagusiarentzat gauza billa.
Iñozo xamarra ematen du. Baiña uste det itxurak

egiten dituela. Lapurretarako ere badu noski bere griña.

– Eta orrek il ote zuen?

– Ez, Joxepa. Arkakoso bat iltzeko ere ez du biotzik orrek. Malezi geiagokoren bat dabil or tartean. Nere iritzian, andik eta emendik elkar artu ta ondo antolatutako lana da ori.

– Ez dakit, bada. Ondarrabian au daukate susmugarriena. Bestea, berriz, Iñaxio, illaren alaba bakarraren senargaia.

– Lenengo zuri entzuten dizut. Bere emaztea ta alaba etorriak ditu. Aiek ere, gizarajoak, nola dau-de? Injeniero ikasitako gazte eder bat du senargaia bere alabak, denen aurretik etorria. Ura izango zuen bidera ateratzekoa.

– Leku ederrean geratu da orain.

TXALETEKO GORABEERAK

Iñaxio, esan genduenenez, ostatura joaten zan. Ez txalet artan beretzat lekurik etzegoelako. Baiña bazekiten ezkondu gabeak zirala, ta etzuten beren izen garbia jendearen mingain txorrotxak ebakitzerik nai.

Maritxuk, bada ez bada, goian geratzea nai zuen. Bi emakume bakarrak, eta iñor ezagutzen etzuten lekuan, babes gabe geratzen zirala. Amak uko egin zion, ordea.

Mutilla etzan bein ere bere gogokoa izan, beste aitzaki bat jarri bazuen ere. Orregatik Doña Isabelek bere senarrarekin izaten zituen eztabaidak. Baiña alperrik. Aitak benetan maite zuen mutilla.

Emakume au, berriz, len ere esan detanez, Don Antonioren bigarren emaztea zan, eta ez Maritxuren ama. Amaika buruauste ematen zion orrek. Ama ordekoari bereganatu nai, ta ezin.

Onek zenbat eta geiago aurka itzegin, orduan ta maiteago zuen aitak bere suigaia, interes guzien zuzendari jartzeraiño. Aita ta ama oso gutxi ikasiak ziran. Maritxuk zerbait. Orregatik eman zion aginte

ori, balezakelako. Emakume gizatxar au, bada, mindua geratu zan, baiña ez asarre.

Biak gelditu ziran, bada, txalet artan, eta txakurra ta katua bezela beti elkarrekin. Beste emakume xaar bat ere bazeukaten etxe garbiketako egiteko. Jakiña, txaletaren jabeak saritua. Auek ere zerbait geiago ematen zioten, sukaldaritza egiteagatik.

Onak ikusten zuen ango martxa etzala zuzena: denak etzebiltzala garbi, eta eguneroko ama-alaben iskanbillak ere bai. Geiegi aspertu etzitezene, elkarri egiten zizkieten losintxak iruditzen zitzaizkion neskamari, dena pasa ta ordu bete baiño len kontu kontarri nabaituko zituen ta. Baiña berak etzeukan zertan sarturik.

Alare, Maritxuri ematen zion arrazoi: mutilla txaletean geratu ezkeror, beste errespeto bat izango litzakela etxe artan.

Aberatsak elkarrekin ala ibiltzen baziran, naiago zuela beartsu bizi, ta ez beti erritan.

Erregiñak bezela bizi ziran biak. Alare, alaba etzegoen konten. Sartu ziran egunetik, goizean aldegingo zuen Maritxuk Iñaxiorengana, bere bustialdia artzera. Baiña bazkal ordurako etxera lagunduko zion mutillak, gero ostatura jexteko. Aldrebeskeri ikaragarria.

Beti bazkaria Don Kosmeren etxean egingo zuten laurak. Doña Isabelenean, berriz, apaldu. Bi alargunak elkarren ondoan. Maritxu ta karakol biltzaillea ere bai. Au ondo ezitako mutilla zan, eta ederra. Baiña neskak etzekien nor zan. Errian etzeukan izen ona gainera.

Elkar izketa gozoak izaten zituzten. Bazkari aparti

luzeak, berriz. Egoarte guzian ez baizeukaten ezertarako presarik. Eguzkiaren laztanak esnatuko zituen Maritxu ez besteak.

Bederatzietatik irurak aldera arte, Don Kosme paltako zan. Len esan detan bezela, Donostiako auzitegiko fiskala omen zala. Karakol biltzaillea, berriz, norabait joaten zan.

Doña Isabel neskamearekin geratzen zan, eta zerbait egingo zuen. Baiña Iñazio ta Maritxu etortzen ziranean, eguzkitan erdi larru gorririk, suangilla bezela, goiko terrazan arkituko zuten, usai gozozko gantzuarekin igurtzita. Berak zionez, euliak izutzeko.

Illunabarrean ere, apaltzerako Maritxu azalduko zan utsegiñik gabe, eta beti bezela laurak batera egingo zuten beren apartu legea. Iñaxio, ordea, neskarri etxeraino lagundu ta ostatura itzuliko zan, apaldu ta lotarako.

Etzuen aztia izan bearrik, Doña Isabel zoriontsu egoten zala Don Kosmeren ondoan igertzeko. Au ere zer esanik ez arekin. Karakol biltzaillea ere berdin: eztaietan Maritxuren aldamenean. Ezin ulertu zuen neskak zeren billa zebiltzan. Bi gizon aiek artara bizitzeko eskubidea bazeukaten, zergatik ez Iñaxiok? Itxura txarra artzen zion ango martxari.

Joxepa aztiak maiteminduak zeudela esan zien. Erdiz erdi asmatu ere noski. Etzan gezurra. Orduan purrustadaka artu bazuen ere Don Kosmek-eta, benetan ala zirudien.

Senarra galdu berriko malko banaka aundi aiek laxter legortu zitzaizkion Doña Isabeli. Lagun berri onek ondo betetzen zion aren utsuna. Arritzekoa zan orren denbora gutxian biak artaraino maitemintzea.

Maritxuri, berriz, karakol biltzaille gazte ura jarriko zioten aldamenean, eta zirika aritzen zitzaion, txora eraziko zuelakoan noski. Baiña biotza etzuen, amak bezela, aldakorra. Ta, txaletako bizimoduz nazkatuta, egunik geiena errian igaroko zuen, maite zuen lagunarekin.

Alabaren ibillera orrek sumintzen zuen, ordea, bere ama, oraindik ez bazion orrelakorik aipatu ere.

Orrela, Iñaxiorekin batera ari zan poliki-poliki erriko berri ikasten, goizeroko beren murgilla egin ondoren. Etzeukan ezkutu aundirik ere. Gero ta atsegiñago zitzaion Ondarrabi xaarra. Batez ere bere inguruak, zoragarriak iruditzen zitzaizkion, dena baserri zuriz josi ta mendi ta basoz inguratua. Arjentinako zabalune aiek ez bezelakoa zan au.

Donosti aldera ere noiznai joaten ziran, aurki epaillea deika asiko zala ta ango berri ikastera.

Alare, aspertuak zebiltzan. Ez baizuten ezer ere egiten. Zoritxarreko auzi ori bukatu bitarte, orrela ibilli bearra zeukaten. Eta noiz asi ta nola bukatuko zan jakin ez. Zein deabruk il bazuen ere bere aita!

Alabak zeraman martxak ase zuen amaren biotza, etxea utzi ta erri aldera jexten zalako.

– Ez daukan etxeko pakean bizitzeko gogo aundirik. Aitaren oroitzak laxter aztu zaizkin. Jan ta lo besterik ez den egiten emen.

Alaba ere mindua zegoen, eta txorrotx erantzun zion:

– Etorri baiño len aztua zeunden zu aitaz. Zenbat meza atera dizkiozu? Ez naiz zortzi urteko aurr, amaren gonapean bizitzeko. Zuk etxean daukazu, gaiñera, biotza zerekin asea. Nik, berriz, errian.

- Zer esan nai didan orrekin?
- Esan detana besterik ez. Zu terrazan larru gorri-rik ikusteko gogorik ez daukat. Emezortzi urteko neskatxa naiz, eta ibiltzeak atsegin ematen dit.
- Aita il ezkero lotsagabetu aiz.
- Ez da ori etxerako txarra. Zu lenagotik lotsagabetu ziñan. Aita ildako naigabe gutxi ikusten det nik emen. Aren utsuna laxter bete dezu.
- Beiron!... Mingain orri galga jarri akion.
- Aita bizi zanean, etziñan zu nerekin orrenbesteraño ausartzen. Aren eskubideak artu nai al dituzu?
- Gaur txorrotxa agon.
- Min baidu, min, nere biotzak.
- Karrikan ibillita etzain asko sendatuko.
- Zu atsegin zaizunarekin zabiltza, nai dezun bezela. Errespetat, bada, nere askatasuna ere, ta utzi neri pakean. Ez sartu nere arazoetan. Nik maite bat daukat aukeratua, ta ari jarraituko diot. Aita galdu detan ontan, orixe da nere babes bakarra. Zure ni etxean eduki naia ez baidet ulertzen. Nere aldamenean esertzen dan ori ez det ezaguna. Ez dakit ijitoa badan ere. Nik ez det zuk bezin biotz aldakorra.
- Ama baiño lenago al den ori?
- Eta zuk, alaba baiño lenago al dezu auzoko idisko zakar ori?
- Malkoak asi zitzaizkion Doña Isabeli, erantzun zorrotz ura artu zuenean.
- Idisko zakar ori nor den?
- Ama, ez gera itxuak. Neri ere, maite detanaren ondoan egotea atsegin zait. Eta zu ere ala egoten zerala idisko orren ondoan nabarmena da.

– Ori al den amari emateko arrazoia?

– Txarra bada, barkatu. Baiña zureak ez dute besterik merezi. Elkarrekin pakean bizitzea nai badezu, jarrai zere bideari, ta utzi neri ere askatasun osoan nere martxa eramaten, kristauak gera ta.

Doña Isabelek etzion itzik erantzun. Bere amorru guzien artean antzeman zion gazteak arrazoi zuela. Berak bere bizitza berritu nai bazuen, zergatik ez alabak? Gogorregi artu naiak berezi besterik etzituela egingo, aitaren interes guzien oiñordeko ere bera zan ta.

– Joan, joan nai denan lekura, berdin iri aolku ematea alperrikakoa den ta.

– Ori da arrazoia. Neri komeni zaidan bidea billatzeko aiña banaizela uste det. Jarrai dezagun elkarri lagunduz, baiña ez iñori ertenbiderik itxi. Aolkurik onena ejenploa da gaiñera.

Ettxetik erteeran neskamea arkitu zuen, eta ala galdetu zion Maritxuk:

– Entzungo zenituen noski gure zirikadak?

– Orrela asteen, aldegin egiten det.

– Senar-emazteak bezela berak emen, eta neri mutillarekin ibiltzea ere galerazi nai lidakela.

– Eta ez al dira ala izango? –esanta, barrura sartu zan neskamea.

Zer pentsatua eman zion erantzun orrek alabari.

EPAILLEA LANEAN

Len esan bezela, bein illa billatu zutenean, eta indarrez egindako lana zala, Donostiako epaillearen esku geratu zan. Ondarrabia ango auzi barrutikoa baita. Angoaren esku geratzearekin, emengoak zekien guziaren berri eman zion Donostiakoari, ta bereala asi zan lanean.

Karakol biltzaillearekin eman zuen asiera. Garbi esateko, bere ingurukoak jakingo zuten nor zan. Baiña erriko jendeak etzekien ezertxo ere, Ameriketa aldetik etorria zala besterik.

Ogei ta lauren bat urtekoa, gazte alaja, gorputzez mutil ederra. Etorri zanean euskeraz etzekien. Baiña poliki-poliki ikasi zuen. Baserriko jendearekin itzegitea oso atsegin baizitzaion.

Erriak etzekien Don Kosmek deituta etorria zani. Baiña, azaldu zanean, bere morroi artu zuen. Arratsalderik geienetan aske uzten zuen, eta inguruko baserrietan barrena karakol biltzen ibilliko zan, nagusiak oso gogozkoak omen zituela ta.

Antonio illa onek billatu zuen; eta epailleak bera

deitu lenengo, beretzat susmurgarriena ura omen zala ta. Beren sarrerako agurrak egin ondoren, izen-abizenak galdetu zizkion.

– Segundo Vargas Rati. Alvaro Vargas, aitarena. Mercedes Rati, berriz, amarena.

– Etzera zu orduan ondarrabiarra.

– Ez, jauna. Amerikarra naiz.

– Eta zertara etorri ziñan zu Ondarrabira?

– Emendik ara joaten dira, ta andik onera ere etorri.

– Amasei urte besterik etzenituen, ta ez dezu egi osoa esan.

– Ez, jauna. Don Kosmeren arreba baten semea naiz ni. Nere gurasoak berezi egin ziran, ni umetxo utzita. Ez dakit bizi diran ere. Bein amasei urte bete nituen ezkerro, osabak deitu niñuen. Baiña ez naiz bere morroia. Semetzat artua nauka –xalo-xalo eran-tzun zion.

– Egia ote da gero ori? Nik entzun detanez, lapurreta gaizto bat an egin ta onera iges etorria.

– Nik egia garbi-garbi diot. Bestela, galdetu osabari.

– Ezagutzen al zenduen Don Antonio Irastortza?

– Nor da ori?

– Ameriketatik asi ta Ondarrabiraiño bere atzetik etorrita, emen il zenduen gizona etzenduela ezagutzen?

– Amasei urtetan etorri ta ni ez naiz berriz Ameriketan izan.

– Gezur borobilla diozu ori. Ikusi zaituztenak badira. Batzuetan, bizarrarekin zabiltza; besteetan, ba-

tere gabe. Don Antonio Irastortza, zuk illa billatu dezun gizon ori da. Ondarrabian ez da besterik entzuten. Zu, alajaiña, ezjakiñean!

- Erriko esamesari ez diot kasorik egiten.
- Ainbeste aldiz aztertutako lekuan billatu ere.
- Bai, jauna; usaira.

- Zakurrak bezela orduan? Emen daukat guardiaibillen agiri bat, aurreko egunean gorputz ura etzegoela an adierazirik. Erreka xior artan ibilli zirala, txeetasun guziekin leku ura aztertzen. Eraman berria zala ura ara. Agian, billatu zuenak berak. Zer erantzuten diozu zuk orri?

- Nik ez dakit. Neroni ere ibilli nintzan len, baiña ez nuen billatu.

- Guardiaibillak zure susmurra egiten dute, bada, ez ote zenduen zuk eramane.

- Susmurra egiten erreza da. Baiña arta zuztar, arbasta ta belar zakarrez zearo estalia zegoen.

- Guardiaibillak diotenez, an ez dago alakorik. Alako azterketa batean aixa billatzeko moduko lekuan zegoela.

- Nik beiñepein an billatu nuen. Geroztik norbaitek eramane bazuen ez dakit.

- Agian zedorrek.
- Ni ez naiz bi arpegiko gizona.
- Ezagutzen al dezu Iñaxio Segurola?
- Bai, jauna. Baiña onera etorri arte ez.
- Eta ari bialitako eskutitzak nork artu ote ziotuen? Susmurrik badezu?
- Zalantzarik gabe, berak.

- Edo zuk.
- Len ere esan dizut ni ez naizela bi arpegiko gizona.
- Orduan, ura gezurretan ari dala uste dezu?
- Nere iritzian, bai, eskutitz egiztatuak omen ziran ta. Karnetarik erakutsi gabe nola emango zizkioten korreoan?
- Eta nola dakizu egiztatuak zirala?
- Osabari ala entzun nion.
- Korreoan, berriz, etzala Iñaxio diote. Zer erantzuten diozu orri?
- Nik ez dakit ezertxo ere. Baiña zailla iruditzen zait aurea artze ori.
- Zuk artu diozu, bada –bota zion arpegira.
- Ori ez da egia.
- Iltzaillea nor dala uste dezu?
- Nere iritzian, Iñaxio Segurola. Arek bakarrak zekien etortzekoa zala.
- Korreora aurea artu zionak ere jakingo zuen, bada. Ondarrabiko epaillak dionez, zu bezelako gazte bat omen zan.
- Nik, jauna, ez det iskanbil ori bizi, ta Iñaxio bera ere ni bezin gaztea da.
- Ez badakizu, zergatik eransten dizkiozu erru guziak mutillari?
- Ura omen zan aintzindari bezela etorria, ta berak zekien denaren berri.
- Susmurgarria da ura ere. Baiña diru atzetik ez dabillena.
- Barkatu, nik auzi auen berri ez dakit eta.

– Osaba Don Kosmek salbatzen zaitu oraingoz. Bestela, espetxera joango zīñan.

Irakurri zion bere aitorra. Izenpetu ta laxter aldegin zuen andik.

Baionako Don Antonioren adiskideak deitu ziotuen ondoren epailleak. Bai txintxo etorri ere, eta galderei jator erantzun. Gizon atsegin mazala iruditu zitzaion. Bere adiskide maite ura galdua naiko naigabea agertzen zuela zirudien.

Urrengo, tasista deitu zuen. Au ere txuxen etorri zan, zekiena esateko prest, beste aldean bizi arren.

– Zuk ekarri al zenduen Antonio Endaiaraiño?

– Bai, jauna. Muga-mugan utzi nuen, bereala Baionara biurtuz, ortatik bizi naiz eta. Eskupeko on bat ere eman zidan. Ez nago ni arekin asarre.

– Eta bakarrik al zan?

– Ez, jauna. Antoniok eta nik tratua egin ondoren, beste gazte bizar aundi bat azaldu zan; eta, konpondu giñanean, irurak etorri giñan. Etzion noski Don Antoniori grazi aundirik egin.

– Beste gazte bizar aundi bat diozu?

– Alaxe da.

– Eta zure ezaguna al da?

– Ez nerea ta ez arena. Ordurarte etzan ura nere begien aurrean jarri.

– Eta zer moduzkoa iruditu zitzaizun?

– Beste geienak bezelakoa. Alare, nik mugara eramandako gizona il zutela jakin nuenean, «ea ura dan gizon iltzaille ori» nion nerekiko. Baiña ez nion orduan begiratu aundirik egin.

– Eta zergatik diozu ori?

– Ura, iñondik ere, aren atzetik etorria zan. An

baizebillen. Ta Antonio berebillan sartu arte ez baizidan lekurik eskatu.

– Illaren Baionako adiskideak ezagutzen al dituzu?

– Aspaldidanik bai, an bertan bizi naiz ta.

– Zer moduzkoak dira?

– Jatorrenetakoak.

Mugako ostatukoak ere deitu zituen epailleak. Famelikoekin gero asiko zan.

Denetatik bakarra iruditu zitzaion susmurgarria: gazte batek artu zituela korreetik eskutitzak; gazte batek lagundu zion Endaiara; azkenean, gazte batek billatu zuen, bezperan etzegoen lekuan. Ez ote zan gero iru lekuetakoa bakarra izango?

Erantzunak ere larri samarrak ziran, eta bazituen bere zalantzak. Ajola gabeko ume lotsagabe bat iruditu zitzaion, eta gezur kontari ari zala.

Aurrean arkaitza zeukan, ordea. Don Kosmeren illoba baldin bazan, ta onek semetzat artua, etzuen geiago deituko.

AMARI ERASOA

Askotan Iñaxiok eta Maritxuk ostatuan apalduko zuten, eta etxeraíño lagunduko zion gero. Illunabar batean, bada, goizago apaldu ta Irunera joan ziran, eta beranduxeago etorri. Biak txaleteraíño iritxi ziran, onela galdetu zion neskak mutillari:

– Etzera arritzen? Gure sukaldean argia dago.

– Egia. Garai ontan gure Doña Isabelek zer egingen ote du?

Bada ez bada, begiratu zuten leiotik. Maritxuren ama beste irurekin izketan ari zan. Urduri, izutua zegoela zirudien. Eskuarekin lepoari eltzen zion.

– Zer ote dabil oien artean? –galdetu zuen mutillak.

– Ez dakit. Emengo martxarekin zalantza ta kezka betea nabil.

– Zuretzat bat bakarrik ez du nai, ta bera irurekin.

Ori entzun eta par egin zuen neskak.

– Aundi ori aldamenean oso atsegin zaio amari. Askotan biak aopekotan aritzen dira.

– Nai badezu, sartuko naiz, beldurtzen bazera beñepein.

– Ez neregatik, irurak ere adiskideak ditut eta.

– Agur orduan, Maritxu. Ondo lo egin eta biar arte, Jainkoak nai badu. Biar esango didazu zer gertatu dan emen.

– Agur, ta gaurko garaitsurako azalduko naiz.

Alabak atean giltza sartu zuenean, serbitzaria azaldu zitzaion. Baiña izutua au ere benetan.

– Garai onetan sukaldean? Zu, gaiñera, izutua zaude. Zer gertatu da?

– Bai, Maritxu. Izutua nago. Zure ama ez dakit nola ez duten ito.

– Nork dauka zer ikusirik nere amarekin?

– Argia piztu ta sukaldean egunerokoa irakurtzen ari dala, gazte bat leiotik sartu zaio, eta lepotik eldu, itotzeko asmoan. Egundoko karraxia egin du. Nik ere entzun det. Eskerrak Don Kosme, bere morroia ta beste auzoko bat urbil zeudenari elkar izketan. Bestela itoko zuen. Oiek etorri diranean, sartutako leiotik iges egin du lapurra dalako orrek.

– Ori ere badegu? Nor izan ziteken?

– Uste det ezagutu dutela.

– Alare gaitz erdi, nor dan baldin badakite. Baiña ni ez naiz geiegi piatzen nere amarekin: ez ote dan dena komeri bat izango.

– Ori ez dakit. Zuk, nik baiño obeto ezagutuko dezu.

Maritxu sartu zanean, alako jauzi bat egin zuen Doña Isabelek, beldurak aidean balego bezela. Beste iru gizon aiek zeuzkan berekin. Ondo zaindua zeukaten, bada ez bada, gure emakumea.

– Jainkoak gabon deizuela –agurtu zituen lasai, itxurak egiñez, neskak.

– Baita zuri ere –erantzun zioten, eta gozo itzegiñez joan ziran iru gizonak, ama-alabak eta neskamea elkarrekin gelditzen ziralarik.

– Zer gertatzen da etxe ontan, ama? –galdetu zion.

– Ikusten al ditun arramazka auk? –asarre erantzun zion.

– Bai. Katuak jolasean egindako atzaparkadak dirudite.

– Bai. Auek egin dizkidanak katuaren begiak zeuzkan, baiña deabruaren lanak. Etzekiñat zeren billa dabillen.

– Nere iritzian, gazteren bat, zure lepoko aberastasun oiek lapurtzeko asmoan. Beste gaiñerakoan, nork dauka zurekin zer ikusirik?

– Oraindik ere iseka egiten al didan? Nere larritasunak igaro izan baitun...

– Ez daukazu, bada, babesaren paltarik.

– Eskerrak oiei. Bestela, suskaldean luze-luze illa arkituko niñunan.

– Ondarrabian ere bai al dira olakoak?

– Amerikakoa den ori; ez ondarrabiarra.

– Ez badidazu garbiago esaten, baraurik geratu-ko naiz.

– Ire lagun maltzur orrek egin zizkidan, ez den oraindik ordu erdi, leiotik sartuta.

– Nork? Iñaxiok?

– Bai. Orretzek berak.

– Ama, oraindik olakorik inoren ezpainetatik ez det entzun.

Eta, amaren komeri aiek ikusita, parrari eman zion Maritxuk, negar ez egiteagatik.

– Par egiten al den, par?

– Zer egitea nai zenduke, bada, ama? Dena zinean bezela gertatu zaizu: leiotik sartu ta mutil batek eraso. Baiña, ala bear ta, iru gizon, garai ortan etxe ondoan elkar izketan ari ziranak, zure karraxiak entzun orduko, tximistak atereaz etorri ta azken unean salbatzen zaituzte. Olako pelikula asko botatzen dituzte zine oietan. Emengoa, bat geiago.

– Nik bezela ikusi ditene beste irurak.

– Ama, ez dizut ezetzik esango. Baiña Iñaxio ez.

– Ez. Itxuak gaitun ez ezagutzeko.

– Oraindik okerrago: benetako gezurtiak.

– Amari gezurtia esaten al dion?

– Ez zuri bakarrari. Baita emen zeuden beste irurei ere, ala badiote.

– Ik zer dakin, ikusi degunak baiño obeto?

– Ez. Zuek baiño obeto ez dakit. Zuek bezela bai, ordea.

– Zer esan nai didan orrekin?

– Len esan dizudana: seguru badakidala etzala ura, eta gezurretan ari zeratela. Ori da guzia.

– Laurok ala ari ote gaitun?

– Bai, ama, zalantzarik gabe.

– Nork egin ote zizkidan arramazka auek?

– Zurekin emen izketan ari zan gazte orrek: karakol biltzailleak. Etxe ontan leiotik ez da sartu besterik, zure ille ortan karakolik badagoen ikustera.

Elkar izketa au guzia entzuten zuen neskameak, eta naigabetua zegoen.

– Salatu egingo diñat nik ura.

– Orra or komeri orren arrazoia. Iñaxio, nere laguna, galdu nai dezute, lekuko oiekin batera salata. Garbi-garbi ageri da. Zuen asmo guzia ori da.

– An ikusiko diñagu arrazoia nork duen.

– Begira, ama: pauso txar ori eman baiño len, arrazoitara jarri zaite. Irungo zinetik atera ta etorri gera. Etxe ontako atariraiño lagundu dit. Emen iru gizon zurekin ikusi ditugunean, «Zer gertatzen da or?» galdetu diot nik. «Beldurtzen bazera, sartuko gera biok» erantzun dit. «Ez; adiskideak ditut» esan diodanean joan da errira.

– Seguru bazekiñat, ordea, ura zala.

– Ama, gezurra esateko ere talentua bear da. Bestela, Iñaxiori bi lekutan batera egoteko doaia eman dio Jainkoak.

– Salatu egingo diñat.

– Or konpon. Orregatik ez dute urkatuko. Zuri eraso badizute, neri ere ez didate pakean utziko. Baiña etzaizkit, zuri bezela, jolasera etorriko. Aitarren iltzaillea bizi da, ama. Asitakoa bukatu naiko du. Ni, beraz, etxe ontan ez nago seguru, ta aitonaren baserrira noa, bein baiño geiagotan esan didate ta. Agur ta ondo lo egin. Berdin nork lagunduaren pal-tarik ez daukazu. Noiznai sartu giñezke ijito kuadrillan.

Neskameak, naigabez, ala esan zion:

– Mutilla zurekin onera etorri da?

– Bai. Atea ere berak jo du, ta sartu nai zuen.

- Orduan, inola ere ezin liteke ura izan.
 - Ori seguru badakit.
 - Zu joaten bazera, triste geratuko da etxe au.
 - Ez det uste. Nere ama ta auzoko gizon aundi orrek alaituko dute.
 - Bai; egia. Beti biak elkarrekin daude.
 - Biak alargunak eta jolasean.
 - Baiña ez beti oso garbi.
 - Ni, beiñepein, banoa emendik.
 - Orain onuzkero amarrak badira, ordea.
 - Ez dio ajolik. Etxea bertan dago. Ez det uste-gabekorik nai.
- Eta, neskamea agurtuz, illunpean atera zan.

SALAKETA

Epaillea, jakina Donostiakoa, bere lanean ari zan, banaka-banaka inguru ortan zebiltzanak deituz, ea eriotz ori argitzeko biderik billatzen ote zuen.

Doña Isabelek-eta erakutsi zioten nondik jarraitu. Baita gaia eman ere. Alabak emandako aolkuak etzituen ontzat artu. Etzan beiñepein atzeratu.

Doña Isabel bi lekukorekin azaldu zan –Don Kosme goragoko maillan eta etzuen arazo ortan naastu nai, bai-baizekien noren lana zan– arratsean gertatu zitzaiona salatuz.

Karakol biltzailleak dotore agertu zion bere begiak ikusi zutena epailleari, eta bereala aldegin nai zuen. Baiña juezak, olako lanak nola egiten diran laxter erakutsi zion.

Lenengo, alargunari bere izen-abizenak eskatu zizkion:

- Nola dezu izena?
- Isabel.
- Eta abizena?
- Sierra.

Beste biei ere artu zizkien. Egindako salaketa ere irurak izenpetu zuten.

Gaztea laxter damutu zan iskanbil ortan naastua, geiagotan ere etorri bearko zuela pentsatuz.

– Zu len izana zera emen.

– Bai, jauna. Illa nik billatu bainuen.

Alako begiratu sarkor bat egin zion epailleak; eta, beren eginkizuna bukatutakoan, atera ziran andik bi lekukoak. Gazteak ala zion bere lagunari:

– Nere susmurra egin ote du?

– Aren begiratuak izutu al au? Ez dit uste.

Doña Isabel bakarrik geratu zan, eta asi zitzaion epaillea galdezka.

– Zer gertatu zitzaizun atzo?

– Bai. Atzo arratsean, egunerokoa irakurtzen ari nintzala, leiotik sartu ta mutil gazte batek eraso zidan, eta bi atzaparrekin lepotik eldu. Baiña bai eza-gutu ere. Nerekin nai zuena egin baiño len, atzaparrak askatu nizkion. Ona emen egin zizkidan arramazkak. Eta «¡Socorro!» oiu egin nuen. Lekuko egin duten auk, baita Don Kosme ere, laxterka azaldu ziran. Arek, berriz, igesari eman zion.

– Eta nor da Don Kosme ori? –ondo zekien baiña.

– Fiskal nagusia izan bear du. Baiña bera ez da onera etorri.

Ezagun askoa zuen epailleak; eta, ura lekuko azaldu etzanean, nolakoa ote zan zorioneko eraso ori?

– Eta eraso zizun mutil orrek, zer izen du?

– Iñazio Segurola izeneko mutil arlote bat.

- Orrekin ez didazu ezer esaten.
- Nere alabarekin ibiltzen dan mutilla.
- Zu zera, orduan, Don Antonio ildakoaren alarguna?
- Bai, jauna.
- Eta Iñazio ori?
- Esan dizut: nere alabaren senargaia.
- Ez det ezagutzen, baiña denak igaro bearko dute auzitegi ontatik. Eta zergatik eraso bear zizun?
- Nere alabarekin ibiltzea nik nai ez detalako.
- Nik entzun detanez, etzan, bada, ura etorri aintzindari bezela?
- Ala etorri zan. Baiña etzuen bere egitekoa bete.
- Nola biali zenduten, bada, orren konfiantza gutxiko mutilla aintzindari?
- Ori aitaren lana zan. Bere alabarekin asi ez-kero orrekin txoratuta, bere interes guzien zuzendari izendatu zuen.
- Gazte arlote bat dala esan ez dezu?
- Bai, jauna, ala da ta.
- Zure senarrak bere interes guzien buru jarri bazuen, ez du itxurarik.
- Nere senarra eskola gutxiko gizona zan ta.
- Arrazoi ori, oso-osorik, mutillaren alde dago: ez dala edozein.
- Bai; nere alabarekin ibiltzen dalako.
- Eta zuk etzenduen olakorik naiko.
- Ez. Tratu gutxi izan det nik mutil orrekin; ta gutxiago izan banu, obe.

– Etziñan orduan senarrarekin ondo konpontzen?

– Ez ondo ta ez gaizki. Ona zan, baiña beti berearekin atera bear duten oietakoa. Etzuen beste pekatu-
turik.

– Zu ere bai noski. Ta arek bere eskubideak zaindu bear, interesak bereak zituen ezkerro.

– Denak gera gerekoiak.

– Orduan, senarrari arrazoi ematen diozu. Beti orrela pentsatuko bagendu, amaika iskanbil gutxiago izango litzake munduan. Eta alabarekin ondo konpontzen al zera?

– Mutil orrekin asi zan ezkerro, ez.

– Orduan, zure alabaren ondotik berezi nai zenduke ori.

– Bai, jauna. Orain bera egin baita denaren jabe.

– Alaba iruzurtu ta berezi zedin egindako komeriren bat izango zan ori.

– Bai, komeria! Emen dauzkat lepoan arramazkak.

– Begira, Doña Isabel: Don Kosmek ikusi ta salatzerat etorri ez danean, ez dago gauza garbirik or. Berarekin itzegingo det.

– Orduan ez diozu orri garrantzirik ematen.

– Arek zer esaten didan.

– Alargunak babesteko leku onean zaude zu, epaille jauna.

– Zuk gorroto ikaragarria diozu mutil orri. Espe-
txeratu nai zenduke. Nik, berriz, denei entzun gabe ez det olakorik egingo.

– Orri orrela uzten badiozu, urrengoan ito egingo nau.

– Len ere orixe egingo zizun, ura zu itotzeko asmoan sartu balitz. Ondarrabiko epailleak esanta dakit, eskutitzak 15’ean etorri zirala aitortu ziola zure gorrotoko mutil orrek. Baiña beste batek, onen ize-neko karneta batekin atera ta eraman zituela. Gazte bizar aundi bat zala ori. Gazte bat etorri zan Antoniorekin tasisan mugaraiño; gazte batek billatu zuen illa; zuri ere ala eraso zizun; onera ere bai lagundu. Ez dakit leku oietan dabillena ez ote dan bat, baiña ikasiko det.

Berak aitortu zuena aurrean jarri zion. Izenpetu ondoren, aldegin zuen amorruez, salatzeraz joana benetan damutua.

Epailleak etzion ezer sinistu.

DONOSTIRAKO DEIA

Iñaxio jakiñaren gaiñean zan, bada, auzitara deitzerako zer gertatzen zan. Jueza, berriz, bere mar txan zijoan, eriotz orren inguruan ibillitako guziak banaka-banaka deituz.

Baiña etzekiten aipatutako eraso ori Doña Isabeli egin zioten edo berak asmatutako ipuia, komeri bat alegia, ote zan, epaillea atzipetu ta bera lotzeko. Bazirudien asmatu egin zutela. Egia bazan ere, antzerki bat: mutilla aske zegoen bitartean, alarguna etzegoela seguru. Len ere olakoak egiten tajutsua omen zala Doña Isabel.

Eraso ori egia bazan beiñepein, berari erantsi naiko zioten, bi lekukorekin joanta gaiñera. Baiña Don Kosme iskanbil ortan ez naastuak atsegin ematen zion. Etzan dena gari garbia izango. Zalantza gaiztoa zeraman, bada, Iñaxiok; ta bera eraso orren egille izendatuko ote zuten beldurra ere bai.

Antonioren eriotza ezkerro, etzuen ezerk arrituko, denetarako eskubidea bazutela uste zuten batzuek eta. Oiek etzeukaten Ondarrabian bizitzeko

eskubiderik. Dena garbitu baiño len bere atzena zer izango zan ere bai noski: espetxea. Orren billa zebiltzan etsaiak. Baiña bere lekukoak ere egingo zuten lana. Ortatik ondo ornitua zegoen. Salaketak artara beartu ezkeru, ogei ere bai noski, espetxera sartzeko asmoan epaillea asten bazan, deituko zituen.

Zer nai ote zuten etsaiak? Maritxu bakarrik utzi ta berenganatzea? Baiña onek, aitonaren etxera joan zalako, etzien nolanaiko jipoia eman.

Arrats artan berak etxe barruan ikusi zituen bi lagunak izenpetua zan, bada, salaketa ori, deabrua bera ausartuko ez litzakena. Baiña kontzientzirik ez daukanarentzat dena zillegi baita.

Berak entzun zuanez, salatzeke asmoan joan ta uste gabeko epaillearen galderak urduri xamar utzi omen zutela. Bera ta lekukotzat eraman zuen gaztea omen zirala susmurgarrienak.

Maritxuk zorrotz esan ziona: gezurra esateko ere talentua bear zala, euskeraz esaera batek ederki erakusten digun bezela:

Gezur bat esan nuen
lengoan Getarin,
ni baiño lenago zan
etxeke atarin.

Dana dala, bere erantzunak an zeuden auzitegian idatzita, izenpetuak gainera, ukatu ezin zitezkenak.

Auzitegira joateko deia artua zeukan, bada, mutillak. Poztu zan gainera, ta berekiko ala zion: «Ari dek lanean. Naaspil ontatik ezer garbirik aterako ote du? Salaketa onen ondorenak balitekek neretzat ez onak izatea. Baiña etsaiak ere astinduko dizkik, epaille langillea bada».

Maritxu jakiñaren gaiñean jarri zuen:

– Oitu bezela, biar goizean baiñua artuko degu, ta txuxenean joango naiz. Jainkoak jakingo du urren-goia elkarrekin noiz artuko degun.

– Eguraldi ona bada, biar goizean bertan.

– Jainkoak ala nai dezala.

– Epaillarengana joateko beldurrak al zaude?

– Ez. Baiña espetxera sartzeko bai.

– Zereko espetxera? Ez det uste.

– Lekukoei sinisten badie, larri ibilliko naiz.

– Berrogei bear ta ere badauzkagu ta, amarenak baiño obeak gaiñera.

– Ori da nere benetako itxaropena. Baiña zu aitonaren etxera joana, benetako lasaitasuna da nerezat.

Esan bezela, bada, musu bana emanaz, «suerte on, Iñaxio» esan eta txuxenean au Donostira joan zan, eta neska urduri aitonaren baserrira, elkarrekin bazkalduko zuten itxaropenetan eta lasai itxurak egiñez, baiña biotza korapillatua.

Auzitegian, oitura danaz, agurrak egin ondoren eta galdezka asi baño len, bere izen-abizenak eskatu zizkion epaillak. Ondoren:

– Nongoa zera zu?

– Arjentinakoa, jauna.

– Buenos Aireskoa?

– An jaioa ez banaiz ere, an egiten nuen lana.

– Eta zer opiziotan?

– Il zuten Don Antonioren interesen zuzendari-tza neraman.

- Orduan eskola politaren jabe izango zera zu.
- Injenierotza bukatua daukat.
- Zure gurasoak modu onean biziko dira?
- Urepeletik joandakoak berez; artzai ta nekazariak. Besterik etzuten ikasi. Alare, martxa polita daukate jarria. Aien gorabeera guzien zuzendaritza ere nik neraman.

- Eta ura utzi ta etorri zera onuntza?

- Nerekin dabillen neskaren aita Don Antonio-ren lanak dira guziak. Alaba bakarra zeukan, eta martxa aundiko zurgin ola baten jabe, bere langillei ta guzi. Ni bere alaba bakarrarekin nenbillelako, nere etxeko martxa anai gazteagoari utzi ta oso-osorik Don Antoniok eskeintzen zidan zurgin olaren zuzendaritza artu nuen. Berdin denborarekin gure esku geratuko baizan dena.

- Orduan aitarekin ondo konpontzen zīñan.

- Ez niñun, bestela, bere etxerako artuko.

- Eta amarekin?

- Ez senarra, ez alaba ta ez ni.

- Eta zergatik?

- Galdera orri ezin nezaioke erantzun jatorrik eman. Emakume orrekin ez det batere artu emanik. Zurgin ola ori etxetik berex dago, ta an konpontzen nintzan ni aitarekin. Oien fameliko martxaren berri ez dakit batere, iñoizka alabak esaten didana besterik. Nik ez daukat arrazoirik emakume orren aurka edo alde itzegiteko. Neskaren aiton-amonak arraintzale ta nekazari ziran. Nereak, berriz, nekazari utsak, len esan detanez. Baiña orren amaren berri ez dakit ezertxo ere. Orko interesak aitarenak zirala

bai. Mailla kontuan asten bagera, berdin-berdiñean gaude. Emakume estraiñua izan bear du orrek. Alaba bere artekoren bati eman nai lioke. Aitak ez. Maritxuk ez du entzun nai ere. Au, jakiña, nere iritzia da. Bestela, ez det ulertzen emakume orren neregana gorrotoa, ez baidegu, alderatzekorik ere, elkar ezagutzen.

– Arrituta uzten nauzu. Nik uste nuen zu ezjakin arlote arrunt oietakoa ziñala, ta neskak laguntzen zizula.

– Ez det oietako iñoren laguntza bearrik. Aski naiz neroni. Or sartu banaiz ere, Maritxuren maitasunagatik izan da. Norbait bear zuten. Ez pentsatu, bada, diruaren atzetik nabillenik. Neskaxa ori begietatik sartu zitzaidan; eta, arlote bat balitz ere, nik jarraituko nioke.

– Egia, injenierotza egiña badaukazu.

– Bai. Bukatua daukat, eta esan dizut lenago ere nere gurasoak martxa ona daukatela jarria. Ez dedilla, bada, Doña Isabel mailla kontuan asi. Maritxu ta biok berdintsuak gera: nekazarien seme-alabak, euskaldunak gaiñera.

– Eta zergatik biali ziñuzten aurretik?

– Aita-alabak nerekin konfiantza osoa zeukatelako. Oiek nai zuten ni lenago etortzea, aita zetorrenerako dena moldatua edukitzeko. Etzuen bere gurasoei enbarazu egiterik naiko Don Antoniok.

– Noren susmurra egiten dezu orduan?

– Ez da erreza. Baiña au ez da bakarraren lana. Ez diruagatik ere. Beste okerragoko naaspillen bat dago ezkutuan, eta oraindik arraiskuan besteren batzuen bizia. Nere iritzia au da.

- Zertan legoke ezkutu ori?
- Ondarrabian badagoela ospe aundiko gizonen bat, ustez seguru dagoena, gorabeera au zuzentzen duena.
- Nere aalegin guziak egingo ditut, gobernadorea bera bada ere zuk diozun ori, egia bada, arrapatzeko. Baiña zuek lagundu bear didazute.
- Gure paltarik ez dezu izango.
- Eta Doña Isabeli nork eraso zion geronekoan?
- Nere iritzian, iñork ez.
- Komeri bat egin zuten orduan.
- Alabak dionez, bai. Uste dezu, esku auek arrapatu balute, karraxi egiterik izango zuela? Maritxuk ondoena kontatuko dizu ori. Ni ostatuan bizi naiz.
- Zure eskuak askatu zituela esan zidanean, zorionak eman nizkion, eta noiznai joan zitekela lutxa librera. Baiña arritzen nauzu: itz bat txarrik ez dezu esaten emakume orrengatik.
- Egia jakin nai badezu, ez det ezagutzen eta ez diot gorrotorik.

Bere aitorpena izenpetu zuen eta pake-pakean atera zan andik. Txuxenean, bere zai edukiko zuen Maritxurengana joan zan; aitonaren etxera. Ikusi zueneko, laxterka atera zitzaion etxetik; ta, jakiña, lenengo galdera:

- Berri onak al dakarzkiguzu?
- Ortik ekarri litezken onenak. Joaterako esaten nizun, epaillea ergelen bat edo saldua ez egotekotan –ta ori, berriz, zailla da–, ez niñutela baituko. Amak gezur ta abar ikaragarriak esan omen dituela neregatit. Nik, berriz, itz erditxo bat ere ez aren aurka. Ori

izan da nere lenengo tantoa. Don Kosmek ori denaren berri jakin ta ez naastuak egin du beste gaiñerakoa.

– Ez dakizu nolako larria eduki detan, zu etorriko zeran edo ez pentsatzen.

– Emen bazkaltzeko asmoan al zera?

– Ez diet ezeren enbarazurik eman nai. Ez dute gela polit ori neretzat uztea gutxi egin.

– Garaia degu ta orduan goazen ostatura.

– Eta ni noiz deituko ote nau?

– Ori berak ikusiko du. Beste geiagoren berri ere ikasi bearrean dago. Ez gera gaizkille susmurgarriak gu bakarrik izango.

– Bai. Ejenplo ona ekarri degu pake-pakean bizi zan erri langille ontara.

– Ez uste zure ama auzitegitik oso lasai atera zanik. Juezak alako zerbait aipatu baidit. Erasoaldi ortaz nik ez dakidala ezer esan diot. Ori zure gain geratu da.

– Eta zer moduzko gizona da?

– Ona, ta elkar izketa ontzat artzen duena. Nik oien aurrean ez naiz ibilli. Ez dakit besteak nolakoak diran. Baiña neri atsegin ta patxarosoia iruditu zait.

Epaillea lanean ari zan. Bai aztia ere usnari.

JOXEPAREN IBILLERAK

Aztiak bi gazte aiekin itzegiteko gogoaz zeukan. Bai-baizekien auzitan asi zirela. Ta mutilla espetxeratuko ote zuten otsa ere zabaldu zan.

Iñaxio ikusi zuen bere etxe aurretik igarotzen. Donosti aldera noski, auzitegira joango zan. Andik etortzen ere bai, ordea. Etzuen itzegiteko egokierarik eduki. Bikote arekin nai zuen, bada, elkar izketa bat egin.

Oraingoan etzala Iñaxio Donostitik etorriko norbaiti entzun zion. Baiña mutilla alai asko azaldu zan.

Galerazitako txalet aurretik zijoan, auzobidean barrena, Joxepa, goiko baserri batera, inguru artako jendeak ziona jakitera.

Gizon kankaillu purrustalari ura azaldu zitzaion, bere burua Jainkotzat zeukana. Itzik ez bazion egin ere, galerazitako barrutietara sartzen ote zan zeletari jarria agian.

Baiña Joxepa etzan alakoa. Beste zelaietan ere etzeukan belar sendagai oien paltarik. Aundia da Ondarrabi.

Betiko zakur orista ura atera zitzaion bidera zaunkaka. Baiña ezaguna zuen, ta bere jabea baiña mazalagoa gaiñera. Alare, etzuen aren jolasik nai, ta ala esan zion, eskuarekin bere etzanlekua erakutsiz:

– Oa orrera nagusiaren mutur orrekin.

Ez dakit jabeak entzun zuen, baiña etzion begiratu gozoa egin. Joxepa amona txiki bat besterik etzan. Beldur gaiztoa sartu zion, ordea, bere burua Jainkottzat zeukan kankaillu ari.

Ixil-ixilik, ura atzetik begira zeukala, auzobide artan gora joan zan. Ikertxo bat egin nai zion baserri artako nekazariari, jakiña, zer atera erazi. Txalet aien ondoan bizi zan, eta baziteken arek Joxeparentzat interesgarri izan zitezken gertakari batzuen berri jakitea.

Kardaberak biltzen arkitu zuen, indianoa bera ere, patxaran-patxaran.

– Egun on, Joxe –eraso zion Joxepa berritxuak–. Ari gerala betiko lanean?

Inguru artako baserritarrak zoratzen egoten ziran Joxeparekin itzegiteko. Erriko gertakari guzien berri ikasten zuten aren aotik.

– Ongi etorri, Joxepa. Jainkoak bizia gordetzen digun arte, zerbait egin. Semeak ere itxasora joanak ditut egaluxetara. Bitartean, ni polliki-polliki baserri ontako martxari eusten.

– Aurtengo urte ontan arraintzaleak kontentu dabiltzan otsa dago. Sekulako zamak ekartzen omen dituzte. Ala daukat entzuna.

– Ez dabiltza asarre. Aiek andik eta nik emendik, bateko esne, oillo, arrautz eta untxi, etzaizkigu etxerako gaizki etortzen. Zu ere bazabiltza, beti be-

zela, belar biltzen. Badirudi zurekin urteak ez daukabela zer ikusirik. Neskaxa baten arpegia ta gorputza daukazu oraindik benetan.

– Ai, Joxe! Zugaitzetan urteak beren aztarrena uzten omen dute, zenbat urte dituzten ezagutzeko. Gure gorputzean ere berdin. Gaur urte batzuk, etzizaidan neri orren errez arnasa berotzen. Zugaitz asko bezela gaude gu ere: ostaje ederra, baiña barrrendik iroituak. Aize purrustada bat aski erortzeko.

– Ez diozu gezur aundirik. Ni beiñepain alaxe nabil, otz-beroen iges.

– Txikitan ere ez al ziñan ala ibiltzen?

– Bai. Ori ere egia da. Etzaitut txalet oietako barrutietara sartzen ikusi.

– Ez, Joxe. Or sartzea galerazia daukat. Norbait tek zeleta ere egin dit. Auzoko gizon egoskor orrek biali niñun. Beeko emakume jelazko orrek ere bai. Gaur erne zegoen kankaillu ori beiñepain.

– Orixe petralkeria! Zergatik ori? Belar batzuk artuarekin lur jota geratuko al dira, bada?

– Aztia omen nintzala ta nere bizkar par egiteagatik, Erodesek Jesukristorekin bezela, emen nenbilen batean, beren morroi karakol biltzaille orrek deitu niñuen, bere nagusi ta jelazko emakume ori izketan ari ziran lekura. Nere bizkar par egin nai zuten, baiña nik egindako aztitzak amorru eman zien, eta or sartzea galerazi zidaten. Ez naiz geroztik sartzen. Oiek bien artean badabil zerbait. Berriketak ala somatzen ditut.

– Zalantza ori badaukat nik ere: biak alargun ta ezkongai daudela, aurki ez ote ditugun eztaiak izango.

- Lengo senarra il orduko, bestearekin ezkondu?
- Antonio galduaren atsekabe gutxi erakutsi digu emakume orrek.
- Zertan antzeman diozu?
- Emakume berri onek poztu duela aundi ori. Andrea ere bai kankaillu orrek.
- Oiekin artu-emanik bai al dezu?
- Goragoko maillan bizi dirala uste duten oieta-koak dira. Olakoei muzin egiten diet. Ez det traturik nai izaten.
- Orduan, zuk ere zalantzak badituzu?
- Bai, Joxepa. Etxe ortatik igarotzerakoan, beti elkarrekin ikusten ditut.
- Iskanbil ortatik zerbait garbirik aterako ote da?
- Ori ez dakit. Baiña, nere iritzi apalean, gezu-rretan ari dira. Entzun detanez, Maritxu orain aiton-amonen etxera joana omen da.
- Ederki egiña. Neska gazte batek etzeukan or bizitzerik. Etxe ortan, errespetua jartzeko, mutilla palta da. Salatu dute, baiña auzitegitik alai etortzen ikusi det.
- Txanpain ta guzi ospatu zuten, bada, espetxean sartuko zutelakoan. Geronekoan kurrixka ikaragarriak baziran, beiñepein, barru ortan. Operak kantatzen ari diran emakume askok artuko luteke orren abotsa, emendik ere entzuten nituen ta.
- Arraiea! Ez dauka auspo txarra. Ta nor izan ziteken eraso ziona?
- Komeri polit bat egin dutela besterik ez. Bi sartu ziran etxera, kurrixkak entzunda. Bestea gero etorri zan.

- Nola dakizu ori?
- An izan zan iruetako batek ala esan zidan: or
karakol biltzaillea esaten dioten gazte ori zala kome-
riantea.
- Ori seguru badakizu?
- Esan ez dizut, bada, salbatzera joan zan aietako
batek kontatu zidala? Etzidan noski gezurra esan-
go.
- Eta gazte ori nor dan badakizu?
- Ori, Joxepa, neretzat ezkutua da. Ez det uste
trapu zuzena danik; bere arpegi inoxente orrekin,
Barrabas xamarra ote dan.
- Eta nondikakoa dan jakingo dezu noski.
- Bai. Amerikarra izan bear du, orain urte bat-
zuek etorria edo Don Kosmek ekarria. Don Antonio
il baiño egun batzuek lenago galdu zan emendik. On-
doren, bereala azaldu berriro.
- Ori bai dala interesgarria.
- Neretzat ez du ezeren garrantzirik orrek. Askotan
galdu ta azaltzen baita.
- Ez da, bada, jelazko emakume orren semeren
bat izango?
- Olakorik ez det entzun. Ala bada ere, ondo
ixilik daukate, Don Kosmeren morroi bezela azal-
tzen da ta.
- Doña Isabelen antz aundia du mutil orrek.
Denbora izango da testigu.
- Arian-arian, berri asko ta beretzat garrantzi aundikoak
ikasi zituen Joxepak, eta eserita zegoen lekutik zutituz:
- Agur, bada, Joxe. Ondarrabian gure gogoan ez
da olakorik gertatu.

– Banaka izateko obeak dira auk. Baiña dirua ta gonak naastu ezkeru, ez dago gauza onik. Emen ala daude noski.

Etxe aldera artu zuen Joxepak, pentsakizunez be-tea. Egoskor aien ataritik igarotzerakoan, irurak el-karrekin arrapatu zituen, Don Kosmeren etxe ata-rian. Beste bide batetik joateko asmoak artu zituen, baiña meserez aiengana joateko eskatu zioten. Bel-durra urbildu zan. Don Kosmek galdetu zion:

– Don Antonioren eriotz ontaz zuk zer iritzi dau-kazu?

Galdera gaiztoa iruditu zitzaion: aztitza egin zue-nean bezela pentsatzen ote zuen jakin naiko zutela; eta, eriotz ori fameli artekoak egiña bazan, bere bu-rua arraiskuan jarriko zuela, ez orduan bertan, baiña uste gabeko bazterren batean bai. Ori zan bere bel-durra: iltzailleak, arraiskuan jartzen bazan, etziola iñori barkatuko.

– Ori baiño aurreragoko lanak badauzkat nik. Or dago epaillea. Ari galdetu. Nik ez daukat zer ikusirik ortaz.

– Aztitza ala egin zenduen, bada.
– Neri adarra jo nai didatenei, orixe egiten diet.
– Eta Maritxu zergatik joan dan emendik badaki-zu?

– Aitonak lekua eskeiñi ziola entzun det; eta, eroa ez bada beiñepein, joatea ondo egin du. Amari eraso badiote, zergatik ez alabari?

Etzioten beste galderarik egin, baiña gizon aren muturra serio zegoen. Etzutela aztikeritan sinisten, baiña beldurra sartu zien. Bai berari ere, ordea. Ai zer nolako ezkutuak ote zeuzkaten beren artean!

MARITXU AUZITAN

Iñaxio aske ta lasai etortzen ikusi zuenean, benetan lasaitu zan neska. Orain babes onak zeuzkan: bizi zan etxeakoak eta mutilla.

Epaillea etzan ergel oietakoa izango, amaren komeririk etzuen sinistu ta. Oraindik etzuten goikoak Iñaxio etorri zanik jakingo. Bai-baizekiten lotzeko eskatuko ziotela. Baiña Maritxuk, urrengo erasoa berari egingo zioten beldurra zeukan orain. Garbi igerri baizion ama zeren billa zebillen.

Etzan luzaroan zai egon. Urrengo egunean bertan artu zuen deia. Iñaxiok aolku au eman zion:

– Zuk beti egia esan. Aal badezu, ez iñor salatu. Beartuta ezik, ez iñorengatik gaizki esaka jardun. Iñori gorrotoa diozunik, aal badezu beiñepein, ez agertu. Ni orretxegatik biali niñun aske.

Ori zan onena, errugabeentzat beiñepein: xoil egia esan.

Donostia etzuten ondo ezagutzen, batez ere neskak, eta Iñaxiok lagundu zion auzitegiraiño. Ordurako zai zeukan jueza bere idazkariarekin.

Maritxu goibel ta triste xamar sartu zan, elkar maite ta babestu bear zutenak mutur joka ari zirala-ko. Baiña ez eroria.

– Egun on, jaunak –agurtu zituen serio-serio, atea zabaldu ziotenean.

– Baita zuri ere. Eseri zaite.

Beste berriketarik gabe, onela galdetu zion epai-leak:

– Zure izen-abizenak?

– Maria Irastortza Agirre.

– Amerikarra zera noski?

– Bai, jauna. Buenos Airesen jaioa.

Epailleak, maian zeukan paper batera begiratzuz, ala galdetu zion:

– Nola liteke ori, zure amaren abizenik ez daramazu ta?

– Nere egizko amarena bai.

– Doña Isabel dalako ori ez da orduan zure ama?

– Nik sei urte nituela il zan nerea. Ori, aita zana-ren bigarren emaztea da, nik amar urte nituela ez-kondua.

– Oraintxen bai eriotz au interesgarria egiten zai-dala.

– Ezin nezake nik beste orrenbeste esan.

– Zer esan nai zenduke, bada, denentzat ondo datorrenik ez dago mundu ontan ta?

– Aita il didate neri, ta oraindik gure susmurra.

– Nere egitekoa au da, bada; ta, iltzaillea arrapa-tzekeroz, zuek lagundu bear didazute, lekukorik ga-beko eriotza baida au.

- Nere paltarik ez dezu izango.
- Ondo konpontzen al zera ama ordeko orrekin?
- Ez aita eta ez ni.
- Zergatik ori?
- Oso berekoia dalako.
- Orduan, eztabaidak izaten zenituzten famel-
lian?
- Bai, jauna. Ori egia da. Amak emandako laz-
tan gutxi artu det nik.
- Eta Iñaxiorekin ondo konpontzen al da?
- Ama arengatik gaizki esaka ariko da, baiña ez
du ezagutzen. Iñaxiok ere ez ura.
- Zuk, onera etorri ziñanean ikasi zenduen noski
aitaren aztarrenik etzala.
- Bai, jauna. Iñaxiok esan zigun ama-alaboi ba-
tera.
- Eta etzizuten lenagotik abisatu?
- Astirik etzeukalako, egun batetik bestera etor-
tzeakoak giñan ta.
- Eta noren susmurrak egiten dituzu?
- Nere zalantzak baditut. Baiña, seguru jakin ga-
be, ezin nezake iñor ere salatu.
- Ortara ixten bazerate, zailla izango da errudu-
na arrapatzen.
- Neri, beiñepein, fameliko lana dala iruditzen
zait.
- Eta Iñaxio ezin al liteke izan?
- Edozein izan liteke; ta zuk, nai dezun bezela
pentsatuko dezu. Baiña izketan ari geran bezin segu-
ru dakit ez dala Iñaxioren lana. Nere buruarekin aiña
konfiantza daukat nik arekin.

– Ez dira, bada, mutilla ta zure ama ordekoa elkar artuak egongo, zuri interesak kendu ta biak ezkontzeko?

– Epaille jauna, galdera orrek par egin arazten dit. Espetxean sartu zori ibilli zera, ari eraso ziolako; ta orain, alkar artuak ote dauden? Ori egingo balute ere, ez lituzteke nere interesak jasoko.

– Mutur asko dauzka arazo onek, eta bildu bearrak denak batera, zerbait irixtezkeroz. Zer erantzuten diozu?

– Neretzat bakarra dauka.

– Eta nolakoa da ori?

– Len ere esan dizut: fameliko lana.

– Ondo dago. Bi fameli daude or: aita ta amarena, ta zuek bi gazteena.

– Aitaren aldetik ez daukat ezeren susmurrik.

– Zergatik etzenioten gurasoei abisatu?

– Nere begien aurrean bota zuen aitak eskutitza korreora. Baiña etzan iritxi. Beste gaiñerakoan, guretzat etzan bearrezkoa, mutilla ortarako etorri zan ta. Ni seguru nengoen, etxekoei enbarazurik ez emateagatik, lekua nonbait billatua izango zuela. Or dago txalet ori. Amari eraso arte, an bizi nintzan ni ere. Orain, aiton-amonen etxean.

– Orrek bete-betean arrapatzen du mutilla susmurgarri.

– Nik ez nuke beste orrenbesterik esango. Ondo dakizu 15'ean iritxi zirala eskutitzak, eta Iñaxiori aurrea artu ziotela.

– Oraindik ez dago seguru garbitua ori.

– Neretzat, eta Ondarrabiko epaillearentzat, bai.

– Emen salaketa txiki bat dago egiña: zure ama ordekoari, lengo arrats batean, nork egin bear zion erasoa?

– Nik ez det sinisten. Ori dena komeri bat izan da.

– Bere lekukoak ez diote, bada, ala. Gazte ori da neretzat susmurgarriena. Don Kosme an zan, baiña etzuen lekuko egin nai izan.

Bere aitorpena izenpetu zuen, bai, ta atera zan andik.

Len illun ta naastua bazegoen, etzuela Maritxuk asko argitu zion epailleak.

– Bi mutil gazte oietan dago, bada, emengo pe-kataria.

AUZIAREN GILTZA

Joxepak etzekien auziaren berri; nola zijoan alegia. Baiña, jakiña, etzegoen lo. Bazebillen gora ta beera, aal zuenari galdetuz ta txeetasunak ikasiz. Doña Isabeli egin zioten erasoaren berri ere bai; eta inguruko batek garbi agertu zion erasoko arrats artan an zer gertatu zan.

Poliki-poliki bere elburura irixten ari zala iruditzen zitzaion. Komeri ura egin zuten ezkerro, Joxeparen iritzian, an zeuden pekatariak. Joxe indianoak esan zionez, karakol biltzaillearen lana zala ori.

Iñaxio auzitegian izan zala ere esan zioten. Espetxera sartu zutela ere bai, iritxi zan bere belarrietara. Baiña etzan egia ori. Andik egun batzuetara, Maritxu ta biak Donosti aldera joaten ikusi baizituen.

Aiekin itzegiteko bazeukan, bada, gogo: ea nola ote zeramaten auzi ori, eta nolako aurrerapenak egin zituzten ikasteko.

Uste zuenez, korapillo ori askatuko zuen giltza bere eskuetan zeukan, eta bazan neketan zebiltzanei

laguntzeko ordua, ainbeste atzera-aurrera ta alper biaje ari ziran egiten eta.

Eskutitz xaar ura billatu zuen lekuan beera zeto-rrera, bere aurrean gora zetozela ikusi zituen, aiton-amonen etxe aldera noski, seguru asko mutilla bere etxeraiño neskari laguntzera. Bidean topo egin zituen. Baita Joxepak irriparez agurtu ere:

– Egun on, bikotea.

– Baita zuri ere, Joxepa.

– Ez degu aspaldi ontan elkarrekin itzegin.

– Alako aztitza beldurgarri ura egin zenduen ezkerotik, ez.

– Garrantzi aundia zeukan arek, eta laxter asiko da betetzen.

– Baiña, Joxepa, sinistu al genezake ori?

– Bai, bai. Ori dena laxter argituko da. Gezurra izan bazan, etziran ainbesteraiño asarretuko. Alare, nik emen daukadan eskutitz batek argi geiago egingo du, zalantzarik gabe.

– Illunpe ontatik ateratzezkeroz, zerbaiten bearra izango degu.

– Zer moduz dijoa, bada, auzi ori?

– Asi giñanean bezin illun. Don Antoniorekin zer ikusi izan genduen guziak banaka-banaka or gabiltza, alperrikako joan-etorrian aspertuak. Bederatzigarren illebetea sartu gera, ta oraindik ez dakigu ezer.

– Eta Doña Isabeli eraso ziona zu al zera? Nola etzaituzte espetxean sartu?

– Nere atzaparrak ikusi zituen orduko, antzeman zion epailleak aiek gezurretan ari zirala. Nik lepotik

eldu izan banio, «otx!» bat esateko ere kemenik etzuen izango.

– Zu espetxean zaudela usteko dute oraindik or goian. Txanpain ta guzi ospatu omen zutela. Berri ori auzoko nekazari batek ala kontatu zidan.

– Kukuak oker jo die, bada. Seguru badakigu orren billa dabiltzala: Maritxu ta ni elkarrengandik berezi.

– Eta karakol biltzaille ori nor dan badakizute?

– Auskalo! Amerikarra berez, diotenez. Onera etorri ta ezin bizirik ikusi zuenean, Don Kosmek, urrikaldu ta bere morroitzat artua izan bear du.

– Nik ez nuke beste orrenbeste esango.

– Norbaitek zer bait geiago esan al dizu?

– Bai. Esan didate, baiña begi auekin ikusi ta gero. Arrazoi ematen diet, baliteke utsegitea baiña.

– Len batzuk daldaraka utzi zenituen, eta esaigu-zu ezer geiago badakizun.

– Zu, Maritxu, barkatu galdera, baiña etzera Doña Isabel jelazko emakume orren alaba. Ez baidaukazute ezertan ere elkarren antzik.

– Ez. Ori nere ama ordekoa da.

– Ortan ere aztia izaki zu.

– Eta karakol biltzaillea?

– Len esan dizugu. Ez dakigu ezertxo ere orren berri.

– Ni, berriz, lenengoz ikusi nituen ezkerroztik, zalantzan bizi naiz.

– Zalantza ori zertan daukazu?

– Karakol biltzailleak Doña Isabelen antz aun-

dia dauka. Ikaragarria. Esan liteke aren arpegi berbera erantsi diotela.

– Baiña, Joxepa, nora zoaz? –galdetu zion, arri-tuta, Maritxuk.

– Bat gizona dala ta bestea emakumea dala. Beste berezitasunik ez daukate oiek. Nik ezkutu ortako ate zirrikitu bat zabaltzen dizutet, eta poxpolo baten argiarekin sarrera erakutsi, barrun ortan ezer ikusten ote dezuten. Txeetasun guziei begiratu diet, eta gero ta elkarren antz aundiagoa artzen diet. Nik nere iritzia artua daukat; eta, ori ortara balitz, dena garbi-garbi legoke.

– Jesus! Gu ez gera ortaz oartu ere.

– Badakit Vargas *el Barbas* deitzen diola Don Kosmek.

– Nere amak, berriz, *Bambino*.

– Eta zer esan nai du orrek?

– Mutilla edo gaztea, zerbait olako, italiano.

– Baiña bai *Mi Vargascito* ere, auzoko baserritar batek esan zidanez. Zure aitak azken aparria egin zuen ostatu artako nagusiak, Segundo Vargas omen duela bere egitazko izena.

– Baiña nondik atera dituzu txeetasun oiek gu-ziak?

– Entzun, ikusi ta bata besteari galdetuz. Ondar-rabiko baserritar guziak ezagutzen ditut. Aiek ere bai ni. Karakol biltzaillea, berriz, oso iztun ta alaia da. Denekin badu tratua. Ta baserritar oiek dena kontatzen didate neri.

– Bejondeizula. Gu ez gera galdetzen ausartzen ere.

– Ez da erreza. Emengo baserritarrak, bein

konfiantza artu ezkerro, biotza zabalduko dizute. Bestela, ez.

– Izan ere, etorri berri xamarrak gera, ta alako iskanbillak ekarri ditugu erri paketsu ontara.

– Jakiña, ori dena eragozpena da. Ezkutu ori garbitu nai badezute, nai ta nai ez, iltzaillearen berri jakitezkeroz, Ameriketara gabe eziña iruditzen zait.

– Ortan, Joxepa, oso-osorik zurekin gaude. Andik asia dala eriotz au egosten.

– Ondarrabi edo Donosti alde ontan gizon ospetsuren bat bada, bere ustez ukuitu ezin liteken oieta-koa, seguru dagoena, iñoren susmurgarri ez dana, ari auek guziak korapillatzen dituen. Ta epailleak, arkaitz orren atzean gertatzen dana ezin du ikusi. Nai ta nai ezkoa zaizute, bada, andik asi bearra. Iskanbil ontan zabiltzaten guziak andik etorri baizerate.

– Bein baiño geiagotan pentsatu izan det nik ere ori. Baiña nola? –zion Iñaxiok.

– Ezin ziñezteke epaillearen zai egon. Antonio il zutela bederatzi illebete joan dira. Auzo guziak asper erazi ditu, eta oraindik illun dago.

– Bai. Zurekin bat gatoz. Ez det uste ezer aurreratzen degunik.

– Presaka al zerate?

– Ez oraindik. Bazkaltzeko goiz degu. Egun guzian zer egin ez dakigula, aspertu gera oraintxe.

– Ez bazerate lotsatzen beiñepein amon arlote onekin, atozte gure sukaldera. Nik emango dizutet, ezkutu ori zabalduko duen giltza.

– Txinako muturreraiño joango giñake olako giltza baten billa.

Sukaldera eraman zituen. Bereala «giltza» ori es-

kuan zuela jetxi zan, eta Iñaxiori eskuetara eman zion.

Onek, eskutitza irakurri ondoren, eta Maritxuri luzatuz, ala galdetu zion Joxepari:

– Non billatu dezu au?

– Olakoren etxe azpian.

– Aspaldi?

– Zuk indianoen aparlan egindako salaketa baiño ogeiren bat egun lenago. Izutua geratu nintzan. «Emen billaukeri izugarriren bat bazegok» nion nereko, eta txukun-txukun gorde nuen. Emen amerikar bat galdu zala jakin nuenean, berriz, «Nere susmurrak bete dituk». Baiña orain arte ixilik gorde det. Beldur pixar bat ere ematen zidan, ez ote nuen, ori zabalduz, nere bizia arraiskuan jarriko. Baiña orain, zuek atzera-aurrera neke ta naigabetan ikusitakoan, kontzientziak ez dit agintzen gordean edukitzea. Onekin nai dezutena egin. Nik ez det bearrik. Baiña etzaizute komeni iñori ematea. Onen berri zabaltzea ere ez. Bestela, iltzailleak besteren bat aurretik eramango luke, onen jabe egiteagatik. Galduko bazendute, berriz, kito.

Maritxuk, irakurri zuenean, amorruz ala zion:

– Letra au badakit norena dan. Baiña izen oiek ez ditut ezagunak.

– Ez naiz batere arritzen. Fameliko gorabeera guzien berri dakienak egiña dago ori. Txeetasun guziekin agertzen baidu noiz etorriko dan. Non bazkalduko duen ere bai. Len elkarrekin bizitakoren bati edo konfiantza osoa daukanari egiña dago au.

– Orregatik, berriro galdetzen dizutet: nor da karakol biltzaillea?

– Guk ez dakigu. Ikasten ere ez gera batere saiatu. Alperkeriak menderatu gaitu. Ez degu ortarako zuk bezelako afiziorik.

– Ori ote da Alvaro Vargas? Edo onen semea Segundo Vargas? Ala deitzen baidiote karakol biltzailleari. Oiek denak amerikarrak dira, gezurrezko izenpean estaltzen diranak.

– Ala ote dira oiek?

– Ez. Emen dituztenak bai noski. Eta ez arritu. Nik ere badet aizpa bat lekaime. Arek ere gezurrezko izena darama.

– Orain ulertzen dizugu nondik nora zoazen –zion Maritxuk.

– Bai. Ez da zailla igertzen. Uste det, dena ez bada ere, geiena asmatuko detala. Nonbait lan gaiztoren bat egin ta iges dabiltzanak dira oiek, baiña beste izen batek beren nortasuna estaltzen diela.

– Biotza bear du orratik, Justiziaren iges orrela ibiltzeko –zion Iñaxiok.

– Zenbaiti ajola gutxi, berearekin atera ezkerro. Egin dezagun kontu Mercedes Rati Doña Isabel Sierra dala. *Vargascito* edo Segundo Vargas, bere semea. Nori egin dio eskutitz ori amak? Gazteari ez beiñepein. Semearekin ez da ezkonduko. Nonbait emen da orduan orren aita: Alvaro Vargas ori, emakumeak eskutitza idatzi diona. Eguzkia baiño argiago dago au neretzat. Jakiña, azkeneko au da ariak korapillo batean lotzen dituen, epailleari ikusten uzten ez dion arkaitza.

Arrituta geratu ziran biak Joxeparen talentuz. Ezer ikasi gabeko baserriko amonatxo bat; alare, etzeukan nolanaiko burua.

– Txundituta uzten gaituzu, Joxepa.

– Ez da zergatik. Aztia ez naiz, bada, ni? Eta, eskutitz ori irakurtzean, nork ez du berdin pentsatuko, auzoan bizi diranak ere zalantza bera daukate ta?

– Eta zer aolku ematen diguzu?

– Eskutitz au gorde. Ez baidute an orren bearrik. Baiña onek jartzen dituen izenak, eta berak dabilzkitenak, biali beren argazkiekin batera. Auek oraindik ez dira zaarrak, eta an ezagunak izango dituzte. Nori igorri jakiteko, ez al dezute an konfiantzazko legegizonen bat?

– Bai. Bat aitaren maiteenetakoa. Ezertan laguntzea nai bagenduen, abisatzeko eskatu zigun geronekoan.

Esan bezela biali zituzten. Baita ango erantzuna txintxo asko artu ere:

– Erne daukat ibilli bearra –zion eskutitz ortan–; ixilik alegia. Emengo epailleak oietako bat eriotz gaiztoa egin zuela-ta, lotzeko agindu zuen. Baiña etzuten arrapatu. Orain ere, bere atzetik gabiltzala ikasten badu, berdin egingo digu. Or dabilzkiten izenak gezurrezkoak dira. Uste det garbitasun guziekin laxter or izango gerala.

IÑAXIO IGES?

Goiz batean, Maritxu ostatura joan zanean, txunditua geratu zan. Etzuen Iñaxiorik arkitu. Sumindu zan, baiña bai samindu ere.

Aita il zitzaiola bat-batean, eta gaberdian artu zuela berri gaizto ori, ta presaka illetara joana zala esateko enkargua eman zion ostalariari. Ango lanak bukatu ta aal zuen azkarrena emen izango zala. Arratseko amabietan artu zuela abisua. Goizean goiz, berriz, arako egazkiña. Ulertuko zuela noski, ta barkatzeko elkarrekin ez joana.

Maritxu, ustegabeko onekin, naastua geratu zan. Etzion sinistu, ta benetan negar egin zuen, poliki-poliki zerbait lasaitu zan arte. Baiña billaukeri gaiztoa zala ori zion berekiko.

Egia bazan il zala, zergatik ez abisatu berari? Elkarrekin joango ziran. Berak ere bazeukan angonegozioen martxa nola zihoan jakiteko gogoia.

Ia iru illebete baziran ordurako, angonegozioen adiskide bati emengo itunak biali zizkiotela. Beraz, etzeukan arazo ori garbitzera zertan joanik. Edo be-

ra zan errudun ta Justiziaren iges zebillen. Zana zala, beti ere, Maritxuren iritziz, billaukeria.

Oso zalantza txarrean geratu zan neska. Espatsua izaki. Igas egiña bazan, leku onean uzten zuen orain, berari sinistu ta konfiantza guzia artu ta gero. Etzuen bere amak parra gaizki egingo.

Ain sumindua geratu zan, arekin betiko austeko asmoak artu zituen lenengo.

Etzuen ezer ere jan. Gogo guziak joan zitzaizkion. Ondartzako murgilla utzi zuen. Bakarrik garai artan joatea etzan ausartu.

Ixil-ixilik bere aitonaren etxera joan zan, eta gela barruan itxi. An egin zuen negar, aspertu zan arte.

Etxekoak oartu ziran. Len beti mutillak laguntzen ziola eta bakarrik etortzen ikusi zuten. Bazkal ordua etorri ta etzan azaldu. Izutu ziran.

– Gure billobatxo orrek badu naigaberen bat gaiztoa. Bakarrik etorri da ta ez da gelatik ateratzen –zion amonak.

– Asarretu egin ote dira? Ori bear luteke orain, auzi gaizto au bukatu baiño len.

Gelako atean deitu zuen, bada, ta an azaldu zan, oraindik negar zeriola.

– Zer gertatzen zaizu, Maritxu?

Onek itz gutxitan eman zion gertatuaren berri.

– Ori ez da ezertxo ere, billobatxo. Lasaitu zaite. Ikusiko dezu nola laxter etorriko dan. Amaika neska-mutil maiteminduak aste guzian elkar ikusi gabe bizitzen dira. Baiña elkar ikusteko pozez. Berandu deitu bazioten, ta egazkiña goiz, zer egingo zuen, bada? Fameli bat azitzerako olako amaika ixtillu iga-

ro bearko dituzu. Ustegabekoak egunaren ordu guzietan zintzilik dauzka Jainkoak.

– Baiña iges joana bada?

– Susmur gaizto oiek utzi itzazu, maitea, gerorako. Zalantza pixar batengatik ezin ziñezke kezketan bizi.

Lasaitu zan. Baiña, gelan bakarrik geratzean, negarrari ematen zion.

Auzia bukatu arte, emen geratuko zala; orduan, bere interesak zaintzeko, Ameriketara joango zala; Iñaxiori kenduko ziola bere lanbidea, ez bazan lenbailen azaltzen. Oiek ziran, bada, Maritxuren asmoak. Alare, mutilla aurrean ikustean, aizeak ez al zituen denak eramango?

Berri ori bereala zabaldu zan Ondarrabian. Olatuetan, mingain txorrotxak izaten dute lana.

– Denak errugabea zala uste genin, eta orain auziaren iges.

– Eskutitzak norbaitek korreetik lapurtu zituela? Berak bai gorde, ta gezur kontari jardun.

– Leku onean uzten dik neska gaixoa.

– Eta ez al da bera ere naaspil ortan sartua izango, gurasoei beren aberastasunak kentzeko?

Ori dena karrikan aditzen zuen Maritxuk, eta baserrira bildu zan.

Bere ama ta karakol biltzaillea ere etzeuden, bada, ixilik.

– Orain oartuko dek Maritxu, nork maite duen.

Epailleak, berriz, bizi edo illa ura arrapatzeko agindua eman zuen. Bai Maritxu deitu ere. Onek, zekiena kontatu zion.

– Orduan, zuk ez dakizu zergatik joan dan?

– Aita bat-batean il zitzaiola, ta gaberdian abisua artu. Baiña nik sinisten diot.

– Ez nuen orren susmur txikienik ere egiten. Orain ez dakit ez ote dan bera izango iltzaillea. Azaltzen bada, lotzeko aginduko det.

– Nik ez det dudarik egiten ura etorriko dala, ta arek ez duela nere aitarik ukuitu. Orixe baiño geiago maite zuen.

– Seguru al zaude?

– Bere probak eman ditu.

Baiña errira azaltzeak beldur ematen zion Mari-txuri. Denak galdezka.

Amarekin ere topo egin zuen, onek naita noski. Arro-arro ala esan zion:

– Ez den noski orain arrazoirik ez nuela esango.

– Ama, nik lengo lepotik daukat burua. Iñaxio ez da olakoa.

– Baita neri eraso zidana ere bera den.

– Ori ere, ama, ez da egia. Zertarako ari zera gezurretan, zere burua iruzurtzen? Obe zenduke ixilik egongo baziña.

– Ura denen aurrean urkatu bear liteken.

– Beldur naiz beste maiteren batzuk ez ote dituzten egingo.

Amak etzion erantzun, eta bere bidean jarraitu zuen.

PALTA ZANA

Iñaxiok bazekien Ondarrabi aldean beragatik nola itzegingo zuten: denak edo geienak, bera zala orko iltzaillea ta lapurra. Ordu batetik bestera, iñori esan gabe, ixilik aldegin? Olaxe aldatzen baita erriko jendearen iritzia ere. Izan ere, gizona baiño aldakorragorik... Irakurri zazu, bestela, Pasio Santua. Iges egiña zala? Orrela epaituko zuten, uste gabeko batean il ta bere aitaren illetara joan zalako.

Alare, orrek etzion beldurrik ematen. Kezkatu, ain gutxi. Ta kartzelan sartzen bazuten ere, etzuen umorerik galduko. Berdin laxter lekua besteren bati utziko zion itxaropena bazeukan.

Doña Isabel, beragatik onuzkero ikaragarriak esaten ariko zan. Esamesa oiek guziak etzioten beldurrik ematen. Ori denaren berri bazekien. Aurretik ausartzen ez diranak atzetik egiten baidute lana. Bera Ondarrabian azaltzen zanean, kea bezela aizeak eramango zuen ori dena, aztarrenik utzi gabe.

Baiña Maritxuk bai, benetan kezkatzen zuen. Oso sentibera zala bai-baizekien. Sinistu ote zion

bera egitan ari zala, edo agian ez ote zuen bera susmurgarritzat artuko? Aitaren diruak ebatsi ta ez ote zijoan Ameriketara, an beste neskatzaren batekin ezkontzeko asmoan? Triste egongo zala benetan; ori bai: aitonaren baserrira bildua, errian entzuten zuenarekin nazkatua. Bere zalantzak izango zituen, bai, Maritxuk. Baiña etziola iñori bere aurka itzegin-go, ortan lepoa ere jarriko zukean. Gaixoak etzuen merezi naigabetan edukitzerik.

Bere aitaren illetako gorabeerak bukatu zituenean, eta Maritxuren negozioen martxa nola zijoan ikusi, amar egunen buruan —ez da izugarritzko epea Euskaditik Ameriketako atzera-aurrera ori egiteko—, Ondarrabira itzultzea pentsatu zuen.

Bazekien Don Kosmeren urte betetzea ere noiz zan, eta apari ori etzuen galdu nai.

Bere aitaren illetan an arkitu zuen konfiantzazko legegizon ura, eta denaren berri eman zion.

Onek, iru egunen aurrea artuta, Don Antoniorene etorrera orpoz-orpo egingo zuen. Garrantzi aundiko berriak agian ikasi zezazken txango ortan. Au atera ta iru egunera jarri zan, bada, Iñaxio bidean.

Uste zuen goizerako iritxiko zala, baiña ezbear bat izan zuen, eta illunbistan iritxi zan Ondarrabira. Arrats artan zuten Don Kosmeren aparía.

Don Antonio eramandako txoperra artu zuen, lendik beretzat ezaguna, eta txoperrarentzat bera ere bai. Iñaxiok ala galdetu zion:

— Etzera zu, il zuten amerikar ura mugaraiño eramanduena?

— Bai. Ta zuek ere, oraindik egia argitu eziñik itxillutan zabiltzate? Zer moduz dijoa arazo ori?

– Ez dakit, bada, zer erantzun. Oraindik serio dago ori, ta illun xamar. Esamesa ugari badabil. Oraindik nere juzkoa egiten dutenak badira.

– Izan ere, Amerika aldeko profesional oietakoren batek egiña izan liteke, lekukorik gabe gaiñera, ta nork argitu ori? An zure juzkoa egiten badute, oraindik emen nerea ere egiten dute besteak. Poztuko nintzake, bada, iltzaille ori, edo iltzailleak, arrapatuak baleude. Amerikatik al zatoz orain?

– Bai. Zoritxarrez, neretzat txango tristea. Oraindik gaztea izan arren, bat-batean il zait aita. Aren illetan izan naiz.

– Naigabea laguntzen dizut.

Txoperra agurtu ta txuxenean, Maritxu bizi zan baserrira joan ta neskarekin batera apari ortara azaltzeko asmoak zituen mutillak, arek nai bazuen beñe-pein.

Atea jo zuenean, ordurako illuna baizan eta baserriarrak etxera bilduak, amona atera zitzaion.

– Gabon, amona –agurtu zuen.

– Baita zuri ere, Iñaxio. Azkar egin dezu buelta. Benetan naigabea laguntzen dizut.

– Eskerrik asko. Betikorik ez gera mundu ontan iñor. Bear-bearrezko egunak besterik ez ditut igaro. Denean etsaiaren beldurrak. Emen al dago Maritxu?

– Ez dago etxean –esan zion.

– Garai ontan non egon liteke, bada?

– Ez dakit. Apari bat dutela-ta zerbait esan digu.

– Indianoen aparria orduan, urtero Don Kosmeren urtebetetzean egiten duten bezela. Ara joana ote da?

- Ori da, bai. An izan bear du.
- Arritzekoa da bakarrik neskaxa bat indiano gordin oien artera joatea. Norbaitek zirikatuko zuen.
- Bai. Don Kosmek eraman duela uste det, beti etxe txuloan egon gabe zerbait lasaitu dedin. Zurekin zapuztu xamarra dago.
- Banuen orren beldurra eta argatik nator ordu bat ere galdu gabe. Alare, ni aurrean ikusi orduko pasako zaio. Eta badakizu non duten apari ori?
- Guadalupeko olako ostatutan. Jakingo dezu non dagoen.
- Bai, amona. Amaika merienda lege egin ditugu an. Aldapa artan exeri ta orduak igaro ere bai kontu kontari.

ERASOA

Ango berri ikasia zan Iñaxio eta bide laxterretik artu zuen. Etzan gurdibidea ere. Piñudi itzalpe itxu bateko bide txigor estu bat, nekazarien eta abereen gora-beeran egiña. Garai aietan kontrabandistak ondo ezagutua. Indar aundia baizeukaten Ondarrabi inguru ontan. Egun argiz zoragarria, ura zijoan orduan tristea ta beldur ematen ziona, joan-etorri guziak piñupetik egiten baiziran.

Baserrian jaio ta bizi izan geranok, badakigu ondo bide laxter auen berri. Iru edo lau billatuko zenituen olako egal batean, eta denak leku batera zijoazenak. Gaurko egunean, zabal batek erreztu du ori, eta galdu ditu txigor aiek guztiak.

Mutillak, bada, gurdibidetik urrutienekoa artu zuen, andik zetorrela jakin ta norbaitek erasoko zion beldurrak. Neurriak artu bearrak zeuzkan. Laxter batean zijoan, ekaitzari iges egin naian.

Don Kosmeren apari ortara garaiz iritxi nai zuen, an erdi galdua zegoen Maritxu lasaitu nairik.

Laxterka batean piñupea igaro ta argira atera za-

nean, nabaitu zuen tximista dizdizka ego aldetik, inguru aiek guziak argituz. Gaua izanagatik, mendi ta egal aiek bat-batean ederki ikusi ziran. Ekaitza zeto-
rran.

– Erauntsia diagu –zion berekiko mutillak–. Oraindik urruti xamar, baiña urbiltzen, ortots goibela tximistak dariola.

Bat-batean alako batek argitzen zuen, begiak lausotzeraiño, eta itxutua utzi. Ondoren, orro illun bat, leku utsunean zerbait amilka baletor bezela, urrunean ixilduz, baiña urbiltzen-urbiltzen.

Suzko adarrak bezela, iñoizka dizdiz egiten zuen tximistak, dardaritsu, Ondarrabi, bere eliz, karrika ta guzi agertuz. Baita bideak ere, ango argiei astindu gogorak emanez, goiko menditik dena ederki ikusten zala. Arrigarritzko itxura ematen zion inguru guziari, Aiako Arri, Jaizkibel ta aurreko mendiak argitu ta itzaltzen zituela.

Suzko zerrendak egiñez zijoan tximista aurrera. Idazten ari zala zirudien, eta beti ortotsaren danbeta-ko illun, luze ta legorra entzuten zala.

Etzuen noski Iñaxiok bein ere alako arrats zora-garririk ikusi.

Tximistak gero ta maizago egiten zituen bere dizdizak, eta ozenago ortotsaren orroak. Ego ta sartalde erdi alde ortatik bazetorren erauntsia, aizearen burrundara baten aurrean, iñoiz argitasunak trumoiaren urez anpatutako sabel illun aiek erakutsiz.

Larre argian, soillean alegia, atsedean pixka bat artuz, sartu zan berriro len baiña itxiagoko piñudira, ta bee xamarreko bide txigor batera jetxi.

Bera zebillen ta zijoan bezela, beldurgarria iruditzen zitzaion leku ura. Baiña nork jakingo zuen aren

berri, mugatik igaro zan ezkerro etxeko amonak beste inork etzuen ikusi ta? Joana zala bazekiten; noiz etorriko zanik ez, ordea.

Lertxun aundia zegoen, ta xartaka, ote ta sasiz naastua bere azpia. Bide txigorra garbi, ordea, egoai-dera ondo ikusteko moduan.

Laxterka zijoan gure mutilla. Guadalupe etzegoen urruti, eta erauntsia gainera etorri baiño leen ostatura iritxiko zan itxaropenik etzuen oraindik galdu. Alako arratsik, jaunak!

Aizeak jotzen zuen aldapak beera, piñu aundi aiek astindu ta makurtuz, beren adarretan sekulako txistuak atereaz, eta azpiko xartakeria ere gora ta beera dantzatzuz, zurrunbulloa sortzen zuela.

Bere egiñaal guziak alperrik izango ziran noski. Etzan ordurako iritxiko, eta busti gabe ere ez.

Aize kolpe batek irauli zion aterkiña; ta, nai ta nai ez, oraintxe bai zeukala busti bearra.

Etzuen, bada, bidean denbora askorik galdu. Baiña berak uste zuen baiño urrutiago zegoen Guadalupe, eta illunpean gainera.

Bazerman bere beldur pixarra. Bada ez bada, erne zijoan. Piñupe artan inor zebillenik ezin ziteken bat oartu. Azpiko xartakeria eten gabeko eragiñean baizebillen, eta ango aizearen orroarekin otsik entzun ere ez.

Alako batean, ezkerreko besoan alako ximiko bat egin ziotela iruditu zitzaion, eta une berean tiro-otsa, baiña urrun xamarretik. Alare, argira antz eman zion non zegoen etsaia.

– Urdea aleena! Emen al abil? Ukuitu nauk, baiña ezer gutxi oraindik! –zion.

Etzuen orregatik bere bururik galdu.

Bereala etorri zan beste aran beltza, belarri ondolik *zist* egiñez ta alboko zugaitzean sartuz. Irugarrena baiño len, *zapla!*, bere burua lurrera bota zuen.

Nor baizan ere, bai etsaiak irrintzi bat egin ere:

– Aupa! Nerea aut!

Bere ustez seguru zegoen, erdiz-erdi arrapatu zuela eta otx bat esateko betik gabe zerraldo illa eroria zala.

Iñaxiok, ordea, etzuen besoko igurtzi ura besterik; eta, etsaia etortzerako, metro batzuk gora igo zan, eta ote moillo baten atzean estali. Igesi abiatzen bazan, urrengoan erdiz-erdi arrapatuko baizuen.

Sutzailleak ondo zekien non geratu zan. Tirabidean artua zeukan eta arro-arro jetxi, erortzen ikusi zuen lekura. Etzuen bide txigorrean arkitu.

– Non arraio geratu ote da?

Ezin zuen billatu. Izan ere, piñupe auek egun argitan ere illunak dira, ta gaugiro artan nola egongo zan? Metro erdira etzan ezer ikusten. Asi zan ostiko txikian sasi edo ote bati bultza, besteari bultza. Alare, ezin arkitu.

Iñaxio, berriz, atzean zegoen, jauzi egiteko prest, katua saguaren zai-zai bezela. Erne zeukan ibilli bearra, besteak pistola eskuan baizeraman.

– Linterna nerekin zekarreak –zion berekiko etsaiak–, eta ez nauk piztera ausartzen. Bizi bada, bestea ere agian armatua egongo dek, eta nai bezela arrapatuko niokek.

Inguru ura bere ustez ondo aztertu ondoren, pistola ezkerrean artu ta asi zan linterna ateratzen, pizteko asmoan. Bitartean, Iñaxiok ala zion:

– Au dek neretzat aukerako egokiera!

Bestea ezin pizturik ari zala, geldi-geldirik txutitu zan ta sekulako begiondokoa eman zion. Une bateko kordea joan zitzaion, baita pistolak eskutik iges egin ere, bera etzan erori baiña.

Iñaxio etzan ausartu ari eskuak eranstera. Nor zan ez baizekien. Bera aiña luze bazan. Bizar beltz batekin estalia arpegia. Bisera bat buruan, ille arroa zapaltzen ziola.

Pistola palta zuela igerri zionean, iru milla demonio ezkutatu zan andik etsaia, Iñaxioren zorionerako.

– Oa, oa! –zion berekiko.

Arek galdutako pistola onek jaso zuen. Seguru asko ura zala iltzaillea, bai. Alare, etzuen nor zan ondo ezagutu.

APARIA

Don Kosme aberatsa zan, eta emateko kontuan mazala. Orregatik, bere urte betetzean, bazkari edo apari on bat eskeintzen zion nai zuen indianoari.

Aurtengoa Guadalupen zuten, ango ostatu polit batean. Nai zuenak etorri, deia egiña zegoen. Baiña amarretik gora etziran bilduko. Urte guzian gorabee-ra aundiak izan ziran indianoen artean.

Igaz, gazte batek salatu zuen baten utsuna: mugatik igaro ta etzala bere gurasoen etxera azaldu. Oraindik argitu gabe zegoen ori. Illa billatu zuten, baiña iltzaillerik ez arrapatu.

Salaketa egin zuen gaztea etzuten, beren ustez, aurtan aparitan izango. Egun batzuk lenago, aita il zitzaiola ta aldegiña baizan. Ori aitzaki bat besterik etzala zioten askok. Iges egin zuela alegia. Ori zan Ondarrabi errian zabaldua zegoena.

Guadalupe leku zoragarria da. Jendeak gain orri dion eraspenak garbi erakusten du ori. Jaizkibelko magala edo eskaillera burua dirudi, lenengo txangoan orrerraiñoko aldapa igaro ta, or arnasberri-

tuz, urrengo saioan goraiño irixteko. Orixe da bere elizatzxo politarekin.

Igaz Ondarrabiko itxas ertzeko ostatu batean egin zuten. Aurten, berriz, Guadalupen. Ikuskari bikaiña andik artzen dana. Askotan ikusiagatik, beti zoragarria. Aspertzen ez duena. Begiak asetzeko, beti zerbait berria arkitzen diozu.

Illunbista zan orduan. Ondarrabi, Irun ta Endaia alde ori argiz betea ikusiko zenduen. Biderik bide, erriak batuz, sube bat bezela, argi zerrendak. Mendi egaletan ere bai tarteka, ipurtargiak ziruditela.

Bederatziak urbil ziran aiek igo ziranean, eta egun kiskalgarri baten ondorena. Aldaketa gogorra zekarren eguraldiak. Ondarrabiko itxas aldetik ipar aize gozo batek jotzen zuen aldizka, baiña oso ariña oraindik. Egoa ta sartalde bien erditik, abaillan zetorren alako beltz moltso bat, aizearen bultzadan, indarrean.

– Gaur aparitan txistularirik ez diagu izango, baiña danborra jotzailleak bai, seguru asko –zion batek.

– Bai; urte garai ontan maiz ekartzen duen ortotsa. Ez al dik erauntsi gaiztorik egingo. Bestela, konponduko dizkik gure baratza pixarrak.

– Arratsean nekez egiten dik alako arri eraso gaiztorik.

– Askotan aizea biurtzen dek. Pikardi ikaragarriak egin ere bai.

– Egia diok. Arto-babarrunetan batez ere egin izan zizkiguk, denak lurrari erantsita.

– Gu orain goazen lekurako, ajola gutxi.

Ekaitza ekaitz, ordua iritxi zanean sartu ziran denak barrura. Beren otoitz legea egin zuten, eta

denak zorionak eman zizkioten Don Kosmeri. Baita onek atzera eskerrik asko beroenak ere.

Sailleko batek berri triste bat eman zuen: igaz sail artan apaltzen zan bat, olako, Jainkoak beregana eramane zuela, ia uste gabeko ezbear batekin. Utsun ori nabari zala maian. Beste baten aulkia ere bazegoela utsik: igaz Don Antoniorene palta salatu zuena. Iges egiña edo aitaren illetara joana zala. Arek etzekien besterik. Aurten beñepein palta zan sailletik. Alare, beste bik bete zutela aiek utzitako utsuna: bi emakume zoragarrik.

– Ongi etorriak gure billerara. Onek indarra artzen ari du.

Baiña triste samar ikusten zuten Doña Isabel. An denak euskeraz ari ziran. Berak etzekien, berriz, eta ea zergatik etzuten erderaz itzegiten, protesta txiki bat egin zuen.

– Zu bakarra zera, ta gu bederatzi. Denak zuri amor eman bear al dizugu? –erantzun zioten.

Don Kosmek, bizkarrean pallakatuz, goxo-goxo ala esan zion:

– Pazientzi pixar bat artzazu, emen beste askok ez dakite erderaz eta.

– Igaz Iñaxiok salatu zuen indianoa, indarrean illa ta lapurtua arkitu zuten. Au gertaturik urte bete pasea, oraindik iltzaillearen berririk ez degu.

Eta asi zan aparria, «on dagigula» opa ondoren.

Egia esateko, oraindik etzekiten Don Antonio nork il zuen, laxter argituko zan otsak entzuten bazarrean ere.

Sarreran igerri bezela, asi zuen ortotsa egundoko iskanbillarekin. Aizeak bazter guziak eramane bear

zituen. Apaldarrei, ordea, ajola gutxi. Leku seguruan zeuden.

Ari ziran jan da edan, kontu kontari; eta, erauntsirik aundienean, norbaitek atean jo zuen. Zabaldu ziotenean, txunditurik geratu ziran denak. Iñaxio azaldu zitzaien, erdi bustia eta aterkin biurritua eskuan zekarrela. Denak bat-batean arpegira begira geratu ziran.

– Egun on. Bagaudela patxara ederrean.

– Baita zuri ere –erantzun zioten denak.

– Zorionak, Don Kosme. Bai al dago neretzat lekurik?

– Eskerrik asko. Amarrek jaten degun lekuan, zergatik ez amaikak? Egia al da aita il zaizula?

– Bai, zoritxarrez. Oraindik gaztea ta osasuntsua zirudien, baiña biotzak egin zion billaukeria. Bat-batean joan da.

Denak banaka-banaka esku eman ta «naigabeen laguntzen dizugu» esan zioten. Baita Doña Isabel ta Maritxuk ere. Au ama ta Don Kosmeren erdian zegoen, benetan triste ta urduri, ta zapuztu xamarra zirudien. Iñaxiori eskua ematerakoan, ordea, irripar egin zion eta lasaitu zan.

– Bidean natorrela, egaleko piñudi ortan eraso dit batek, eta bi tiro sutu dizkit. Bala batek besoan igurtzi bat egin dit.

Ondoren, pistola sakeletik atera ta maiaren gainera bota zuen.

– Zalantzarik gabe, pistola onek il zuela gure Don Antonio maitea. Neri ere bere erasoak onekin egin dit; eta, esan dizutedanez, ezkerreko besotik pasa zait bala. Baiña ez det uste ezer askorik egin

didanik. Naiago nuke espiritu pixka batekin garbitu ta lotuko balida norbaitek.

Maritxu asi zan, baiña ango serbitzari batek esan zion:

– Zaude lasai, ni ortan oitua nago ta.

– Fiskala zeran aldetik, jaso zazu arma zikin ori, nik ez det begien aurrean olakorik ikusi nai ta.

Lotu zion eta jarraitu zuen apariak. Gazteari egindako erasoak eta onek salatu zituenak arrasta ikaragarria egin zuten, indianoak alkar iltzen asi ziran ta.

Jan, edan eta berriketan ari zirala, edo Don Kosme omenduz bertsoak kantatuz, berriro atean jo zuten. Guardiazibillak zirala zioten neskak, norbaite-ren billa automobil batean.

– Zer egiteko dakarte oiek? –esan zuen batek.

– Oiek etzebiltzak emen beren gogoz.

– Ire eske etorriko dituk, Iñaxio –esan zion norbaitek.

– Etzidak batere ajolik, neregatik beiñepein. Laxter utziko ziot lekua besteren bati.

Berri onek bat-batean moztu zuen ango umorea. Iñaxio zegoen atean eta berak zabaldu zien.

– Gabon –agurtu zuten guardiazibillak.

– Baita zuei ere.

Iñaxiok keiñu bat egin zion neskari. Bai onek aguro ulertu ere orrekin zer esan nai zion.

Guardiazibillak etzeukaten berriketako gogorik, eta bereala oi u egin zuten:

– *Don Alvaro Vargas y Doña Mercedes Rati quedan detenidos por orden del Juez de San Sebastián.*

Larritasuna zan an. Nor ote ziran oiek? Don Kosmek, mai buru zegoen ezkerro, ala erantzun zien:

– *Os habéis equivocado de puerta. Esos señores no están aquí.*

– *Nos han dicho que sí.*

– *Esos apellidos no son vascos, y aquí todos lo somos.*

Etziran piatzen eta bat atean jarri zan, arma eskuan zuela; eta besteak banaka-banaka karnetak eskatu zizkien denei. Izen artakorik etzuten iñor arkitu. Atez utsegin zutela noski ta, «*perdón*» esanez joan ziran andik, beste ostatuak aztertzerara. Baiña susmur txarra artu zuten, ez ote ziran gezurretan ari.

Indianoen sail artan norbaitek bazekien gutxi gorabehera joandako guardiazibil aiek itzuliko zirala aiparia bukatu baiño len, eta orduan gezurrak alperrik izango ziran, bereala ezagutuko zituzten ta.

Alare, jarraitu zuen aipariak. Len triste bazeuden, guardiazibillen bisitak etzituen asko alaitu.

– Ez al aute lotu? –galdetu zioten Iñaxiori.

– Ez dituk nere billa etorri. Don Alvaro Vargas eta Doña Mercedes Rati, oiek eskatzen dizkitek.

Ondo zekien Iñaxiok nor ziran. Alare, etzituen galdu nai izan, Joxepa aztiaren igerletza bete zedin.

Guardiazibil aiek atera ta minutu gutxira, Doña Isabel, jan zituenak goraka bota nairik, kanpora abiatu zan. Don Kosmek laxter lagundu zion. Etziran geiago sartu.

Iñaxiok atetik begiratu zuen, nora artzen zuten ikusteko. Abailla guzian Ondarrabi aldera jetxi ziran, jakiña, andik mugara joateko.

Berriro keiñu bat egin zion mutillak neskari. Onek burua makurtu zuen.

– Oiek iges egin ditek –esanez sartu zan.

Sekulako tximista ta ortotsa egin zuen orduan. Norbaitek ala zion:

– Paristik entzungo ziteken orro ori.

– Biar goizeko txupinazoa baita inpernutik ere –Iñaxiok.

– Nork sutuko duena? –apaldarrak.

– Emendik joan diran bi oiek.

– Sendagillearengana eramango zin ta.

– Emakume ori, i ta ni bezin ondo zegoken. Iges egiteko aitzaki bikaiña.

– Iges? Etzekit zergatik. Fiskal nagusia ere bai?

– Besteak bezela, gizona dek ori ere. Don Kosmeren benetako izena Alvaro Vargas dek. Doña Isabelena, berriz, Mercedes Rati. Nik banekiken ori. Alare, ez dizkit salatu nai izan. Dijoazela aske, gero Justiziaren iges ibilliko badira ere.

– Baiña iges zergatik ibilli bear ditek? –erantzun zioten.

– Nik igaz salatu nuen auzia, oraintxe bukatu dek.

– Orduan, Don Antonio iltzea oien lana uan?

– Bai, jaunak, bai. Itxogin dezagun oraindik, iges egin duten edo ez jakiteko.

– Emen barruan gaudela, nola jakingo diagu?

– Arrapatu badituzte, ez dituk guardiazibillak berriz etorriko. Bestela, laxter emen dizkiagu, utsegiña zuzentzeko asmoan. Orduan itzegingo diagu.

Aiek atera ta ordu erdi inguru iritxi ziran txapel okerrak eta jo zuten atean. Don Kosme ta Doña Isabel an zeuden egin ere bai beren galdera.

– Ez. Ordu erdi inguru aldegin dute emendik.

Sumindu ziran.

– *Se nos han escapado dos bichos de cuidado. Se escondían bajo nombres falsos.*

Orduan ari ziran kapea artzen eta eskeiñi zieten. Bai gustora artu ere, kopaxka banarekin. Eguraldi biurri ari gogor egitezkeroz zerbaiten bearra bazeukaten.

Don Kosme-ta, iges egiteko kontu ortan zakur zaarrak omen zirala, eta beren buruak ezkutatzen ere bai. Ameriketatik, alargun bat il da biak aldegin omen zuten, eta ertzañak aien aztarrenik atera ez.

– Emen nor diran ezagutu dituzte. Alare, iges egin!

Leen esan degunez, guardiazibillak suminduak geratu ziran, eta noruntz artu zuten galdetu zieten apaldarrei. Inaxiok artu zuen itza, ausartena ura zan noski an ta:

– Emendik txuxenean Ondarrabiko bidea auke-ratu dute, seguru asko ortik mugara joateko.

– Garai ontan igarotzen ez da erreza izango –zio-ten guardiazibillak.

Itzegiteko urrutizkiña eskatu zieten ostatukoei. Baietz, baietz eta eraman zituzten lekura.

Andik mugako ertzañei itz egin zieten: nola senar-emazte sasoiko batzuek, berez amerikarrak eta emen bizi ziranak, iges egin zutela Guadalupeko os-tatu batetik, berak baitzera etorri baiño lentxeago;

gizon iltzaille ta lapurrak zirala biak; beren egitazko ta gezurrezko izenak ola ta ola zirala; batek, gaiñera, *fiscal general de San Sebastián* zeukala idatzia.

Eskerrak emanez, bereala aide, atera ziran andik.

Gure senar-emazteak iges egin zuten, baiña mugatik igaro ez. Oraindik etzuten astirik, eta ango ertzaiñak jakiñaren gaiñean zeuden orain. Etzeukaten zubitik pasatzerik. Ezta ara urbildu ere etziran egingo. Bazterren batean edo adiskideren baten etxean ezkutatuko zuten berebilla, eta beste ertzen batetik eragozpen aundirik gabe egingo zuten beren txangoa. Don Kosme etzan orren burugabea. Bidasoako berri ondo zekiena gaiñera.

– Guardiazibil oiek, berak bizi diran txalet oien aldera artu ditek, seguru asko beren trasteak artzera ara joango ziralakoan –esan zuen Iñaxiok.

– Izan ere, nere ama ta Don Kosmek aberastasun aundiak dauzkate etxean –zion Maritxuk.

Apaldarrak beiñepein bere artan jarraitu zuten, naigabetuak, kontu kontari, baiña aztu ziran bertsoak, eta iskanbil oien berri jakiteko zai.

ZURRAREN ZAKUAK BI ZULO

– Bai, jaunak –jarraitu zuen Iñaxiok–. Senar-emazte oiek eta beren seme karakol biltzaillea izan dira Don Antonioren eriotzean erru dutenak. Emengo apartu au bukatu ta iges egiteko asmoan ziran noski. Baiña ez det uste onez onean. Banituen nere susmurak. Oiek bazekiten, seguru asko, batez ere Don Kosmek, guk aukeratu genduen legegizonak Ameriketa alde ortako orren ibillerak argitu zituela. An ere bai omen zeuzkan bere ixpiak, eta iges egiteko asmoan zebiltzala ez dago zalantzarik. Baiña etzuen usteko orren aguro artuko zuenik oiek lotzeko erabakia epailleak. Mundu guzia arriturik utziko du eriotz nazkagarri orrek. Eta nik ere suerte gaitza izan det, jarri didaten sare ortatik iges egiteko. Itzeak ez ditu izutzen auek, berentzat ondo badator.

– Aitaren ta Semearen... –ziñatuz azaldu zuten apaldarrak beren arridura–. Bai; mundu guzian entzungo dan txupiñazoa da ori.

– Oiek biak ez al ziran alargunak? –galdetu zuen batek.

– Nik ala uste nuen beiñepein –erantzun zion Iñaxiok–. Baiña ez. Senar-emazteak dira, eta karakol biltzaille ori semea dute.

– Urdeak aleenak! –zioten erabat apaldarrak–. Ez gaituzte gaizki iruzurtu. Ondarrabia txunditurik geratuko da, ezin sinisturik, Don Kosme iskanbil ortan naastua zegoela jakitean. Negargarritzko erbeste ontan ez dago iñorekin konfiantza artzerik, erri ontako gizonik zuzenenetakotzat joa zeukaten bera ta.

– Bai, jaunak, bai –zion berriro Iñaxiok–. Oien lana nazkagarria izan da. Doña Isabelek izen onekin atzipetu zuen Don Antonio alarguna; ta, oraindik neska zalakoan, iges etorritako emakume ezkondu batekin uztartu zan. Au ere Don Kosmeren sarea noski, legegizon adiskide orrek esan didanez. Don Kosme, Alvaro Vargas izenarekin, Buenos Airesko senar-emazte aberats batzuen kotxeroa zan. Aurrik etzuten eta Vargas ori beren oiñordeko artzeko asmoan zebiltzan. Benetako lapurra zala igerri ziotenean, kendu egin zuten. Ondarrabitik ara berriro xamar joandakoa zeukaten begiz joa; eta azkenean ura biali ta bestea artu. Don Antonio zan au. Aldegiterakoan, Vargas'ek ala zemai egin omen zion oni: »Oraindik interes oiek guziak nere eskuetara etorriko dituk». Iñork etzion sinistu. Senar-emazteak il ziran, eta aberastasun guziak Don Antonioren esku geratu ere. Andik laxter ezkondu ta alabatxo bat izan zuen onek, eta Maritxu jarri zioten izena. Orain emen mai-buru dagoen ori. Baiña asko bear eta dirurik ez, eta alargun aberats bat il ta diruak ebatsi zizkion Don Kosmek. Epailleak baitzeko agindua eman zuenean, iges Ondarrabira etorri zan. Abera-

tsa, txalet bat erosi zuen. Iztun bikaiña, poliki-poliki Donosti barrutiko fiskal izateraiño iritxi zan. Ondarrabira azaldu ta bereala, ikasi zuen Don Antonio alargundu zala, alaba txiki baten aita; eta Doña Mercedesi idatzi zion, aurrea gurasoei utzi ta joateko ola-ko lekutara. Alargun aren interesen jabe egin bear zutela onez edo txarrez. Ala, semea, karakol biltzaillea, gurasoei utzi ta aldegin zuen emazteak, Don Kosmek erakusten zion lekura, Isabel Sierra'ren ize-narekin eta ezkongabea balitz bezela. Don Antoniok, lenengo, neskame bezela artu omen zuela, eta gero ezkondu zala. Iñaxio etxeko martxaren zaindari jarri arte, pakean ta ondo bizi ziran. Baiña gazte onek, Don Kosmek-eta zituzten asmo guziak austen zituen Maritxurekin maiteminduta, au ta karakol biltzaillea elkarrekin ezkondu nai erazi zituzten ta. Orduan asi zan Doña Isabel lengo senarraren atzetik, eta egin zion laxter irakurriko degun eskutitz beldur-garri bat. Au dena nere legegizon arek kontatua. Egia edo gezurra ez dakit zer dan. Baiña ondoren triste askoak ekarri ditu.

– Alajainkia! Ez dek nolanaiko billaua! Eta oraindik Justiziari iges egin!

– Bai. Oiek onuzkero beste aldean dira. Karakol biltzaillea eroriko zan. Etxean arrapatuko zuten, bere bataioko izena baizebilkien.

– Nik, berriz, askoz naiago det iges egin duten –esan zuen Maritxuk–. Izan ditezela zorionekoak. Beti ama deitu izan diodan bat espetxean ikusteko gogorik ez daukat.

– Orixe berbera da nere iritzia ere –erantzun zion Iñaxiok–. Baiña ni etorri ez banintz, indarrean eramango ziñuzten, eta nolakoa izango zan zure etor-

kizuna? Ni tartean sartu nintzalako etorri dira iskanbil auek guziak.

– Eta nola ikasi dezute oiek dirala?

– Ondarrabian nork ez du ezagutzen sasi sendagille edo enplastero ta erriak aztia deitzen dion Joxepa izeneko amona txiki bat?

– Bai, gizona. Aspaldi ontan iñon geldirik ezin egon dana.

– Orri eskerrak egin ditugu eriotz triste au garbitzeko moduak, eta nere bizia salbatzekoak ere bai noski. Beti belar sendagaien billa ibiltzen dana, egoarte batean, bada, beti bezela mendi aldera zijoala, eskuan daukadan eskutitz au arkitu zuen Don Kosmeren etxe azpian, nik joan dan urtean Don Antonioren palta salatu baiño ogeiren bat egun lenago. Erderaz egiña da, baiña nik euskeratua irakurriko dizutet. Obeto ulertuko dezute noski:

«Alvaro Vargas, nere biotzeko senar maite ori: Jaunak osasuntsu arki zaitzala, ni nagoen bezela. Baiña triste bizi naiz, eskubide guziak kendu baidizkidate. Zu ere, ni ezik, semearekin bakarrik arkituko zera. Zure ondora joateko zaleturik nago. Zergatik ez ditugu bion biotzak, len bezela, bat egin bear? Oraingo senar onek baztartua utzi nau, interes guziak bere alabaren izenean jarritz. Zoratzen nago zuri maitasunezko besarkada bat emateko. Ez al giñan lenago elkarrekin zoriontsuak? Baiña bion artean daukagun eragozpen onek galerazten digu: Don Antoniok alegia. Gure asmo ta naiak betetzezkeroz, badakizu ori kendu bearra dagoela. Il onen 20'an Ondarrabira dijoa, diru ta pitxiz zamatua. Mugatik lenengo ostatuan bazkalduko du. Zuk jakingo dezu non dagoen. Erne ibilli, aintzindaria aurretik bialia

du ta. Semeak lagunduko lizuke. Laxter, alabarekin batera, or nauzu ni ere. Uste det ordurako dena konpondua egongo dala. Agur, bada, nere biotzeko Alvaro maite ori. Mercedes Rati».

– Don Kosmeren leiotik aizeak eramango zuen noski –jarraitu zuen Iñaxiok–, ta Joxepak billatu. Maritxuk, eskuan artu orduko, igerri zion norena zan. Nik ez, ordea. Nondik egiña dagoen ere ez du jartzen. Seguru asko, Buenos Aiestik, an bizi zan-ta Don Antoniorekin. Alvaro Vargas ta Mercedes Rati, biak bataioko izenak. Ur gardena baiño garbiago dago au: izen oiek norenak diran. Ez bagenduen eskutitz au billatu, zailla izango zan oiek arrapatzen. Denak nere juzkoa egingo zuten. Ixtillu gorriak nere-tzat. Len aipatu degun zemai ori bete nai zuen, bada. Baiña kukuak oker jo zion –bukatu zuen Iñaxiok.

– Urdeak aleenak! Katamotza beti katamotz –zioten apaldarrak.

– Diru ta gonak iskanbil ortan ere.

– Karakol biltzaillea kozkortu zanean, Don Kosmek deitu ta morroi izenean artu zuen. Baiña benetako semea izaki. Orren bitartez, senar-emazteak ikasi zuten elkarren berri, eta asi ziran eskutitza andik eta emendik. Usai txarra artu zion orri Don Antoniok, ta bere interes guzien jabe testamentuan alaba utzi. Ordutik asi zan Mercedesen gerra, lengo senarraren alde. Eriotz nazkagarri ori egiteko, beren seme karakol biltzaillea aukeratu zuten. Baionatik Endaiaraiño tasis batean elkarrekin etorri ziran. Korreotik ere eskutitzak orrek ebatsiko zituen. Amari erasotzeko egindako komeria ere, orrena izango zan, zalantzarik gabe. Azkenean, illa ere berak billatu.

– Eta zuri nork eraso dizu?

– Karakol biltzailleak. Ondo ez badet ikusi ere, iñondik ere ura zan. Oien asmoa etzan besterik: senar-emazteak elkarrengana bildu. Ori legezkoa zan. Ni, berriz, espetxeratu. Orregatik egin zuten komeri ura. Ta Maritxu karakol biltzaillearekin ezkondu.

– Anai-arrebak? –zion batek

– Ez. Iñondik ere ez dira anai-arrebak. Ixillean Maritxu berekin artu ta iges egiteko asmoak ere artu ote zituzten. Baiña Maritxu aiton-amonen etxera joanak ondatu zituen. Ni Ameriketara joan naizen ontan, beste deabruzko asmakizun bat zeukaten elkarrekin itzegiña. Nere susmurrak dira auk. Orregatik etorri naiz tximistak egiñez, beste bati egazkiñeko txartela erosiz, berandu nenbillelako. Ez baizuten uste orren aguro etorriko nintzanik. Apari onen ondoren, nai bazuen ta ez bazuen, Maritxu berekin zutela galduko ziran emendik. Ortara aiton-amonen etxetik ekarri zaituzte onera.

– Ori egia ote da? –zion Maritxuk.

– Zertarako ekarri zaituzte orduan zu onera? Iru egun lenago etorri naiz. Zu emen zerala esan dit amonak. Laxterka onerako bidea artu det. Eguraldi gaizto onek salbatu du nere bizia. Zure askatasuna ere bai. Zure interesak nai zituzten oiek. Mugatik onera ez ditut iru ordu pasa, baiña erne zeuden. Norbaitek egin dit zeleta, ta bidera atera zait, onean ezin zutena txarrean bukatzeko asmoan.

– Jesus! –zioten erabat–. Deabruak ere ez luke biurriagoko asmakizunik sortuko.

– Amets gaizto au igaro da, beiñepein; ta aske-askeak gera gure bizimoduak artzeko. Ori dena, Maritxuren interesagatik. Baiña zurraren zakuak bi zulo –zion Iñaxiok.

TXUPIÑAZOA

Ango ixiltasuna autsi ta jendea zerbait bizi eraz-teko, galdera au egin zien txundituta zeuden bere lagunei Iñaxiok.

– Ez al zaizute iruditzen txupiñazo au ikaragarria izango dala? Biar goizean, berri au irratiz ta egunero-koetan jakitean, gozoak geratuko dira denak.

– Bai. Don Antonio erriko bikarioak il zuela esan baligute, lenago sinistuko genduen –erantzun zioten–, denok santutzat geneukan gizon ori ta. Amaika nekazariri lagundu diona. Orren etxera zijo-azen aiek, etziran beiñere andik esku utsik aterako. Denekin bazuen artu-eman.

– Itxuraz beiñepein maite zuen gure erri haar au ere. Amaika obretarako eman zuen dirua. Emengo kirolak indartzeko ere esku zabala zeukan.

– Bai; baiña besterenetik –zion batek amorruez–. Ori nik ere egingo nikek.

– Ala izango uan. Alare, ez dituk denak orren esku zabalak izaten.

– Jendearekin artu-emanetan ere gozoa uan. Gu-

re batzar au ere berak eraiki zuen. Bere patrikatik ordaindu ere. Guk jan da edan besterik ez genduen egiten. Iltzaille bezela ez bazuen aldegin, gizon ori olakoa zanik ez nuen sinistuko –zion Don Kosmek mesedeak egin zizkion batek.

– Gogoan daukat noiz etorri zan ori, bakar-bakarrik, gizon sasoikoa. Andik urte batzuetara ekarri zuen, mutil koskorra oraindik, karakol biltzaillea. Ondarrabian jaioa bezela, bat egiña zegoen emengo arazoekin.

– Ai, mutillak! Gizon zuzen bat billatzen ez dek erreza.

– Or konpon. Egin duenak paga dezala. Ez digute orrekin gure izen garbirik zikinduko.

– Naiago nuke datorren aste ori igaroa balego esan zuen Iñaxiok–. Txupiñazo au ez baita emen bakarrean entzungo. Berri zaleak ez gaituzte pakean utziko. Batzuk bertara etorriko zaizkigu. Askok urrutizkiñez nazkatuko gaituzte.

– Len aipatu degun Joxepak ere bereak eta bost igaro bearko ditu. Emendik aurrera, Ondarrabikoak ezik, kanpokoak ere etorriko zaizkio, beren zalan-tzak argitu nairik. Kobratuko balu, aberastuko litzake.

– Txupiñazoa txupiñazo, neri beiñepein zama ederra kendu didate bizkarretik. Arratsetan, bakarrik urduri nenbillen, bazterren batetik aran beltxen bat noiz etorriko zaitzaidan beldurrak –zion Iñaxiok.

– Nere arraixkuak baiño geiago izutzen niñun zu-reak. Bai-bainekien iltzeko beiñepein etzidatela era-soko –erantzun zion Maritxuk.

– Orra gure batzarrak bukatu, egun gozoa genduen baiña –zioten indianoak.

– Zergatik ez du jarraitu bear billera onek beti bezela? Jakiña, emendik aurrera bakoitzak bere patrikatik ordaindu bearko duela.

– Nik, beiñepein, datorren aste orri beldur ikaragarria diot. Pasako al da ori ere –Iñaxiok.

– Biar goizean, txupinãzo ori entzutean, amaika burutapen eta esamesak edukiko ditu jendeak Ondarrian.

LARRI ALDIAK

Aparia bukatutakoan, naigabetuak atera ziran indianoak. Benetan asarre, erri paketsu artara alako iskanbil ta eriotzak ere ekarri zituztelako. Jendeak, ori jakitean, zer pentsatu bear zuen? Banaka ta bina-ka sakabanatu ziran. Bazeramaten etxera zer kontatua.

Iñaxio ta Maritxu ere txuxenean txaletera joan ziran, an zer gertatu zan jakin nairik eta bertan atsedeteko asmoan. Ateko txirriña jo zutenean, neska-me-a, izutua, daldaraka, etorri zitzaien, dena zegoen bezela utzi ta andik aldegitokotan. Bi gazte aiek aurrean ikusi zituenean, poztu zan.

– Alare, zuek al zerate?

– Beldurrak al zaude, bada?

– Ordu bete ontan, gutxi gora-beera, bi aldiz ikusi ditut guardiazibillak emen. Orain ere, aiek ote ziran beldurrak atera naiz.

– Lasai zaite. Ez dira berriz etorriko; eta guk arrats au beñepein emen igaroko degu, eta gerorako ere asmo ortan gera.

Poztu zan neskamea.

– Joateko asmoan nintzan, baiña orain bertan geratuko naiz. Larri gaiztoak igaro ditut benetan.

– Zer gertatu da, bada, emen?

– Lenengo etorri aldian, «etxeko andrea emen al dago?» galdetu didate. Ezetz erantzun diet; Guadalupeko olako ostatutan dutela aparria onek eta beste orko gizonak ere bai, beste indiano batzuekin. Agur egin ta joan dira. Andik ordu bete bat inguru azaldu dira Doña Isabel ta Don Kosme beren automobillean, presaka ta muturka. «Zer gertatzen zaizute?» galdetu diot Doña Isabeli. Galdera gutxiago egiteko ta bere trasteak berebillera ekartzen laguntzeko erantzun dit. »Etzegok labea ogi erretzeko« pentsatut. Biok igo gera eta ekarri ditugu beren aberastasunak. Pitxi asko zituen eta garestienetakoak. Don Kosmek ere, bada, atera ditu bereak. Karakol biltzailleak lagundu dio. Au geiagoren billa igo dan batean, zalantzarik gabe au berekin eramateko asmoa zutela, azaldu dira guardiazibillak bigarren aldiz. Eskerrak erne zeuden. Goiko gizon aundi orrek bazuen beldurra. Mutillari itxogiteko betarik gabe, abailla guzian aldegin dute emendik. Karakol biltzailleak, gauza geiagorekin jetxi danean, automobilla zegoen lekuan guardiazibillak arkitu ditu. Nagusia non dan galdetu diote. «Ez dakit» erantzun die. Bereala lotu dute, eta onera etorri ta neri galdetu didate. Oraindik bost minutu etzirala, emengo trasteak artu ta joanak zirala erantzun diet. Ez didate beste galderarik egin. Al duten abiadura guzian, aiek atzetik aldapak beera artu dute, karakol biltzaillea berekin dutela. Ez det noski ondo egin, baiña ain

nengoen nastua. Orain berriro aiek zirala uste nuen, eta daldaraka atera naiz. Zer gertatzen da?

– Don Antonio, onen aita, oiek illa dala.

– Jesus maitea! Ori ere badegu? Oiek emen ibilli diran bezela, eta gizon iltzaille ta lapurrak izaki!

– Senar-emazteak dira oiek. Karakol biltzaillea semea dute. Gazte orrek il zuen Don Antonio. Gaur ere, ostatura noala, neri ere bi tiro sutu dizkit. Bai batekin besoan arrapatu ere.

– Jainkoagatik, zaude ixilik!

– Aspaldi ontan bageneukan orren susmurra, ta azkenean egia atera.

– Ez dakigu askotan nortsuren artean bizi geran.

– Gaurtik aurrera pakea izango degu etxe ontan.

– Eskerrik asko. Badago zerbaiten bearra.


– Joxepa aztiak erdiz-erdi asmatu du dena –zion Maritxuk.

– Eskerrak orri bizi gera –Iñaxiok.

ARKIBIDEA

Joxepa	7
Indianoen aparta	13
Artzaiaren larriak	29
Esku txuriko lapurra	35
Baten utsuna	39
Iñaxio	45
Berriro aztia	53
Ama alabak	59
Auzitegian	67
Aztia usnari	77
Karakol biltzaillea	87
Joxepa aztitzan berriro	93
Txaleteko gorabeerak	99
Epaillea lanean	105
Amari eraso	111
Salaketa	117
Donostirako deia	123
Joxeparen ibillerak	131
Maritxu auzitan	137
Auziaren giltza	143
Iñaxio iges?	151

Palta zana	155
Erasoa	159
Aparia	165
Zurraren zakuak bi zulo	175
Txupinãzoa	181
Larri aldiak	185



AUSPOA
LIBURUTEGIA